

IRAUNKORTASUN

Memoria

2018



Aurkibidea



Irizar Taldeko CEOaren gutuna

Irizar Taldea ezagutzen

Irizar: 130 urte bikaintasun eta iraunkortasuneko etorkizuna bistaratzen

Lehiakortasun iraunkorra: Lehentasuna eta konpromiso estrategikoa

Iraunkortasunaren estrategia eta jarduera Irizarren

Korporatiboa

Gure bezeroekin, bidaiariekin eta herritarrekin

Gure pertsoekin

Kanpo hornitzaileekin, hornidura katearekin eta aliantzekin

Ingurumenarekin

Gizartearekin, oro har



Esta es nuestra Comunicación sobre el Progreso en la aplicación de los principios del Pacto Mundial de las Naciones Unidas.

Agradecemos cualquier comentario sobre su contenido.

Mundu **iraunkorrago** baten alde



2019ko Iraunkortasun Memoria honekin pozik adierazi nahi dugu berritu egin dugula 2013an Nazio Batuen Mundu Ituneko hamar printzipioekin hartu genuen konpromisoa, Giza Eskubideei, Lan Eskubideei, Ingurumenari eta Ustelkeriaren aurkako borrokari dago-kienez. Hemen, iraunkortasunaren arloan (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) gure bezero, bidaiari, herritar, kanpo kolaboratzaile, gizarte eta ingurumenarekin garatzen ditugun oinarri eta ekimen nagusiak adierazten ditugu.

Irizar nazioarteko industri talde internacional eta dibertsifikatu bat da, eta egun negozio arlo hauetan dago presente: bidaiarien garraioa, elektromugikortasuna, elektronika, energia, motor elektrikoak eta konektibitatea. Irizar Groupeko enpresa guztietan hiru zutabe handiren gainean oinarritzen dugu gure etorkizuneko estrategia: marka, teknologia eta iraunkortasuna. Beraz, denok partekatzen ditugun Pentsamendu Estrategiko batzuk ditugu, iraunkortasunerantz aurrera egiteko ikuspegi argiarekin.

Aurten, gure 130. urteurrena ospatu dugularik, lehendabiziko aldiz gure memoriaren esparrua zabaldu dugu, Irizar Talde osoaren estrategia gehituta.

2018an, Mundu Iraunkorrako baten alde Irizarren izan ditugun nobedade eta aurrerapenen artean, dokumentu honetan hauek nabarmentzen ditugu:

- **Agenda 2030**erantz hurbiltzen hasi gara eta, gure estrategian, **Garapen Iraunkorrerako Helburuei (GIH)** egingo diegun ekarpena lantzen hasi gara.
- Gure lehendabiziko **kode etikoa** egin dugu, eta hori aberasten jarraitzen dugu.
- **Irizar-emobility**, inauguratu dugu, hau da, osorik elektromugikortasuneko soluzioetara zuzendutako Europako lehen fabrika, eko-iraunkortasuneko kontzeptuetan oinarrituta.
- Irizar ie tram autobus artikulatu %100 elektrikoak **Urteko Autobusaren** eta **Industria Ibilgailu Ekologikoaren saria** irabazi du 2018an Espainian.
- Gure autokar integralen kontsumoetan eta igorpenetan murrizketa handiak egitea lortu dugu, bai modelo hibridoetan, bai diesel motorrarekin dabilzanetan.
- Nabarmen aurreratu dugu **Ekoberrikuntzaren alde** dugun apustu sendoan. Gure i4 autokar integralaren Bizi Zikloaren Analisia (BZA) amaitu eta gero, Produktuaren Ingurumen Deklarazioa (PID) egin dugu, eta, horrenbestez, autokar fabrikatzaileen artean PID bat duen lehenengoa gara, UNE-EN ISO 14025 nazioarteko arauan oinarrituta, International EPD System-en eskutik.
- Gure ikuspegia eta etengabeko ahalegina bultzatu dugu Ekonomia Zirkularraren alde.
- Europako proiektu handietan parte hartzen jarraitu dugu, mugikortasunaren etorkizuna marrazteko.
- Eraldaketa digitalean edo 4.0 industrian aurrera egiten hasi gara, etorkizuneko proiektu moduan, gure erakundearen lan arlo guztietan eraginez. Garapen industrialaren etapa berri bat da, eta aldaketa garrantzitsuak utzi ditzake. Testuinguru horretan kokatzen dira Irizar Taldeko hainbat enpresatan hasi berri diren azterketa eta diagnostikoak. Helburua da etorkizuneko eraldaketa plana definitzea, epe laburreko ekintzak eta lehentasunak identifikatzen eta zehazten hasiz.
- Areagotu egin ditugu Irizarreko pertsonekin iraunkortasunari buruz egiten ditugun komunikazio eta sentsibilizazio ekintzak, Genero berdintasunean, Garapen Iraunkorrerako Helburuetan (GIH) eta Giza Eskubideetan.
- Gure Misioarekin bat eginda, talentua erakartzen jarraitu dugu, eta inguruan enplegua sortzen.

Ondo dakigun arren oraindik bide luzea dugula egiteko, harro gaude 2018an egin dugunarekin eta Mundu Iraunkorrako bat lortzeko ezarritako ildo estrategikoekin.

Hori guztia Irizar osatzen dugun pertsonok, bezeroek eta kanpo kolaboratzaileek egindako lan onari esker lortu ahal izan dugu.

Zorionak denoi.

José Manuel Orcasitas Landa
CEO Grupo Irizar

Irizar Taldea ezagutzen

- 2.1. Irizar Talderen aurkezpena
 - 2.1.1. Creatio
 - 2.1.2. Negozio arloak
 - 2.1.3. Etengabeko hazkunde iraunkorren dabilen talde bat
 - 2.1.4. Ekoizpen lantegiak
 - 2.1.5. Ordezkaritza propioak
- 2.2. Marka, Teknologia eta Iraunkortasuna
 - 2.2.1. Pentsamendu Estrategikoak
 - Gure Misioa
 - Gure Bisioa
 - Gure Konpromisoak
 - 2.2.2. Marka
 - Sendotasuna eta hazkundera
 - Industria Dibertsifikazioko Estrategia
 - Bezeroa, estrategiaren bihotzean
 - Berrikuntza, nortasun ikur gisa
 - 2.2.3. Teknologia
 - Abangoardiako aitzindaria
 - Mugikortasun iraunkorren alde teknologia propioarekin
 - Berrikuntza teknologikoa bultzatzen duen antolamendu kultura
 - 2.2.4. Iraunkortasuna





Irizar Taldearen aurkezpena

Irizar Taldea nazioarteko presentzia duen enpresa talde bat da, eta gaur egun sei jarduera sektoretan dihardu: bidaiarien garraioa, elektromugikortasuna, elektronika, motor eta sorgailu elektrikoak, konektibitatea eta energia.

Taldea zazpi markak osatzen dute (Irizar, Irizar e-mobility, Alconza, Datik, Hispacold, Masats eta Jema) eta haien jarduna 13 lantegitan garatzen dute Espainia, Maroko, Brasil, Mexiko eta Hegoafrikan. Gainera, I+G Zentro bat ere badu.

3.350 lagunek baino gehiagok osatutako Taldea da, bost kontinenteetan presente, eta 750 milioi euroren fakturazioko bolumenarekin.

Irizar S. Coop da Taldeko enpresa matrizea eta egoitza nagusia Ormaiztegin dago (Gipuzkoa-Espainia). Hor dago Creatio ere, Taldearen Ikerketa eta Garapen Zentroa.

1889an sortu zelarik, Irizar Taldea talde sendoa da gaur egun, geografikoki eta industrialki dibertsifikatua, etengabe hazten ari da, eta apustu irmoa du eginga markaren, teknologiarren eta iraunkortasunaren alde.

Creatio

Creatiok, Taldearen Ikerketa eta Garapen Zentroak, Taldearen ikerketa aplikaturako eta garapen teknologikorako ahalmenak bultzatzen ditu, bere sistema eta produktuetarako. Creatiok berrikuntzan lan egiten du epe luzerako ikuspegiarekin, etorkizuneko lehiakortasun iraunkorraren hobekuntzan, gure jarduera alorretan aberastasuna eta enplegua sortzen duen hazkundean pentsatuz.

Irizar Taldeak bere estrategiaren gako gisa betidanik egin duen berrikuntza industrialaren aldeko apustuaren emaitza da Creatio. 2009an iraultza estrategikoari ekin zitzaion, eta horrek Taldea haztea eta indartzea dakar. Markaren alde egiten da, autokar integralen fabrikatzaile bihurtuta, eta oso apustu indartsua egiten da teknologiaren alde; horrek I+Gko Zentro bat eratzeraz eraman zuen, Talde osoaren ahalmenak indartzeko.



Irizar Taldearen bideoa

Etengabeko hazkunde iraunkorrean den talde bat



1889an sortua
130 urteko historia



3.350 pertsona baino
gehiago (2018)



7 marka lider
Irizar, Irizar e-mobility, Hispacold,
Masats, Jema, Alconza, Datik eta
Creatio



750 M euroko
fakturazioa 2018an



13 produkzio planta
Europa, Mexiko, Brasil, AEB, Hegoafrika



Presentzia komertziala 5
kontinenteetan

Negozio arloak

Bidaia-arien garraioa

Irizarrek autokar eta autobusen gama zabala eta soluzio teknologiko ugari eskaintzen ditu, tartean autokar integralak, autobus %100 elektrikoak eta teknologia hibridoko II klaseko ibilgailuak hiriko eta hiri arteko zerbitzuetarako, autokar konbentzionalak gain.

Taldean, halaber, sistema eta osagaiak garatzen dira bidaia-arien garraiorako, errepidez zein trenaz. Masats espezialista da irisgarritasun eta azpiegiturretan, Hispacolden klimarako, airea garbitzeko eta defrosters teknologia garatzen ditu. Datiketik ibilgailuek sortzen duten informazioa jaso eta kudeatzeko gailuak garatzen ditu, gidatzen, diagnostikatzen eta mantentze lan prebentiboa egiten laguntzeko.

Elektromugikortasuna

Irizar e-mobilityrekin, Taldeak mugikortasun sistema integralak ematen dizkie hiriei eta herritarrei, bai autobus %100 elektrikoak, bai karga, trakzio eta energia biltegitratzeko beharrezko azpiegitura sistemak.

Irizar e-mobilityk, gainera, kamioi bat merkaturatu du, hiritan industri erabilera desberdinak egiteko pentsatua.

Motorrak eta sorgailuak

Trakzio sistema edo energia sortzeko garatu eta fabrikatzea, itsaso, hidraulika eta industri sektoreetarako.

Elektronika

Jemak potentziako elektronika eskaintzen du sare eta garraio kalitatera aplikatua, baita autokarretarako elektronika ere. Autobus eta autokarren sektorean, teknologia %100 multiplexaturako arkitektura elektronikoa garatzen du, sistema bakoitzari adimena emateko eta funtzio berriak eskaintzeko, kable kopurua murrizteko eta ibilgailuaren diagnostikoa errazteko. Halaber azpimarra daitezke AEB-LDW gidatzeko sistemak, eta HMI kontrol eta kontsola.

Energia

Jemak batez ere Big Sciencerako elikadura iturriak diseinatu eta fabrikatzen ditu, energia berriztagarriak egoki bihurtzeko –eguzkia, eolikoa, hidroelektrikoa–, biltegitratu eta ondoren sarean injektatu ahal izateko.

Konektibitatea - Adimen artifiziala

Datiketik gidariari laguntzeko sistema adimendunak biltzen ditu, eta ekipamendu osagarrien gama bat dauka, gidariari zein bidaia-ari mugitzeko modu ezin hobea eskaintzeko. Ikusmen artifizialean eta deep-learningean lortutako esperientzia handiak aukera ematen du flotak kudeatzeko, mantentze lan prebentiboa eta prediktiboa egiteko eta gidaritza autonomoa lortzeko.



Salmenta eta salmenta osteko sarea mundu osoan zehar



I+Gko zentro bat



Banaketa eta saldu osteko 8 enpresa propio

Irizar Autocars, Irizar UK, Irizar USA, Irizar Benelux, Irizar Asia Pacific, Datik Mexiko, Jema USA, Hispacold Mexiko



Sendotasun finantzarioa

6 jarduera sektore

Bidaia-arien garraioa, elektromugikortasuna, elektronika, energia, motor elektrikoak eta konektibitatea

Ekoizpen lantegiak



Irizar Mexiko

999an sortu zen Irizar Mexiko, Queretaro hirian. Gama altuko merkatuari erantzuten dio, Irizar i5, Irizar i6, Irizar i6S eta Irizar i8 modeloekin, eta errepideko garraio eta bidaiari enpresarik handienen ohiko hornitzailea da. Gaur egun, Irizar Mexikok lidergo sendoa mantentzen du merkatuan, %50 baino gehiagoko kuotarekin.



Irizar Brasil

1998an sortu zen Irizar Brasil, Botucatu hirian, merkatu latinoamerikarrari ekiteko. Irizar i6 eta Irizar i6S luxuzko autokarren segmentuan kokatuta, Irizar Brasil boka-zio esportatzaile handiko proiektu moduan finkatu da, eta, Brasiletik, Hego Amerika, Erdialdeko Amerika, Afrika eta Ozeaniako merkatuei egiten die zerbitzua.



Irizar Maroc

1996an eratu zen Irizar Maghreb sozietatea, Marokon. 2002an Irizar Century modeloa plazaratu zen, eta 2008an ireki zen lantegi berria Skhiraten, urtean 1.000 autokar ekoizteko ahalmenarekin. 2013an hasi zen autokarren fabrikazioa Europarako. 2014an Irizar i6 eta 2017an Irizar i6S atera eta gero, Irizar Maroko nazioarteko proiektiorik handiena duten proiektuen artean kokatu zen, merkatuko liderra izanik luxuzko autokarren segmentuan.



Irizar Southern Africa

2004. urtean Irizar Southern Africa sortu zen Centurion hirian (Pretoria). Lantegiak Hegoafrikako merkatuei erantzuten die, baita alboko herrialdeetako ere, horien artean Namibia, Zimbabwe, Botswana, Zambia, Malawi eta Mozambique, besteak beste. Luxuzko autokarren segmentua betetzen du Irizar i6 eta Irizar i6Srekin.



Irizar HQ

Autokar eta autobus gama zabala: integralak, biodieselak, elektrikoak eta konbentzionalak.

Masats

Irisgarritasun sistemak garraio publikoko ibilgailuetarako.

Alconza

Itsaso, hidroelektrika eta industria sektoreetarako motor eta sorgailuak.

Datik

Floten kudeaketa integrala. IoT sistema konektatuak.
ADAS soluzioak (Advanced Driver Assistance Systems).
Ibilgailu autonomoa.

Jema

Potentziako elektronika, sarearen eta garraioaren kalitatera aplikatua. Elikadura iturriak Big Sciencerako.
Energia berriztagarriak, biltegitratzea eta Smart grids.
Autokarretarako elektronika.

Hispacold

Klimatizazio sistemak autobus, autokar eta tren ibilgailuetarako.

Irizar e-mobility

Elektromugikortasuneko soluzio integralak hirietarako. Ibigailu %100 elektrikoak eta zero igorpenekoak, karga sistemak, trakzio elektrikoak, energia kudeatzea eta biltegitratzea.

Creatio

Irizar Taldearen Ikerketa eta Garapen Zentroa, bere xedea izanik ikerketa aplikaturako gaitasunak eta Taldearen garapen teknologikoa bultzatzea, bai bere markako produktuetarako bat karrozeriako osagai nagusietarako.

Ordezkaritza propioak

Irizar Benelux

2018. urtean sortua, autobus eta autokar integralen eta elektrikoaren salmenta eta saldu ondoko zerbitzua egiten du Benelux osoan.

Irizar Asia Pacific

2006az geroztik, Irizar presente dago Ozeanian, egoitza Melbournen izanik, Zeelanda Berriari eta Australiari zerbitzua eskaintzeko.

Datik México

Datitek Mexiko duen ordezkaritzak bertako merkatuaren eskari handiari erantzuten dio, salmenta eta saldu ondoko zerbitzua eskainiz, hurbiletik, eta mexikar bezeroei egokituta.

Jema USA

Hegoitza Kalifornian duela, zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen ditu sektore fotovoltaikoan, biltegitratze sistemetan eta sistema aurreratuetan. Gainera, sektore bakoitzeko erreferentziak dauzka USAn banatuta.

Hispacold Mexico

2002an sortua, autobus eta autokarretarako klimatizazio sistemak fabrikatzen eta hornitzen ditu.

Irizar UK

2011n sortu zen, eta ibilgailu integralen gama osoa banatzen du UK-ko merkatuan.

Irizar Autocars

2011. urtean sortua, Irizar Autocarsek salmenta eta saldu ondoko zerbitzuak eskaintzen ditu Frantziako merkatuan, Irizar ibilgailu integral, elektriko eta hibridoaren gama osoarekin.

Irizar USA

2016an sortua, Las Vegasen du egoitza, eta AEBko merkatua asetzen du Irizar i6 modeloarekin.

Irizar Italia

1993an sortua, egoitza Riminin duela, saldu ondoko zerbitzua eta sare osatua eskaintzen du Italia osoan.

Marka, teknologia eta iraunkortasuna

Marka, teknologia eta iraunkortasuna dira Irizar Taldearen etorkizuneko estrategiaren hiru zutabe nagusiak. Inspirazio marko bat, etorkizuneko bidea erakusten diguna, eta gure konpromisoa definitzen duena gure sektoreetan munduko liderretako bat izateko.

Oinarrian daude Pentsamendu Estrategikoak, horiek direlako Taldearen erabaki estrategikoak zein antolamendu kultura gidatzen duten funtsezko printzipioak. Pentsamendu Estrategikoak aldizka berrikusten dira (kontuan hartuta alderdi ekonomikoak eta sozialak, merkatuarenak eta lehiakideenak, eta gainerako barne zein kanpo interes taldeenak), eta erakundeko kide guztiek definitzen eta partekatzen dituzte. Urtero, bilera berezi bat egiten da horretarako, eta egun oso bat ematen da Irizarreko kide guztiek Pentsamendu Estrategiko horien gainean duten ezagutza indartzeko.

Halaber, Irizar Taldeko enpresa guztietan urteko Batzarrak egiten dira, estrategia izanik gai nagusia.

Pentsamendu Estrategikoak hiru-lau urtean behin berrikusten dira sakon (azken aldiz 2016an egin genuen), eta, orduan, AMIA analisiak egiten dira, hobetzeko arloak zehazteko, maila guztietako lantalde guztiak ordezkatzten dituzten pertsonen parte hartzearen bidez (zuzendaritza taldea, kontseilukideak, zuzeneko eta zeharkako langileak); ondorioz, erakunde bakoitzean ezarri beharreko ekintza planak zehazten dira.

Gainera, urtero, erakundearen arlo guztietan Ideia eta Helburuen Plan bat zehazten da (IHP), korporazio osoaren mailan hedatzeko; horiek dira ekintzen lerro nagusia eta kudeaketaren jarraipenerako ildoak.



Pentsamendu estrategikoak

Gure **Pentsamendu Estrategikoak** luzeak dira; horregatik, hemen, garrantzitsuenak aurkezten ditugu, besteen abiapuntua direlako.

Misioa

Gure enpresa proiektua eta marka etengabe indartzea, hazteko eta gure inguruetan aberastasuna eta lana sortzeko.

Giltzarria da gure bezeroek gogobetetze maila altua lortzea, haiekin oso gertuko harremana sortuz eta proiektu sendo baten bermea eskainiz, hartan konfiantza izateko.

Faktore estrategikoa da gure bezeroek behar dituzten produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko orduan haien beharretara egokitzeko malgutasuna edukitzea; horrek bereizten gaitu lehiakideengandik eta horrela lortzen dugu bezeroen leialtasuna.

Horrez gain, Irizar Taldearen parte garenok, gure kanpoko laguntzaileak eta gizartea ahalik eta gusturen egoteko lan egiten dugu.

Irizar S. Coop.eko esparru kooperatiboan lan egiten dugu eta lan egingo dugu, Taldeko beste enprekin komunikazioan eta haien kudeaketan eta emaitzetan parte hartuz.

Bisioa

Segurtasun, fidagarritasun, erosotasun eta errentagarritasun bereizgarri bat duten autokarrak eta autobusak eskaintzea gure bezeroei, bidaiariei eta gizarteari, eta erreferenteak izatea zerbitzuan, kalitatean, diseinuan, berrikuntzan, teknologian eta iraunkortasunean.

Taldearen gainerako jardueretan ere erreferente izatea bezeroei ematen zaien balioan.

Konpromisoak

Egunero saiatzen gara liderrak izaten eta lidergo hori gure bezeroentzat onura bihurtzen. Taldean lan egiten dugu eta bezeroarekin eta Taldearen estrategia-rekin konprometitutako pertsonak gara. Eraginkortasuna, komunikazioa, parte hartzea, autokudeaketa eta kudeaketaren bikaintasuna sustatzen ditugu.

Ingurune egokiak sortzen ditugu gure proiektuetan dabilzan pertsona guztiek beren talentu, gaitasun eta ilusioen arabera ahalik eta gehien eman dezaten. Giltzarria da etorkizunean arrakasta izan dezagun.

Sendotasuna eta hazkundea

Bezeroen berrikuntzaren eta teknologiaren aldeko gure apustuak dagoeneko 130 urte baino gehiagoko historia du, eta hazi egin gara urte horietan guztietan, bai dimentsioan bai gaitasunean. Konfiantza sortzen duen Talde sendoa bihurtu gara. Gure etorkizuneko estrategia dagoeneko bagauden arloetan modu iraunkorrean haztean oinarritzen da, eta merkatu berrietara irekitzean ere bai, betiere produktuak eta zerbitzuak errentagarriak badira, eta gure marka sendotzen laguntzen badigute.

Industria dibertsifikazioko estrategia

2009an hasi zen, eta xedea da Taldea eta bere marka guztiak sendotzea, lehentasuntzat hartuz garatzeko ahalmen handia duten beste sektore batzuetan sartzea. Horrenbestez, gaitasun berriak garatzen ditugu, produktu eta zerbitzuen gama berri eta zabaltzeko, eta efi-
zeintzia eta lehiakortasuna handitzeko neurriak hartzeko gure negozio guztietan, Taldearen barruan sinergiak bultzatuz, aberastasuna eta enplegua sortzeko xedearekin.

Gainera, liderrak izan nahi dugu kontzeptu eta zerbitzu berriei lotutako teknologia berrien abangoardiako kokapenean, horien artean egonik elektromugikortasuna, hiri inuguruneak eta horietan bizi diren pertsonen osasuna eta bizi kalitatea hobetzeko lan eginez.

Berrikuntza, nortasun ikur gisa

Berrikuntza da gure nortasun korporatiboaren ikurretako bat, gure kulturaren parte da, eta kudeaketara, produktura eta zerbitzura hedatzen da, baita iraunkortasunera, teknologiarantz eta irudira.

Berrikuntza eta sormena sutatzen ditugu, egin dugun zera horretan, baina baita egiteko moduan ere. Horrenbestez, etengabe egiten dugu aurrera, Talde mailan eta Taldeko erakundeetako bakoitzaren mailan, gero eta arinagoak, malguagoak eta moldagarriak izateaz gain, etorkizuneko erronkei aurre egiteko prestatuago ere egoteko, gure markari eta gure interes taldeei balioa eransteko.

Bezeroa, estrategiaren bihotzean

Irizar Taldearen estrategia nagusia bezeroak gogobetetzea eta fidelizatzea da. Haien beharretara egokituz egiten dugu, konfiantza ematen duen proiektu sendo baten garrantia eskainiz. Hori guztia, bezeroari begirako antolamendu baten bidez, hurbiltasunean eta zuzeneko harremanetan oinarrituta, haren leialtasuna eta konfiantza lortzeko. Pertsonalizazioa da Irizar Taldearen indarguneetako bat. Bezeroei mugarik gabeko pertsonalizazioa eskaintzen diegu, eta hori, zalantzarik gabe, alderdi bereizgarria da.

Gure negozio guztietan lidergo posizioa izatearen alde egiten dugu, gure bezeroen mesedetan. Pertsonen konpromisotik abiatuta, bezeroak gogobetetzera jotzen dugu, eraginkortasunaren, kudeaketaren bikaintasunaren eta komunikazioaren bitartez. Denok ekarpenak egiteko inguruneak sortzen ditugu, bakoitzaren talentuaren, gaitasunen eta ilusioen arabera. Horiek dira gure etorkizuneko arrakastaren giltzak.

Balio erantsirik onena eskaintzen dugu, beraien esku jarritz abangoardiako produktuak eta zerbitzuak, Irizar teknologia eta markakoak, Talde osoaren jakintzari esker sortu eta garatuak, eta Premium segmentura bideratuta, segurtasun, fidagarritasun, iraunkortasun, teknologia eta errentagarritasun bereizgarriak eskainiz. Diseinua eta berrikuntza Irizar Taldearen ADNaren zati dira.

“Haien beharretara egokitzen gara, konfiantza ematen duen proiektu sendo baten garrantia eskainiz.

Hori guztia, bezerora bideratutako antolamendu baten bidez, hurbiltasunean eta zuzeneko harremanetan oinarrituta, beraien leialtasuna eta konfiantza lortzeko”.



Mugikortasun iraunkorraren alde

Teknologia propioarekin

Iraunkortasunarekin dugun konpromisoaren ondorioz, elektromugikortasunaren arloa sortu dugu, giltza eskura erako soluzioak eskaintzeko, Irizar Taldea osatzen duten enpresek garatutako teknologia propioarekin. Proiektuen artean daude zero igorpeneko ibilgailu elektrikoak eta horien sistema eta osagai nagusiak (bateria eta powertrain moduluak), baita horien beharretara egokitutako karga adimentsuko soluzioak ere, konektibitatea, eta konpontzeko eta mantentzeko zeribtzuak.

Zero igorpeneko autobus eta industri ibilgailuez gain, produktu eta soluzio teknologikoen gama oso zabala daukagu, autokar hibridoak barne, zeinak halaber teknologia propioarekin garatzen baitira. Eta, gaur egun, Europako hainbat proiektu handitan murgilduta gaude, errekuntza motorren igorpenak murrizteko eta mugikortasun iraunkorraren etorkizuna marrazteko.

Mugikortasun iraunkorrean eskaintzen ditugun soluzioak dagoeneko ari dira eraldatzen gure hiriak eta gure planeta. Irizarren erabakita dugu garraio garbi eta irisgarrien erabilera bultzatzea, ingurumenaren eta pertsonen ongizate eta osasunaren alde egiteko, eta hiri ingurune hobeak sortu ahal izateko.



Teknologia bideoa



Abangoardiako **teknologia** aitzindaria

Etorkizuna da Irizar Taldearen ibilbidearen ildoak, teknologia propioaren alde eginez, azken xehetasuneraino uztartua, berezia eta bereizgarria.

Taldearen gaitasun teknologiko handiak Creation du ernamuina, bere lkerketa eta Garapen Zentroan, izan ere, Irizar Taldea osatzen duten enpresetako bakoitzaren garapenez gain, erantzun egiten die produktu eta sistemen sorreran eta inplemnetazioan esku hartzen duten alderdi guztiei, bezeroen eta iraunkortasunaren erronka eta eskakizunik berezienei erantzunez, gero eta zorrotzagoak baitira. Gaitasun teknologikoari esker, Irizar Taldeak lidergo kokapena dauka, eta Europako proiektu garrantzitsuak eta anbiziotsuetan parte hartu dezake, mugikortasunaren eta gainerako negozio arloen etorkizunaren ildoak marrazteko.

Berrikuntza teknologikoa bultzatzen duen **antolamendu kultura**

Markari eskainitako atalean ikusi dugunez, berrikuntza gure kulturaren korporatiboan integratuta bultzatzeari esker, eta maila guztietara hedatzeari esker, Taldean erakunde arinak, malguak eta moldagarriak izan ditzakegu. Horrek berrikuntza teknologikoaren etengabeko aurrerabidea sustatzen eta errazten digu, eta etorkizuneko erronka teknologikoen aurretik joatea ahalbidetzen digu.



Iraunkortasuna

Iraunkortasunak, gure etorkizuneko estrategiaren zutabe nagusi moduan, Talde osoa bultzatu eta konprometitzen du, mundu hobe eta iraunkorrago bat eraikitzen laguntzeko.

Konbentziturik gaude, enpresaren arrakasta epe luzera mantenduko bada, ezinbestekoa dela gure enpresaren kultura eta jarduera hauen bitartez arautzea:

- Integritate korporatiboa
- Printzipio Etiko konpartituak, gazak egiteko eta elkarren eta interes taldeen arteko harremanak (bezeroak, kanpo kolaboratzaileak eta gizartea oro har) lantzeko dugun moduaren gidalerroak.
- Iraunkortasuna (ekonomikoa, soziala eta ingurumeneko) gure negozio estrategia globalean integratua.


Horregatik, gure nahia da iraunkortasunaren gaineko egiazko kultura batean aurrera egitea, Irizar Talde osoaren eguneroko kudeaketan uztartuta.

Printzipio etiko horiek presente daude erabakiak hartzeko garaian, eta bizkarrezurra dira gure lehiakortasuna iraunkorra izan dadin.


“Iraunkortasunak, gure etorkizuneko estrategiaren zutabe nagusi moduan, Talde osoa bultzatu eta konprometitzen du, mundu hobe eta iraunkorrago bat eraikitzen laguntzeko”.



Fakturazio agregatuaren bilakaera (milioi eurotan)



Enplegua sortzea



Grafiko hau da gure Lehiakortasun Iraunkorraren (ekonomikoa, soziala eta ingurumene-koa) ebidentzia eta adierazlerik onena, gure Misiorekiko dugun koherentziaren isla. Na-hiz eta krisialdia izan eta salmentek behera egin, Irizarrek enpleguari eutsi zion 2009an.




Irizar S.Coop. 2013an atxiki zitzaion Nazio Batuen Mundu Itunari, eta urtero berritzen dugu Mundu Itunak aldarrikatutako 10 printzipioekin dugun konpromiso irmoa (Giza Eskubideak, Lan Eskubideak, Ingurumena eta Ustelkeriaren aurkako Borroka lantzen dituzte).

2018an Nazio Batuen Agenda 2030era hurbiltzen hasi ginen, eta Garapen Iraunkorre-rako 17 Helburuek (GIH) zein sektore pribatuaren inplikazioak dakarten aukera aitortzen dugu, mundu osoan gizarteak aurre egin beharreko erronka nagusien aurrean, klima al-daketatik hasi eta pobrezia desagerrarazi eta aurrerabide ekonomiko eta soziala lortze-raino.

Irizar Taldearen iraunkortasun estrategia zehatz-mehatz landuko dugu 4. atalean, "Le-hiakortasun iraunkorra: Lehenetsun eta konpromiso estrategikoa".

130 urte

Bikaintasun eta
iraunkortasuneko
etorkizuna
bistaratzen





130 urte bikaintasun eta iraunkortasuneko etorkizuna bistaratzen


1889az gero, bilakaera esponentziala izan du Irizarrek

1889

Irizar 1889an sortu zen, eta fundatzaileak, alegia, Jose Antonio Irizar gipuzkoar ekintzaileak, erabaki zuen gurdietarako burdineria fabrikatetik bidaiariak garraiatzeko ibilgailuen fabrikaziora eboluzionatzea. XIX. mendearen bukaeran, familia enpresa hark, bere zigilu perfektionista ezarriz eta tentu handiz, gurdi zein diligentsia dotoreak fabrikatzeko lanari ekin zion, eta ia hiru hamarkadatan jardun zuen lan horretan.

1928

1928an trakzio mekanikoko lehen ibilgailua fabrikatu zuten: Julian Apaolaza bezeroak Frantzian erositako txasisarekin egindako 22 tokiko ibilgailua.



1963

Irizar kooperatiba bihurtu zen

Kooperatiba bihurtzearena pertsonak enpresaren etorkizunean txertatzeko hartutako erabakia izan zen, bazkideari kudeaketan parte hartzeko aukera emanez. Kooperatibismoak lau balio garrantzitsu ditu oinarrian: lankidetzak, kooperatibako kideek jabe eta protagonista gisa jarduten dute; partaidetza, kudeaketarekiko konpromisoan oinarrituta; erantzukizun soziala, aberastasuna elkartasunez banatuta; eta berrikuntza, arlo guztietako etengabeko berrikuntza lortze aldera. Balio horiek dira Irizar Taldearen eguneroko kulturaren bizirik daudenak.

1970-1980

70eko eta 80ko hamarkadak

Irizarrek etengabeko berrikuntzan jarraitu zuen buru-belarri, eta karrozeriagintzaren sektoreko estatuko konpainia onenetakoa bihurtu zen.

90eko hamarkada

90eko hamarkadan, Irizarrek hazkunde handia izan zuen, eta orduantxe hasi zen bere nazioartekotze prozesua.

Hala, Irizar Mexiko, Irizar Brasil, Irizar Maroko, Irizar Asia Pacific eta Irizar Southern Africa sortu ziren.



1994

1994an, **ISO9001** nazioarteko arauaren arabera Enpresa Kalitateko Ziurtagiria lortzen duen Europako lehenengo autokar fabrikatzailea zen.

1997

1997tik aurrera, hornitzaileekin **aliantza estrategikoak** bultzatu ditu Irizarrek, gure autokar jardueraren egonkortzeko. Hispacold enpresaren akzioetan parte hartuz hasi zen, eta horixe izan zen oraingo Talde dibertsifikatuaren oinarria. Gerora, Masats gehitu zen.

1995 eta 1996

1995 eta 1996. urteetan, **Felipe Printzearen bi sari** irabazi zituen Irizarrek, erabateko kalitateko diseinu eta kudeaketako enpresa bikaintasunagatik. Espainiako Industria eta Merkataritza Ministerioak emandako sariak ziren.

1998

1998az geroztik gaude ingurumenarekin konprometituta; izan ere, urte hartan Irizar izan zen **ISO14001** ziurtagiria lortu zuen lehen autokar fabrikatzailea.

1996

Produktua berritzeko asmoz errendimendu handiko funtzio anitzeko lantaldeetan egindako lanerako hornitzaile gakoekin osatutako aliantza dinamikari esker, adibide gisa aipa dezakegu, **autokarren lehenengo klimatizagailuak** merkaturatu genituela 1996an, eta aitzindariak izan ginela munduan.

Hain zuzen, Irizarren eta aire girotu eta berogailuen munduko fabrikatzaile onenen arteko garapenari esker

1999

1999an, Eusko Jaurlaritzak emandako **Urrezko Q** jaso zuen Irizarrek, kudeaketan zuen bikaintasunagatik.

2000

2000. urtean, EFQM (the European Foundation for Quality Management) **Enpresa Bikaintasunari emandako Europako Sari ospetsua** jaso zuen Irizarrek (European Quality Prize), eta bera izan zen hori lortu zuen atzerriko talde multinazional bateko kidea ez zen Espainiako enpresa handietan lehena. Enpresak 1994n hasitako antolamendu estrategiko sakonaren ondorioz gertatu zen hori, zeinaren bidez misio bat ezarri zuen: aberastasuna eta enplegua sortzea, gure interes talde guztien gogobetetzearen bidez (bezeroak, pertsonak, elkarteak, oro har...).

2002

2002an, Irizar goraipatu egin zuten The Harvard Business School's Institututen (Irizar kasua aztertu zuten). bere erabaki estra teko.

2004

2004an, Conetica Saria jaso zuen, Erantzukizun Sozial Korporatiboa dela eta.

2009

2009an, krisia bete-betean zela, iraultza estrategikoa egin zen Irizarren, eta autokar integralak ekoizteari ekin zion, ikuspegi iraunkorretik.

2009 y 2013

Paraleloki, **industria dibertsifikatzeko eta teknologiaren** aldeko apustu irmoa egin zen, estrategia gauzatzeko ezinbesteko ezaugarriak baitziren. Politika horren ondorioz, 2009 eta 2013 bitartean, hiru enpresa hauek batu ziren Taldera: Jema Energy, Datik eta Alconza, zeinak potentzia elektronikan, garraioa kudeatzeko ITS soluzioetan eta makineria elektriko birakarian ziharduten, hurrenez hurren. Enpresa horiek Taldean sartzean, hobetu egin zen bere posizionamendu teknologikoa, eta, beraz, pauso irmoz egin ahal izan zuen aurrera bere produktuen garapenean: marka propioko autokar konbentzionalak eta autobus elektrikoa.



2011

2011n, Irizar markako autokar integralen gama osoa atera zen merkatura, eta aldi berean, hirietarako mugikortasun iraunkorrerako proiektua hasia erabaki zen.

2012

2012. urtean Creatio sortu zen, alegia, Irizar Taldearen Ikerketa eta Garapen Zentroa. Helburua hau da: Irizar Taldearen ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko gaitasunak indartzea, bai enpresaren produktu osoetarako bai karrozerien osagai nagusietarako. Aldi berean, Trainee Program bat jarri zen martxan, talentua erakarri eta txertatzen joateko, Taldearen etorkizuneko ezagutzaren oinarriak ezartzeko asmoz.



creatio
Irizar Innovation Center

2013

Nazio Batuen Mundu Itunera atxiki zen (giza eskubideak, lan eskubideak, ingurumena eta ustelkeriaren aurkako borroka).

2014 y 2015

2014an eta 2015ean, marka honen eraikuntzarekin lerrokatuta dauden bi elementu giltzarri landu ziren. 2014an, Ormaiztegi (Espainia) egoitza nagusiko instalazio berri eta modernoak inauguratu ziren, guztiak ere bezeroarengan pentsatuz sortuak. Hala, instalazioen irudia indartu egin zen, Irizar markak merkatuari transmititu nahi zion agintzarekin modu koherentean.

2014an, Irizar Taldearen lehen autobus %100 elektrikoa eta zero igorpenekoa kaleratu zen. 2015ean, Irizarrek Irizar i8-a aurkeztu zuen. Gama altuko autokar berri hori, Talde barnean landutako soluzio teknologiko ugariren emaitza izateaz gainera, markaren esperientzia eta berritzeko grina oinarritutako estetika zainduaren emaitza ere bazen.

Gainera, lehenengo aldiz, segurtasunari, eraginkortasunari, energiaren biltegitratzeari, kargari, floten kudeaketari eta entretenimenduari dagokienez Taldearen aurrerapen teknologiko guztiak dituzten autokar eta autobus integralen gama osoarekin agertu zen Busworld nazioarteko azokara.



2016

2016an, teknologia hibridoko lehenengo autokarrak merkaturatu ziren.

Ingurumen Sari Nazionala jaso zuen Irizarrek, Espainiako produktu-zerbitzu kategorian, eta European finalista izan zen, Espainia ordezkatzuz. Era berean, aitortpena jaso zuen, Euskadiko klima aldaketari begirako praktika onengatik.

2018

Irizar e-mobility fabrika inauguratu zen; hots, elektromugikortasunerako soluzioetara eta soilik horretara bideratutako Europako lehenengo fabrika.

2017

2017an, 18 metroko ibilgailu artikulatua aurkeztu zuen, %100 elektrikoa, zero igorpenekoa eta pantografo bidezko karga azkarrekia. Hala, urteko autokarrik onenaren nazioarteko saria jaso zuen Irizarrek, eta urteko autokar fabrikatzaile onenerako izendapena ere bai, European. Ondoren, urteko autobusari eta urteko ibilgailu industrial ekologikoari emandako sariak jaso zituen.



2019

2019an, **'Klima 2050: Europar Batasunak Hartutako Konpromisoa'** ekimenarekin bat egin du. Euskadiko Klima 2050 Estrategiak helburutzat hartu du 2030erako berotegi efektuko gasen igorpenak 2005ekoak baino %40 gutxiago izatea, eta %80 gutxiago, 2050erako. Era berean, 2050. urte horretan, energia berritzagarriaren kontsumoa guztizko kontsumoaren %40 izatea jarri da helburutzat.

Urte honetan, Produktuaren Ingurumen Deklarazioa lortu du Irizarrek, eta ziurtagiri hori lortzen duen sektoreko lehenengo enpresa da munduan.

Hala, sendotasunaren eta hazkundearen bideari loturik jarraitzea dugu helburu, markari, teknologiari eta iraunkortasunari dagokienez ahalik eta balio erantsirik handiena eskainiz gure bezero guztiei, eta hemendik bertatik lehiatuz, gure inguruneetan aberastasuna eta enplegua sortzeko.

Lehiakortasun iraunkorra Irizar Taldean

Lehentasun eta konpromiso estrategikoa

- 4.1. Iraunkortasuna, estrategiaren funtsezko oinarri gisa
- 4.2. Etorkizunerako iraunkortasun esparru estrategiko globala
 - 4.2.1. Korporatiboa
 - 4.2.2. Gure bezeroekin, produktuekin eta zerbitzuekin
 - 4.2.3. Gure pertsonekin
 - 4.2.4. Kanpo hornitzaileekin, hornidura katearekin eta aliantzekin
 - 4.2.5. Ingurumenarekin
 - 4.2.6. Gizartearekin, oro har
- 4.3. Guztiok iraunkortasunarekin dugun konpromisoa egituratuz eta erraztuz



Iraunkortasuna, estrategiaren funtsezko oinarri gisa

“2. Irizar Taldea ezagutzen” kapituluan ikusi dugun bezala, iraunkortasunak, gure etorkizuneko estrategiaren zutabe nagusi moduan, Talde osoa bultzatu eta konprometitzen du, mundu hobe eta iraunkorrago bat eraikitzen laguntzeko.

Gure etorkizuneko arrakasta honako honen arabera izango da: Taldea osatzen dugun erakunde guztiok errentagarritasun ekonomikoa bilatzetik, aplikagarria den legedia betetzetik (tokiko legeak, autonomikoak, nazionalak, atzerrikoak eta nazioartekoak) eta barne arauditik haratago joatea.

Enpresaren arrakasta epe luzera mantenduko bada, ezinbestekoa da gure enpresaren kultura eta jardura Printzipio Etikoen bitartez arautzea. Egiazko iraunkortasun kultura eduki nahi dugu (ekonomikoa, soziala eta ingurumenezkoa), Talde osoan txertatua, Taldea osatzen dugun erakunde guztietako eguneroko kudeaketan, eta gure interes taldeekin dauzkagun harremanetan (pertsonak, bezeroak, bidaiariak, herritarrak, kanpo kolaboratzaileak, ingurumena eta gizartea, oro har).

Etorkizunerako iraunkortasun esparru estrategiko globala

Taldeko enpresa bakoitzaren iraunkortasunerako aurrerapen eta ekimen indibidualez gainera, Irizar S.Coop.en ikuspegia eta aurrerapenaren bidean egindako ibilbide luzea (memoria honetan zehaztasun handiagoz landutako gaia) erreferentziak dira, eta etorkizunerako iraunkortasunerako esparru estrategiko baterako oinarriak finkatzen ditu, eta, bide beretik, Taldeko gainerako enpresen kudeaketan eta horien artean ekintza iraunkorrak martxan jartzea bultzatzen du.

Irizar S.Coop. **Nazio Batuen Mundu Itunari** atxikita dago 2013az gero (Enpresaren Erantzukizun Soziale-rako munduko borondatezko ekimenik handiena), eta urtero Iraunkortasun Memoria bat egiten dugu. Memoria horretan, Mundu Itunak aldarrikatutako 10 printzipioekiko konpromiso irmoa dugula adierazten dugu (hauei buruzkoak: Giza Eskubideak, Lan Eskubideak, Ingurumena eta Ustelkeriaren aurkako borroka), eta gure interes taldeekin gauzatzen ari garen ekimen nagusiak jasotzen ditugu (pertsonak, bezeroak, bidaiariak, herritarrak, kanpo kolaboratzaileak, gizartea eta ingurumena).

10 printzipio horiek inspirazio iturri ditugu gure jardun arduratsuan aurrera egiteko, eta arriskuak hobeto kudeatzen laguntzen digute.

<https://www.unglobalcompact.org/what-is-gc/mision/principles>

2018an, Nazio Batuen Agenda 2030era hurbiltzen hasi ginen, eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuek (GIH) zein sektore pribatuaren inplikazioak dakarten aukera aitortzen dugu, mundu osoan gizarteak aurre egin beharreko erronka nagusien aurrean, klima aldaketatik hasi eta pobrezia desagerrarazi eta aurrerabide ekonomiko eta soziala lortzeraino. Horrenbestez, 2019tik aurrera ere gure estrategian eta kudeaketan GIHak lortzeko ekarpena gehitzen hasi gara.

Uste dugu Nazio Batuen Agenda 2030aren aurrerapenean laguntzeak, Lurra eraldatu eta gune iraunkor eta oparoago bihurtzeko gure aletxoak jartzeak emango digun poza ez ezik, GIHetarako ekarpenak negozioaren helburuekin eta gure testuinguruarekin lerrokatu eta horiei lehentasuna emanez gero, negozio aukera garrantzitsuak ere emango dizkigula.

<https://sustainabledevelopment.un.org/sdgs>

Gainera, **Mundu Itunaren Espainiako Sareko kideak** ere bagara; hots, Elkarte multistakeholderra, Nazio Batuen Mundu Itunaren foku puntua Espainian. Hor modu proaktiboan parte hartuz, konpromiso handiagoa dugu iraunkortasunarekin, eta aldaketa eragile nagusiekin elkarreragitan jardun dezakegu (ez soilik Espainian, baizik eta baita nazioartean ere), enpresaren eta ingurunearen artean baliopartekatua sortuz, eta praktika onak ikasi eta partekatzakegu, bai eta interes taldeekiko harremanak indartu ere.

<https://www.pactomundial.org>

Gure urteko Iraunkortasun memoriek, 2013az gero egin-dakoek, gure konpromiso eta aurrerapauso guztiak jasotzen dituzte. Barne bitartekoetan eta mundu osoko kanpo bitartekoetan argitaratzen ditugu, gure web orriaren eta Nazio Batuen web orriaren bitartez, gardentasunaren aldeko apustu argia eginez.

<https://www.unglobalcompact.org/what-is-gc/participants/19510#cop>



"En el nuevo escenario, las empresas son un actor clave para alcanzar los Objetivos de Desarrollo Sostenible"

Antonio Guterres - Secretario General de Naciones Unidas

El 25 de septiembre de 2015 se aprueba por Naciones Unidas la Agenda 2030.

La Agenda 2030 se compone de 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible y 169 metas a cumplir en el año 2030.

Su objetivo es transformar el mundo en un lugar más sostenible y próspero.

Aborda las 3 dimensiones de la sostenibilidad: social, económica y ambiental.

Los Diez Principios del Pacto Mundial son los valores esenciales desde el nacimiento de la iniciativa en el año 2000.

Se fundamentan en diversas declaraciones de Naciones Unidas y gozan de consenso universal.

Las empresas que se unen a la iniciativa aceptan estos Diez Principios comprometiéndose a implementarlos a nivel interno.

LOS DIEZ PRINCIPIOS del Pacto Mundial de Naciones Unidas



1. Apoyar y respetar la protección de los Derechos Humanos.
2. No ser cómplices en la vulneración de los derechos humanos.
3. Apoyar la libertad de afiliación y el reconocimiento efectivo del derecho a la negociación colectiva.
4. Apoyar la eliminación de toda forma de trabajo forzoso o realizado bajo coacción.
5. Apoyar la erradicación del trabajo infantil.
6. Apoyar la abolición de las prácticas de discriminación en el empleo y la ocupación.
7. Mantener un enfoque preventivo que favorezca el medioambiente.
8. Las empresas deben fomentar las iniciativas que promuevan una mayor responsabilidad ambiental.
9. Favorecer el desarrollo y la difusión de las tecnologías respetuosas con el medioambiente.
10. Trabajar contra la corrupción en todas sus formas, incluidas extorsión y soborno.

Iraunkortasuna: Lehentasun eta konpromiso estrategikoa

Hiruzpalau urtean behin egiten diren Pentsamendu Estrategikoen berrikuspen sakonetan, AMIA analisiak egiten dira, hainbat ezaugarriarekin zerikusia duten alderdiak kontuan hartuta: ingurune ekonomiko eta soziala, sektorea, merkatua eta bezeroak, kolaboratzaileak eta lehiakideak eta gainerako interes taldeak. Eta hori guztia, hain justu, lehentasunak ezartzeko eta ekintzak definitzeko, Taldearen estrategia guztion igurikapenekin lerrokatuta egon dadin, eta hartara, Taldearen premiak, negozioaren hazkunde iraunkorra, eta balioa, aberastasuna eta enplegua sortzea bermatzeko, gure misioak ispiatzen duen bezala.

Irizar Taldeak bere dibisioetako ekoizpen eta merkataritza jarduerekin zuzeneko harremana duten arriskuak edo kanpo eraginen ondoriozko arriskuak dauzka. Arrisku horiek direla-eta litekeena da Taldeak edo negozio arloren batek bere helburuak bete ezin izatea. Batzuetan, arriskuak aukera bihurtzen dira, eta ezinbestekoa da horiek identifikatzen eta etekina ateratzen jakitea. Horregatik, Irizar Taldean eta bere negozio arlo guztietan, arriskuen eta aukeren analisia lantalde eta prozesu guztietako kulturaren, estrategien eta kudeaketan dago txertatuta, eta modu automatikoan integratzen da plan estrategikoetan eta erabakiak hartzeko prozesuan, legez kanpoko praktikak edo gure jardun etikoaren esparrutik kanpoko praktikak saihesteko.

Nahiz eta iraunkortasun aurrerapenari begira maila desberdinetan joan, Taldeko enpresa oro ari gara oinarriak ezartzen eta etorkizunerako iraunkortasunerako hurrengo esparru estrategiko globala abian jartzen: jardunak nola maila korporatiboan eta zeharkakoan, hala interes talde bakoitzarekin egindakoak. Zehazten ari garen Talde estrategia honek Iraunkortasunaren bidean egin beharreko aurrerapen irmoan lagundu beharko digu.

Korporatiboa

- Gure ahalegin guztiak epe luzera **Lehiakortasun Iraunkorra bilatzera** bideratzea, nola maila ekonomikoan, hala sozialean zein ingurumenekoan. Modu iraunkorrean jardutea, egunetik egunera lehiakorragoak izateko, epe luzerako aberastasuna eta enplegua sortzeko, eta gure interes talde, pertsona, bezero, kolaboratzaile eta gizartearen premiak asetzeko. Era berean, ingurumena zaintzea eta etorkizuneko belaunaldientzat ingurunea babestea proposatu diogu geure buruari. Izan ere, gaur hartutako erabakiek historiaren zein etorkizunaren bilakaera alda dezakete.

- Taldeko enpresa bakoitzaren eguneroko **kudeaketa eta estrategian Iraunkortasuna txertatzeko** bidean aurrerapausoak ematen jarraitzea, Nazio Batuen Mundu Itunak aldarrikatutako hamar printzipioekin bat etorrita (hauei buruzkoak: Giza Eskubideak, Lan Eskubideak, Ingurumena eta Ustelkeriaren aurkako borroka). 10 printzipio horiek inspirazio iturri ditugu gure jardun arduratsuan aurrerapausoak emateko, eta lagungarriak, Irizar Taldeak dituen arriskuak hobeto kudeatzeko.

- Gure interes talde guztiekin etengabeko elkarriketaren jarraitzeko konpromisoa izatea, Taldeko enpresa guztiei dagokienez. Elkarriketa horri esker, interes taldeen kezkak eta premiak ezagutuko ditugu, eta etorkizuneko joerak identifikatu, konfiantza sortzeko, eta horiekiko dugun harremana eraikitzeko, eta ahal izanez gero, are gehiago egonkortzeko. Era berean, baliabide bikaina da gure

kezkak modu gardenean erakutsi eta trukatzeko, eta gure ekintza eremuak eta hazkunde iraunkorraren kudeaketan aurrean ditugun erronkak zein diren erakusteko.

Eztabaidak hainbat komunikazio kanalen eta aldizkako bileren bidez egiten ditugu, non jardunbide ildoak eta helburuak partekatzen diren, bai eta horiek betetzeko epeak ere.

Hauek dira guretzat garrantzitsuak diren interes taldeak:

- Bezeroak
- Hornitzaileak
- Irizar Taldea osatzen dugun pertsonak
- Gurekin lanean aritu diren erretirodunak
- Salmenta banatzaileak eta ordezkariak
- Salmenta osteko Zerbitzurako kolaboratzaileak: Teknikariak eta tailerrak
- Kolaboratzaileak (I+G Zentroak, bankuak, sektoreko elkarteak...)
- Erakundeak, tokiko gobernuak eta gobernu nazionalak
- Nazioarteko erakundeak
- Tokiko elkarteak eta elkarte nazionalak
- Komunikabideak (prentsa, etab.)
- Gizarteko eragileak (eskolak eta unibertsitateak, kultura, kirola, elkarteak, GKEak)



- Dagoeneko bagauden arloetan modu iraunkorrean haztea, bai eta merkatu berrietara irekitzean ere, betiere produktuak errentagarriak badira, eta gure marka sendotzen laguntzen badigute.
- Goi zuzendaritzatik bultzatzea eta zaintzea (enpresa bakoitzeko gobernu korporatiboko gainerako organoen lankidetzaz, lan eta babesarekin) konpromiso eta jardun iraunkor hori, Taldeko enpresa bakoitzean diharduten pertsonen haratago, bezeroei, hornitzaileei, bestelako kanpo kolaboratzaileei eta gainerako interes taldeei ere hel dakien. Izan ere, arriskua murriztea funtsezkoa da gure ospe ona eta gure estrategia korporatiboak epe luzera arrakasta izatea bermatzeko.
- Aurrerapausoak ematea gardentasunean, gobernu onean eta integritatean. Horretarako, gure kultura irekian oinarritu beharko dugu, eta ziur egon beharko dugu soil-soilik etika eta iraunkortasun korporatiboa errespetatzen duten enpresa jarduerak direla enpresa arrakasta iraunkorraren oinarri bakarra, aplikagarriak diren barne araudi eta legeak (tokikoak, autonomikoak, nazionalak, atzerrikoak zein nazioartekoak) betetzetik haratago.
- Irizar S.Coop.en Kode Etikoaren Portaerarako Jarraibide Etiko eta Printzipioak hedatzeko prozesuan aurrera egitea, Irizar Taldea osatzen dugun pertsonen dagokigunez, eta horiek guztiak gainerako interes taldeen artean zabaltzea, maila nazional zein nazioartekoan, gure konpromisoa hobeto ezagut dezaten, eta aldi berean, euren jardun etikoa eta erantzukizunekoak sustatu dezaten.
- Nazio Batuen Agenda 2030era hurbiltzeko prozesuan aurrera egitea, eta Garapen Iraunkorrerako Helburuei (GIH) estrategikoki laguntzea. Guztion onurarako ekarpenak egiteaz gainera, ziur gaude GIHei egiten diegun ekarpena gure testuinguruarekin eta negozioko helburu propioekin uztartu eta lehenesten badugu, negozio aukera garrantzitsuak izango ditugula.
- GIHak Taldeko gainerako erakundeetako pertsonetara zabaltzea, eta horietako bakoitzean helburuekiko konpromiso maila handitzea.

Horrek berarekin dakar gure barne harreman guztietan zein gure interes taldeekin ditugun harremanetan, hauek egin beharra:

- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean aitortutako Giza Eskubideak errespetatzea eta horiek betetzea bultzatzea.
- Lanaren Nazioarteko Erakundearen Aldarrikapenean xedatutako laneko oinarriko eskubide eta printzipioen arabera jardutea.
- Ingurumenari buruzko Rioko Aldarrikapenean jasotako ingurumena babesteko eta errespetatzeko espiritua sustatzea.
- Ustelkeria modu guztiei aurre egitea, Ustelkeriaren Aurkako Nazio Batuen Hitzarmenarekin bat etorruta.

Gure **bezeroekin, produktuekin eta zerbitzuekin**

- Egunero lana egitea gure bezeroak, bidaiariak eta herritarrak asetzeko eta fidelizatzeko, beti beraien alboan egonda eta produkturik zein zerbitzurik onenak eskainita, iraunkortasun ezaugarriak gure estrategiako parte gisa kontuan hartuta.
 - Abangoardiako produktuak eta zerbitzuak sortzea eta garatzea, Talde osoaren ezagutzari esker, zeintzuek bereizgarritasunak emango dizkiguten iraunkortasunari, fidagarritasunari, iraunkortasunari, teknologiari eta errentagarritasunari dagokienez.
- o Irizar Taldearen elektromugikortasuna mundu iraunkor baterako ditugun helburuen adibide ezin hobea da. Garapen industrialak eta garraio publikoak planetan eta pertsonengan ingurumen kalteak eragin dituela jakitun, Irizar Taldeak aldaketarako trantsizioari ekin dio, eta mugikortasun iraunkorreko soluzio integral aitzindariak garatu ditu: kutsatzailerik gabeak (zero igorpen), zaratarik gabeak, eraginkorrak, fidagarriak, irisgarriak eta erabat seguruak. Gure bateriak berriz diseinatzeko prozesuan aurrerapenak ematen ari gara, iraunkorragoak izatea baitugu helburu.
- Gure bezeroek eta gure produktu zein zerbitzuen hornidura katean parte hartzen duten kanpo kolaboratzaileek (salmentan, banaketan eta salmenta ostean) modu iraunkor eta etikoan joka dezaten bultzatzea.ea.

Gure **pertsonekin**

- Irizar Taldea eta enpresa oro osatzen dugun pertsonetikiko konpromisoa hartzea: lan baldintza duin eta erakargarriak eskaintzea, euren etengabeko prestakuntza bultzatzea, bizitza profesionala garatzea, bizitza pertsonalarekin ahalik eta hobekien bateratuz, konfiantza eta komunikazioa sustatuz, bai eta taldeko lana, berdintasuna, askotarikotasuna eta enpresaren kudeaketa zein emaitzetako parte hartzea sustatuz ere.
- Lehentasuna ematen jarraitzea baliabide guztiak eskaintzeari gure eguneroko jardueraren eguneroko kudeaketan txertatutako lan arriskuen prebentzioari, segurtasuna eta lan osasuna jarritz beste arlo batzuen gainetik.
- Modu aktiboan laguntzea ingurumenaren oreka lortzen, gure jardueretatik eratorritako zeinahi inpaktu minimizatzeko eta ingurune naturala zaintzeko lanean ari-tuz.

Kanpo **hornitzaileekin, hornidura katearekin eta aliantzekin**

- Lehentasuntzat daukagu gure marka eta lehiakortasun iraunkorra hobetzen lagunduko diguten produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko gai diren kanpo kolaboratzaileekin harreman egonkorrak ezartzea. Harreman horiek beti oinarritu beharko ditugu printzipio etikoetan eta erabateko profesionaltasunezkoetan.
- Irizar Taldean txertatutako iraunkortasun estrategia bat lortu nahi dugu, hornidura kate osoan zehar epe luzeko helburuak ezarriz.
- Gure produktu eta zerbitzuen hornidura katearen esparrutik haratago, gure kanpoko interes taldeekin epe luzerako harreman eta aliantza estrategikoak ezartzea bultzatzen dugu (bidaiariak, herritarrak, bestelako kanpo kolaboratzaile batzuk, ingurumena, gobernu erakundeak, GKEak eta gizartea, oro har).



Ikerketa eta garapena



Hornidura katea



Ekoizpena



Logistika eta garraioa



Salmentak eta erabilera



Kudeaketa eta birziklapena



Ingurumenarekin

- Ingurumena hobetzearekin lotutako alderdi guztietan modu nabarmenean aurrera egiten jarraitzea, nola hondakinen tratamenduari dagokionez, hala horiek edo igorpenak murrizteari dagokionez.
- Guztion eskura jartzea ingurumen teknologia eta produktu eraginkor eta abangoardiazkoak, produktuen bizi ziklo osora aplikaturik.
- Gizartearekin, ingurunearekin eta erakundeekin lankidetzan aritzea, garapen positibo, sozial eta ingurumenezko iraunkor bat diseinatzeko. Gure konpromiso aktiboa aplikatu beharko dugu horren zaintzan eta babesean.
- Pertsona guztiok modu egoki eta ekonomikoan erabili behar ditugu baliabide naturalak, gure jarduerak ahalik eta eraginik txikiena izan dezaten ingurumenean.

Gizartearekin, oro har

- Gure misioarekin bat eginez, iraunkortasunarekin dugun konpromisoaren ispilurik onena da hazkundearekin eta aberastasuna zein enplegua sortzeko dugun konpromisoa, kalitatezko enpleguak sortuz presente gauden ingurune eta herrialdeetako pertsonentzat.
- Eta hori guztia lizar osatzen dugun pertsonen ahalegin ekonomikoa nahiz dedikazioa ahaztu gabe, inguruko egoera sozioekonomikoa eta bizi garen gizartea hobetzen laguntzeko. Gizartearekin dugun harremana errespetuzkoa da, irekia eta parte hartzailea, eta gure inguru hurbileko kultura, kirola eta heziketa bultzatzen ditugu, baita ekintza solidarioak ere.

Ingurumen produktu eta teknologia eraginkorrak eta abangoardiakoak, produktuen bizi ziklo osora aplikaturik



Guztiok iraunkortasunarekin dugun konpromisoa

egituratuz eta erraztuz

Iraunkortasuna guztion konpromisoa da; horregatik, urteak dira Irizar Taldea berori osatzen dugun pertsonen kulturaren oinarrian dagoela.

Irizar Taldearen iraunkortasunarekin lotutako erantzukizun gorena Taldeko Zuzendari Nagusiari dagokio. Zuzendaritza Talde osoarekin, Administrazio Kontseiluen bitartez, estrategia zehaztu, eta Taldeko enpresa guztietan ezarriko dela ziurtatzen du. Talde horiek dira lege guztiak eta barne araudiak betetzen direla eta arriskuen kudeaketa eta kontrola behar bezalakoa dela bermatzearen arduradunak.

Gaur egun, iraunkortasunak tokia dauka talde horiek lantzen eta hartzen dituzten proiektu eta erabaki guztietan.

Gure politika ezartzeko konpromisoa daukagu, eta gure ekoizpen lantegi guztietan eta Taldeak nazioartean dituen enpresa guztietan gure barne arauak betearazteko konpromisoa ere bai.

Irizarren bilera dinamika indartsu bat daukagu, eta bilerak foro egokiak dira helburuak azaltzeko eta horiei jarraipena egiteko, urtero onartutako ekintza planekin bat etorrira.

Gainera, autoebaluaziorako sistemak ere badaude, barne eta kanpo auditorien babesarekin, zeintzuek konpromisoak betetzea, eragikera jarduna eta helburuen lorpena monitorizatzeko aukera ematen duten.

Zuzendaritza Taldeak iraunkortasunaren arloko aurrerapeak berrikusten ditu.

Irizar Taldearen iraunkortasunarekin lotutako erantzukizun gorena Taldeko Zuzendari Nagusiari dagokio. Zuzendaritza Talde osoarekin, Administrazio Kontseiluen bitartez, estrategia zehaztu, eta ezarriko dela ziurtatzen du



Iraunkortasun estrategia eta jarduna, Irizarren

- 5.1. Korporatiboa
- 5.2. Gure bezeroekin, bidaiariekin eta herritarrekin
- 5.3. Gure pertsoekin
- 5.4. Kanpo hornitzaileekin, hornidura katearekin eta aliantzekin
- 5.5. Ingurumenarekin
- 5.6. Gizartearekin, oro har






Korporatiboa

A background image showing a person's silhouette on a beach at sunset. The person is standing on the right side, looking out over the ocean. The sky is a mix of orange and blue, and the water reflects the light. The beach is visible in the foreground.

- 5.1.1. Kode Etikoa
- 5.1.2. Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak
- 5.1.3. Aliantzak eta kolaborazioak foroetan, iraunkortasuna susta
- 5.1.4. Lehiakortasun iraunkorra sustatzea Irizar Taldean



Kode Etikoa

Gure lehendabiziko kode etikoa egin dugu, eta hori aberasten jarraitzen dugu.

Honako honetan oinarritzen da:

- Mundu hobe eta iraunkorrago bat eraikitzen laguntzeko konpromisoa daukagu. Oso argi daukagu enpresaren epe luzeko arrakasta posible dela soil-soilik markan, teknologian eta iraunkortasunean oinarritutako gure Estrategia Globala aplikatzen badugu, eta badakigu gure jardunek kontuan hartu behar dituztela Printzipio Etikoak.
- Jakin badakigu ez dela nahikoa gure negozioetan zer egiten dugun kontuan hartzearekin, baizik eta baita nola egiten dugun.
- Printzipio etikoak, beraz, gauzak egiteko eta elkarren eta interes taldeen arteko harremanak (bezeroak, kanpo kolaboratzaileak eta gizartea oro har) lantzeko dugun moduaren gidalerroak dira. Irizarreko pertsonen erabakietan presente daude, eta epe luzera gure Lehiakortasun Iraunkorra posible egingo duen bizkarrezurra dira.
- Irizarren kultura ireki eta gardena defendatzen dugu, ziur baikaude gehieneko zintzotasuna errespetatzen duten enpresa jarduerak direla arrakasta ekonomiko iraunkorra lortzeko oinarri posible bakarra.
- Ziur gaude integritatea indartzeko tresna nagusia antolamendu kultura dela, Irizar osatzen dugun pertsona guztiok partekatu eta onartutako printzipioetan oinarrituta; izan ere, erakundeetako praktika txarren, legez kontrako jarreraren bai eta delituzkoen presentziozko elementu onena da.
- Kode etikoaren helburua da Kultura Irekia, Gardentasuna, Gobernu Ona eta Enpresa integritatea indartzen lagunduko duen tresna bat izatea, konpromiso korporatiboetan, printzipioetan eta portaerazko jarraibide etikoetan oinarrituta.
- Legedia betetzetik haratago, nazioarteko hitzarmenekin ere badugu konpromisoa; esaterako, Nazio Batuen Mundu Itunarekin eta honako hauekin zerikusia duten bere printzipioekin: Giza Eskubideak, Lan Harremanak, Ingurumena eta Ustelkeriaren aurkako borroka.

Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak

2018an, Nazio Batuen Agenda 2030erantz hurbiltzen hasi ginen eta, gure estrategian onartu dugu Garapen Iraunkorrerako Helburuei (GIH) egingo diegun ekarpena lantzen hastea 2019an.

Gure pertsonetikiko iraunkortasunari buruzko kapituluan (5.3), 2018an Agenda 2030 zabalatzeko egindako ekintzak eta prestakuntza ekintzak jaso ditugu.

Kolaborazioak foroetan, iraunkortasuna sustatzeko

2018ko otsailaz gero, Mundu Itunaren Espainiako Sareko kideak gara.

Hor modu proaktiboan parte hartuz, konpromiso handiagoa dugu iraunkortasunarekin, aldaketa eragile nagusiekin elkarreraginean jardun dezakegu (ez soilik Espainian, baizik eta baita nazioartean ere), enpresaren eta ingurunearen artean balio partekatua sortuz, eta praktika onak ikasi eta parteka ditzakegu, bai eta interes taldeekiko harremanak indartu ere.

Nabarmentzekoa da Irizarrek hainbat jardueratan hartu duela parte; esaterako, Mundu Itunaren Espainiako Sareak eta Espainiako Gobernuak antolatutako lan jardunaldietan, Irizarren egindako Ate Irekien Jardunaldietan, enpresekin, hezkuntza zentroekin eta unibertsitateekin esperimentziak partekatuz, eta GIHren bechmarkingean, beste enpresa batzuekin ikasteko.

Gainera, iraunkortasunarekin lotutako hainbat kanpo forotan parte hartu dugu. Tartean, Deustuko Business Schoolen egindako "Negozio arduratsua eta EESren kudeaketa estrategikoa" izeneko jardunaldian, txostengile gisa.

Lehiakortasun iraunkorra sustatzea Irizar Taldean

Taldeko enpresa bakoitzean iraunkortasunarekin lotutako ekimen indibidual eta aurrerapenez gainera, Irizar S.Coop. en etengabeko aurrerapenean egindako ibilbide luzea eta ikuspegia erreferentziazkoak dira, eta etorkizunerako iraunkortasunerako esparru estrategiko baterako oinarriak finkatzen ditu, eta, bide beretik, Taldeko gainerako enpresen kudeaketan eta horien artean ekintza iraunkorrak martxan jartzea bultzatzen du.

2018an hasitako Iraunkortasun zeregin garrantzitsuenak, "4. Lehiakortasun Iraunkorra Irizar Taldean: Lehentasuna eta Konpromiso estrategikoa" kapituluan jasota dagoen bezala, etorkizunerako iraunkortasun esparru estrategiko global baterako oinarriak ezartzea eta finkatzea da, jardunak gauzatzuz, nola maila korporatiboan eta zeharkakoan, hala interes talde bakoitzarekin. Zehazten ari garen Talde estrategia honek Iraunkortasunaren bidean egin beharreko aurrerapen irmoan lagundu beharko digu.



Bezeroak, produktuak eta zerbitzuak

5.2.1. Bezeroa, estrategiaren bihotzean

- Bezeroari begira dagoen erakundea
- Laguntza prozesu osoan: hasi eta buka
- Erosketaren kostu total (TCO) oso lehiakorra
- Irizar diseinua
- Bezeroen iritzia funtsezkoa da

5.2.2. Ikuspegi iraunkorra etorkizuneko produktu eta zerbitzuentzat

- Irizar markako autokar integralak
- Irizar markako autokar hibridoak
- Teknologia hibrido-elektrikoa
- Ekoberrikuntza
- Autokarren etorkizuneko belaunaldiak

5.2.3. Segurtasuna eta konforta, lehentasunezko beste ezaugarri bat

5.2.4. Irizar Taldearen elektromugikortasuna, zero CO2

- Giltza eskuan
- Ibilgailu elektrikoen gama
- Irizar bateriak
- Energia kudeatu eta biltegiatzeko sistema
- Trakzio elektrikoko sistema
- Kargarako azpiegiturak

5.2.5. Gidatze autonomoa: pausoz pauso, etorkizunerantz

- Hiri ibilgailuak
- Ibilbide luze eta ertaineko autokarrak

5.2.6. Garrantzi handiko bestelako proiektu batzuk

- Energia eraginkortasuna
- Energia biltegiatzea
- Karga azkar eta adimenduneko azpiegiturak
- Interoperabilitatea
- Konektibitatea – Big data



Bezeroa, estrategiaren bihotzean

Bezeroen gogobetetzea eta fidelizazioa da gure estrategia nagusia. Bezeroei, bidaiariei eta herritarrei balio erantsi handia eskaini nahi diegu, eta taldearen ezagutzari esker sortu eta garatutako abangoardiako produktuak eta zerbitzuak, Premium segmentuari zuzendutakoak, jartzen ditugu euren zerbitzura, zeintzuk segurtasun, fidagarritasun, iraunkortasun, teknologia, zerbitzu eta errentagarritasunean bereizten diren. Diseinua eta berrikuntza gure DNAren parte dira.

Gure bezeroak gogobete eta fidelizatzeko egiten dugu lan egunero, beti beraien alboan egonez eta konfiantzazko proiektu sendo baten bermea eskainiz.

Bezeroen beharretara egokitzeo dugun malgutasuna eta eskaintzen dugun mugarik gabeko pertsonalizazioa faktore bereizlea eta balio erantsia da, bezeroen leialtasuna lortzeko.

Bezeroari begira dagoen erakundea

Erakundeko pertsona guztien konpromisotik abiatuta, bezeroak gogobetetzera jotzen dugu, eraginkortasunaren, kudeaketaren bikaintasunaren eta komunikazioaren bitartez. Gure negozio guztietan, lidergo posizio baten aldeko apustua egiten dugu, gure bezeroei onura emateko asmoz; betiere, euren begira dagoen erakunde baten bitartez eta enpresa etika garden bat bermatuz. Horiek dira gure etorkizuneko arrakastaren giltzak.

Laguntza prozesu osoan: hasi eta buka

Gure zerbitzuak soluzio pertsonalizatuak ematen ditu, bezeroari aukerarik onena emateko diseinatu eta sortutako soluzioak: finantzaketa, konponketa eta mantentze kontratuak, eta erabilitako ibilgailuak jasotzea. Zerbitzu sarea etengabe ari da hedatzen, eta, gaur egun, autokarrak dabilzan leku guztietan posible da Irizar tailer homologatu eta bermatu bat aurkitzea.

Bezeroei laguntza eskaintzen diegu, hurbileko aholkularitza, bai eta teknologiarik aurreratuena ere, kostuei eta eraginkortasunari jarraipen eta kontrol zorrotza egiteko. Horrek guztiak ibilgailuaren erabilgarritasuna eta fidagarritasuna hobetzea ekarriko du.

Helpdeskak ditugu Europako herrialde guztietan, eta beste nagusi bat, eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan zerbitzua ematen duena. Gure konponketa, prestatketa eta mantentze zerbitzu integralak gure bezeroen aintzatespena jaso du, erabateko bermea ematen dielako eta beraientzat zerbitzuaren balio bereizlea delako: 24 ordu, urteko 365 egunetan.

Kudeaketa elektroniko integrala, ustiapen eta telediagnostikorako laguntza sistemak, informazioa bidaiariei, ticketinga, bidaiarien kontaketa, bideo zaintza edo eko-gidatzea dira beste balio erantsi batzuk. Horiei esker, ibilgailuen kostu eta eraginkortasunari jarraipen zorrotza egiteaz gainera, segurtasuna ematen du bidaietan eta optimizatu egiten du flotaren errendimendua zein errentagarritasuna.

Oso **TCO** lehiakorra

Operadoreak aurre egin beharreko kosturik handiena erregaiarena dela jakinik, etengabeko ahalegina egiten dugu kontsumoak murrizteko. Autokar belaunaldi berriak gutxieneko TCO (Erosketa Kostu Totala) eskaintzen du. Hauek dira bere funtsezko elementuak: erregai kontsumorik txikiena, olio eta iragazkiak aldatzeko denbora tarte luzeak (150.000 km-ra artekoak), partikulen iragazkia birsortze automatikoarekin eta 700.000 km-ra arte mantentze lanik egin beharrik gabe, ordezeko piezen prezio oso lehiakorra eta zerbitzu gune ugari Europa osoan.

Gure ibilgailuen hondar balioa oso altua da, eta horrek bere finantzaketa kostua murriztea ere badakar.

Irizar **diseinua**

Diseinua gure markaren ikono bihurtu da, eta horixe da Irizarren ezaugarri berezietako bat arlo guztietan: autokarrak, autobusak, instalazioen irudia, ekoizpen lantegiak, etab.

Gure indarren artean bat diseinuaren ikusgarritasuna da, eta hori kontsumoa optimizatzen duen eta jabeei ospea ematen dien aerodinamika baten zerbitzura dago. Irizar ibilgailu guztiak nabarmentzen dira nortasun markatu eta handia izateagatik, eta ikuste hutsak zirrara eragiteagatik.



Bezeroen **iritzia** funtsezkoa da

Bidaia-irakurketa garraiatzeko operadoreak ditugu, euren eskarmentu eta ezagutza zabalaz gozatzeko. Gure berrikuntza proiektuei begira beraiek dituzten premien berri ere jasotzen dugu, eta etorkizuneko soluzioak diseinatu eta garatzeko fasean parte hartzeko aukera ematen diegu.

Halaber, eurekin esku hartu nahi izaten dugu, iritziak eta esperientziak trukatzeko, eta ekonomia, etika, ingurumen eta etorkizunarekin lotuta dituzten kezkei buruz eztabaidatzeko. Gure helburua da elkarriketa emankorra izatea, eta hori onuragarria izatea bi aldeentzat.

Bezeroa, etorkizuneko gure garapenetako faktore gakoa

Bidaia-irakurketa garraiorako operadoreen eskarmentua eta ezagutza eta etorkizuneko soluzioen diseinu zein garapenean duten esku hartzea funtsezkoak dira gure berrikuntza proiektuan.

Haiek ere esku hartzea nahi dugu, iritziak eta eskarmentuak trukatzeko, eta ekonomia, etika, ingurumen zein etorkizunarekin lotutako kezkei buruz eztabaidatzeko. Gure helburua da elkarriketa emankor bat izatea, eta hori onuragarria izatea bi aldeentzat.

Bezeroa, barne prozesuetan txertaturik

Irizarren bezeroekin harremanetan egoteko lantaldeak ditugu mundu osoan zehar, bai eta bezero lerroko lantaldeak ere, erakundearen barne prozesuetan. Eta hori guztia, etorkizuneko produktuak eta zerbitzuak garatuko ditugula bermatzeko premiak bideratzeko asmoz.

Bezeroekin harremanetan egoteko lantaldeek zuzeneko eta hurbileko harremana dute haiekin, egunero. Hala, bezeroak bihurtzen dira oraingo zein etorkizuneko premiei buruzko informazio eta ezagutza iturri nagusia. Ezagutza hori jaria korra da, eta erakunde guztian partekatzen da, justu horretarako finkatuta ditugun hainbat bide eta prozesuren bitartez.

Bezero Lerroko Lantaldearen aldizkako bileren dinamika da garrantzitsuenetako bat Irizarren. Bezero Lerroko Lantalde bakoitza bezeroekiko harremanetarako lantaldeek, erosketakoek, hornidura eta logistikakoek, ekoizpen kalitatekoek eta salmenta osteko zerbitzukoek osatzen dute. Guzti-guztiekin dute bezeroen igurikapenak betetzeko edo hobetzeko erantzukizuna. Eta bezeroak, aldi berean, modu naturalean txertatzen dira prozesuan.

Bezero Lerroko Lantaldeak hiru hilean behin biltzen dira Zuzendaritza Talde osoarekin. Ekoizpen eta zerbitzu jarduerari buruz urtero finkatutako helburu eta adierazleei jarraipena egiteaz gainera, Zuzendaritza Taldeak jarduerari, merkatuei, berrikuntza proiektuei, ingurumen proiektuei, segurtasun eta osasunari eta guztiontzat interesekoak diren bestelako gai batzuei buruzko informazio zehatza ematen du.

Bezeroak beti du informazioa

Gure bezeroekin dugun harremana oso estua da. Berrikuntza guztiei buruzko informazioa ematen diegu etengabe: produktu eta zerbitzuei dagokienez, eta gainerako iraunkortasun gaiekin gauzatutako ekimenei zein lortutako emaitzei dagokienez. Horretarako, bilerak, komunikazio ekintzak eta marketina baliatzen ditugu.

Kalitate eta salmenta osteko foroak

Kalitate foroa lantalde bat da, non produktuaren kalitateari buruzko erabakiak hartzen diren.

Hilean behin egiten da, eta Kalitate Arduradunak gidatzen du. Erakundearen goi arduradunek osatzen dute kalitate foroa: Zuzendari Nagusia, Zuzendari Industrialak, Ekoizpen Zuzendaria, Zuzendari Komertzialak, Erosketa Arduraduna, Produktuaren Berrikuntza Arduraduna, Ingeniaritza Arduraduna, Salmenta Osteko Arduraduna, Kalitate Arduraduna eta lantalde komertzialetako eta arlo industrialeko beste pertsona batzuk. Foro irekia da, eta Irizar osatzen duten pertsona guztiak daude gonbidatuta bertan parte hartzera.

Urteko planetan zehaztutako kalitate eta ingurumen helburuei jarraipen zorrotza egiteaz gainera, bezeroek dituzten intzidentzia nagusien ekintza zuzentzaileak berrikus-ten dira.

Merkatuetakoz bezeroek jakinarazitako intzidentziak salmenta osteko foroan baloratzen dira alde aurretik, eta garrantzitsuenak kalitate forora bideratzen dira, dagozkion ekintza, arduradun eta betetze data finkatzeko.

Gainera, bilera horietan hartutako erabakiak eta ateratako ondorioak lantalde komertzialetan eta Irizar Taldearen kanpoko gainerako lantegietako kalitate arduradunekin partekatzen dira. Ikaskuntza partekatua eta sinergiak biltzea dugu etengabeko helburu.

Bezeroen gogobetetze inkestak

Aldian-aldean inkestak egiten dizkiegu bezeroei, jakiteko ea ondo erantzuten ari garen euren igurikapenei, produktu eta zerbitzuei dagokienez, eta bezeroek ahultzat jotako ezaugarriak hobetzen ahalegintzen gara. Eskaintako produktu eta zerbitzuei buruzko galdera oso espezifikoari erantzuteaz gainera, etorkizunerako garrantzitsutzat jotzen diren alderdi guztiei buruz aritzeko aukera ere ematen diegu. Horri esker, etengabeko hobekuntzarako informazio gehigarria eskura dezakegu.

Egindako inkesten emaitzak positiboak dira, eta gogobetetze maila handia adierazten dute. Alabaina, hobetzeko baliagarria den tresna garrantzitsua ere badira. 2017an egindako inkesten analisiaren ondorioz, 2018an ekintza berriak gauzatu ziren, Kalitate eta Salmenta Osteko Foroetako planetan txertatuta.

Prestakuntza

Gaur egun, gidatze ikastaroak eskaintzen ari gara, eta gidatze ohitura onak erregai kontsumoa aurrezteko zenbateraino balio duten, eta horrenbestez, ingurumen inpaktuan duten eragina aztertzen ari gara.

Ibilgailu motordunetan egindako erregai kontsumoaren analisen konparazio objektiboak adierazten dute gidatze eraginkorretan datuak nabarmen murrizten direla.

Ikastaro horiek eragikera kostuak murriztea ekartzeaz gainera, gidatze teknika seguru eta eraginkorragoak lortzea ere badakarte.



Ikuspegi iraunkorra etorkizuneko produktu eta zerbitzuentzat

Marka eta teknologia propioko Premium produktuak garatu eta fabrikatzen ditugu, ikuspegi holistiko batekin, ingurumena babeste aldera. Eta gure ahalegin guztiak egiten ditugu substantzia kutsatzaileen igorpenak minimizatzeko eta gure ibilgailuek ingurunean daukaten inpaktua murrizteko.

Gure produktuen bizi zikloa honelakoa da: garapena, materialak eta hornidura katea aukeratuz, ekoizpena, erabilera, eta ibilgailuen bizi amaiera.

Gaur egun, produktu eta soluzio teknologikoen merkatuko gama handienetako bat daukagu: zero igorpeneko autobus elektrikoak, teknologia hibridoa edo biodiesela, eta autokar integral zein konbentzionalak. Horrek guztiak bidaiarien garraio publikoaren arlo guztiei erantzutea ahalbidetzen digu, bai zerbitzu pribatueta bai publikoan, hirian, hiriartekoan eta ibilbide luzekoan.

Gaur egun, Irizar Taldeak bere ahalegin guztiak bideratzen ditu hainbat teknologia sortzeko aurrerapausoak ematen jarraitzeko, mundu osoko bezeroei mugikortasun premiak asetzeko soluzio aitzindariak emateko asmoz.

Irizar markako autokar integralak

Gure markaren ordezkari gorenak Irizar markako autokar eta autobus integralak dira.

Irizar i8 autokarrak "International Coach of the Year 2018" saria jaso du Europan. Aintzatespen horretarako argudioek barne eta kanpo diseinuaz hitz egiten dute; honela: "Boteretsua, pertsonalizazio aukera handiarekin, eserleku ergonomikoak, erosoak, barnealde zabala...". Baita portaera bikainaz ere: "Balaztatze ezin hobe, biraketa erradioa...". Ingurumenarekin lotutako iritziak ere oso positiboak dira "ibilgailuaren gehieneko gaitasunagatik, energia kontsumo txikiagatik eta bibrazio eta zarata maila oso txikiengatik, baita bihurtune itxienetan ere". Teknologiari dagokionez, "aginte mahaia erreferente bat da, tekla multiplexatuengatik eta HMIa estandar gisa doalako aurreneko. Segurtasuna: Aurrealdeko FULL LED argiak, AEBS, LDW, TPTMS, ACC eta DFT bezalako sistema aitzindariak, aukeran. Eta, gainera, R/66.02 betetzen da". Ibilgailuaren gastu osoari erreparatuz gero, kontuan hartzekoak dira "salneurria, balio galera eta hondar balioa, kontsumoa, eta konponketa eta mantentze kostuak".

Autokar adimendun eta eraginkorrak sortzea

Irizar autokarren azken belaunaldia aurkeztu genuen 2018an. Zehazki, autokarretan egindako hobekuntza handien fruitua izan da, bai eta Paccar-DAF motor berriak eta ZF transmisio gama berria txertatzearen fruitua ere. Autokar iraunkorragoen, kontsumo eta igorpen gutxiagokoen belaunaldia da; autokar konektatuak dira, prediktiboak, fidagarriak, isilak eta Erosketa Kostu Totala %5etik gora murrizten dutenak.

Autokarretan sartutako beste berrikuntzetako bat, hain justu, Irizarren erloju koadro birtuala da.



Irizar autokarren azken belaunaldiaren hobekuntzak

%5

Erosketa Kostu Totala

% 6

erregaien murrizketa

Iraunkorragoa

Teknologiarik aurreratuena dauka igorpenak murrizteko helburuarekin, eta, hala, aurrea hartu die Europako araudi berriei.

Konponketa eta mantentze lana

Motorreko konpartimentuetarako sarbidearen hobekuntza, konpontze eta mantentze lanen kostua murrizteko.

Zerbitzu tarte handiak.

Eskaeraren araberako potentzia teknologiarik esker are gehiago murriztu da kontsumoa, eta luzatu egin da osagaien bizitza eta mantentze tarteak.

Bidaiari ahalmena handitu da. Baita horien **erosotasuna** ere.

Pisuen banaketa eta erabilgarritasuna hobetu da. Pisu orokorra 300 kilotik behera jaitsi da.

Gidariarentzat goi mailako **konforta**.

Gure **teknologia adimendunari** esker, gidatze prediktibo bat egin daiteke, eta gidatze lana topografiara eta errepidearen egoerara egokitu, martxa aldaketarako estrategiarik adimendunenaz hornituz.

Zarata eta bibrazioak murriztu dira.

Gure markako Diesel autokar integral guztiak monitorizatzen hasi gara, eta lortutako emaitzek kontsumoen erreferentzia bat izatea ahalbidetuko digute, ibilgailuen konfigurazioen arabera, hobekuntzarako abiapuntu gisa. 2018ra arte lortutako datuak oso positiboak dira:

Gure ibilgailuak Euro6D motorrekin eta abiadura kaxa automatizatu edo automatikoekin dabilta, kontsumoak murrizteko eta gidarien lana errazteko. Hala, gidatzeko prozesua eraginkorragoa izango da.

Azken hiru urteetan (2016tik 2018ra) %10 baino gehiago murriztu dira kontsumoak eta igorpenak.

19,5 Tm eta 12 m-ko autokar baten batez besteko kontsumoa 23 l/100 km-tik beherakoa da. Esan dezakegu emaitza horiei esker, erreferenteak garela, eta onenen mailan gaudela.

Irizar markako **autokar hibridoak**

2016. urtean, Irizarren gama hibridoa merkaturatu genuen, eta II klaseko aldirietako autokar hibrido bat merkaturatu zuen Europako lehenengo enpresa izan ginen.

Teknologia hibrido paraleloa da. Bi motorren konbinazioa dauka: azken belaunaldiko diesel edo biodiesel motor bat (Hydrotreated vegetal oils=landare olio hidrotratatuak) eta elektrizitate sortzaile diharduen motor elektriko bat, beharren arabera bakarka edo batera jardun dezaketenak eraginkortasun eta errendimendu handiena lortzeko. Landare jatorria duen azken belaunaldiko biodiesela erabiltzean (HVO), sulfuroen igorpena desagerrarazten da.

Autokar horiek dakartena:

- Errekuntzako ohiko autobus eta autokarren aldean, 157 bat g CO₂ gutxiago igortzen du kilometroko; alegia, gutxi gorabehera 2,5 tona CO₂ gutxiago igortzen du bere bizitza baliagarri osoan (urtean 100.000 km gutxi gorabehera, 15 urtean).
- Autokar diesel konbentzional baten aldean, %20ko kontsumo murrizketa egiaztatua. Horrek dakar gure bezeroek 6.000 litro gasolio aurreztean. Datu horrek, era berean, CO₂ igorpenei eragiten die, urtean 170.000 g inguru murrizten baitira.

Gure markako autokar integral hibrido guztiak monitorizatzen hasi gara, eta lortutako emaitzek kontsumoen erreferentzia bat izatea ahalbidetuko digute, ibilgailuen konfigurazioen arabera, hobekuntzarako abiapuntu gisa. 2018ra arte lortutako datuak oso positiboak dira:

2017tik 2018ra bitarte

%20ra arteko murrizketak kontsumoetan eta igorpenetan.

Ekoberrikuntza

Aurreko Iraunkortasun Memorietan aurreratu izan dugunez, Irizarren etenik gabe eman ditugu aurrerapausoak azken urteotan, material berriak eta autokarrak fabrikatzeko teknologia berriak ikertu eta garatzeko, European erreferente izateko eta ekoberrikuntzaren eta ekodiseinuaren arloan abangoardian egoteko, produktuaren bizi ziklo osoan eta birziklagarritasunari dagokionez.

Diseinu ekologikoak berekin dakar ingurumen ezaugarriak txertatzea, produktua sortzen den unetik bertatik, ingurumenaren izango duen inpaktua mugatzeko asmoz. Txertatze horrek ikuspegi globala izango du, eta kontuan hartu beharko ditu produktuaren bizi zikloaren etapa guztiak eta haren ingurumen inpaktua murrizteko mekanismoak, teknologiak identifikatuz, material aukeraketa hobetzeko moduak bilatuz, eta material garbien erabilera sustatuz.

2018 baino lehenagoko aurrerapenen ostean:

- **Ingurumenaren Zaintza Estrategikoa:** Ingurumenaren Zaintza Estrategikoari buruzko azterlan bat egin genuen iraunkortasunari eta ingurumena errespetatzeari buruzko ingurumen politikan zehaztutako irizpideekin koherentzia jarduteko; baita lehiakideen egoera eta European sektoreak ematen dituen aukerak ezagutzeko ere. Hori lagungarria izan zitzaigun Irizarrek ingurumen arloan izan ditzakeen aukerak eta mehatxuak identifikatzeko, eta aukera eta mehatxu horien ondoriozko arriskua zuzen kudeatzeko erabakiak hartu eta ekintzak abian jartzeko.

- **PKA - Produktu kategoriaren arauak:** Fabrikatu eta merkaturatzen dugun produktuari dagokionez, lehiakide handiak ditugu. Ingurumen esparruan erreferente izango den enpresa bihurtzeko –izan ere, ez dago Europako lehiakiderik, aurretik EPD (produktuaren ingurumen deklarazioa) ekoetiketa bat argitaratu duenik–, beharrezkoa izango dugu aurretik produktu kategoriaren arauak (PKA) ezartzea, eta lehenengoak izango gara European sektore horretan era horretako deklarazioetarako pausoa ematen.

- **BZA - Autokar baten Bizi Zikloaren Analisia** BZAn eta bestelako informazio garrantzitsu batean oinarrituta, 2018an zehar, Produktuaren Ingurumen Deklarazio bat (EPD) osatzeari ekin genion, merkatura dimentsio berri bat ekarri duena, produktu eta zerbitzuen ingurumen jardun edo irismenari buruzko informazioa emanez.

2019an, Produktuaren Lehenengo Ingurumen Deklarazioa lortu dugu (The International EDP System). Hala, ingurumen arloan ziurtagiri hori lortzen duen sektoreko lehenengo enpresa gara munduan.

Produktuaren Ingurumen Deklarazioak (EPD) ISO 14025 arauaren arabera garatu dira, eta merkatura dimentsio be-

rrri bat ekarri dute, produktu eta zerbitzuen ingurumen jardun edo irismenari buruzko informazioa emateko aukera baitaude.

III. Motako Ekoetiketa Programaren testuinguruan sortzen eta erregistratzen dira, EPD nazioarteko sistemaren pean.

EPDak honako erreferentziazko arau hauetan oinarriturik osatzen dira:

- **UNE-EN ISO 14040:2006.** Ingurumen kudeaketa. Bizi zikloaren analisia. Printzipioak eta erreferentzia esparrua.

- **UNE-EN ISO 14044:2006.** Ingurumen kudeaketa. Bizi zikloaren analisia. Baldintzak eta jarraibideak.

- **UNE-EN ISO 14025:201.** Ingurumen etiketak eta deklarazioak. 111 motako ingurumen deklarazioak. Printzipioak eta prozedurak.

- **Produktu Kategoriaren Arauak,** autobus eta autokar publiko eta pribatuen Produktuaren Ingurumen Deklarazioak prestatzeko (PKA 2016-04).

EPD deklarazioak abantaila bereziak ematen dizkie bezeroei eta merkatuei; izan ere, modu zientifiko eta neutral batean baloratzen du autokarra, beti ingurumen ikuspegitik eta hauek kontuan hartuta: bizi zikloan zehar izandako ingurumen inpaktua, bizi zikloko etapa bakoitzeko baliabide fosil berriztagarrien energia kontsumoak, igorpen kutsagarriak edo fabrikazioan erabiltzen diren substantzia arriskutsuak. Produktuak dauzkan ingurumen prestazioak baloratzean, aintzat hartzen ditu, halaber, ingurumena kudeatzeko sistemak edo antolamenduko ekodiseinurako sistemak, edo produktuaren bizitza baliagarriaren amaiera kudeatzeko modua.

Era berean, lagungarria da gure produktuek bizi ziklo osoan zehar egiten dituzten CO₂ eta bestelako kutsatzaile batzuen igorpenak murriztera bideratutako neurriak ezartzeko, ingurumenarekin errespetu handiagoz jokatzeko duten materialak erabiliz eta pisuak eta erregai kontsumoa murriztuz. Modu eraginkor eta iraunkorrean gidatzeko ohiturak ere asko lagunduko du helburu horiek betetzen.

Bizi zikloa aztertzeke proiektu hau Irizar I4 modelo integralarekin hasi da, eta Irizar Taldearen gainerako produktu gametara zabaltzen ari da.



Birziklagarritasuna

Elektromugikortasunerako irtenbide berriek autobusak fabrikatzeko modua aldatzea eskatzen digute: osagaiak desmuntagarriak eta birziklagarriak izateari lehentasuna eman behar zaio, soldadura sistema tradizionalaren ordez torlojuz lotzeko sistema modular berria erabili behar da, eta, horri esker, ibilgailuaren birziklagarritasun eta berreskuragarritasun tasak %90etik gorakoak dira, ISO 22628 "Road vehicles. Recyclability and recoverability calculation method" arauaren arabera.

Autokarren etorkizuneko belaunaldiak

Gauza jakina da garraibideen CO₂ igorpenek eragina dutela beroketa globalean. Irizarren, Europako Batzordearen helburuak kontuan hartuta ari gara lanean, fenomeno hori ahalik eta gehien arintzeko. Gure teknologiek berotegi efektuko igorpenak eta soinu igorpenak desagerraraztea dute helburu. Horregatik, gaur egun, gure diesel errekontzako ibilgailuetan eta ibilgailu hibridoetan inpaktu hori murrizteko inbertsioak egiten jarraitzen dugu.

Europako Batzordeak konputagailu bidezko simulazio programa bat dauka (VECTO), helburutzat daukana kamioi eta autokar fabrikatzaileak tresna estandar batez hornitzea, erregai kontsumoa eta CO₂ igorpenak neur ditzaten, eta, horren ondorioz, horiek nabarmen murrizteko helburuak ezar ditzaten (ikus helburuen taula).

VECTOk gaur egun egiten dituen adierazpenak kamioien sektoreari zuzendutakoak izan arren, Irizar dagoeneko ari da inbertsio nabarmenak egiten ibilgailuen belaunaldi berrian, CO₂ igorpenak (erregai kontsumoa) murrizteko asmoz. Horretarako, kamioien helburuak hartzen ditu helburu, etorkizunean etorriko diren arauak aurrea hartuz.

Gaur egun, Irizar Taldea Europako marka handien eskutik ari da parte hartzen proiektu nazional zein Europakoetan, igorpen kutsatzaileak murriztuko dituzten ibilgailuen belaunaldi berrien ikerketa eta garapenerako.

Hauek dira gaur egungo ikerketa ildo nagusien ardatzak:

- Il motako autobus hibridoak, erabat elektrikoak eta kontrol pertsonalizatuko moduludunak.
- Hobekuntza aerodinamikoak
- Pisuen murrizketa
- HVAC (Berokuntza eta klimatizazio sistema)
- Kate zinematikoaren eraginkortasuna
- Osagai lagungarri guztien elektrifikazioa, kontrola eta eraginkortasuna.

2019

Kamioiak monitorizatzen hasia eta monitorizazioaren emaitzen oinarria ardatz hartutako 2025erako batez besteko helburuak definitzea.

2020

Kamioien kontsumo ekarpenarekin eta autokarren monitorizazioarekin hasia.

2022

Egoeraren berrikuspena, eta beharrezkoa izanez gero, helburuak berriz definitzea 2030erako. Eta autokar eta autobusetarako helburuak definitzea.

2025

2019ko oinarriaren gaineko %15eko murrizketa, kamioietan.

2030

2019ko oinarriaren gaineko %30eko murrizketa, kamioietan.

Igorpenak murrizteko helburuak VECTO



Segurtasuna eta konforta, lehentasunezko beste ezaugarri bat

Istripurik eragin gabe gidatzea

Errepidean arazoak saihestea eskakizuna da gure ibilgailuentzat. Hala, segurtasun aktibo zein pasiboa ezaugarri estrategikoak dira gure produktu eta zerbitzuen garapen berrietan. Diseinutik bertatik, behar den guztia inbertitzen dugu teknologian eta berrikuntzan, arlo horretan liderrak izateko asmoz. Izan ere, segurtasun maila gorena bermatu nahi dugu, bai gidariarentzat, bai bidaiariarentzat.

Irizar markako autokarrak eta autobusak teknologiarik aurreratuenekin osatu dira, segurtasunari, diseinuari, materialei, osagaiei eta ekoizpen prozesuei dagokienez. Neke saiakuntza eta fidagarritasun proba gogorak egiten zaizkie ikerketa aplikatuko munduko institutu ezagunenetako batean, eta emaitza bikainak lortu ohi dituzte.

Segurtasun pasiboa

Irizar autobus eta autokarrak diseinatzean, kontuan hartu dira iraultzeko eta aurrez aurreko talketarako daukaten erresistentzia, eta horretarako, pisuak modu egokian banatu dira.

Gainera, Irizar markako autokar modelo guztiek betetzen dute R/66.02 segurtasun araua.

Suhiltzaileei etengabeko prestakuntza eskaintzen diegu autokarra egonkortzeko modu egokienei eta arrisku osagaiei buruz. Horrela, beharrezko trebetasunarekin aritu daitezke bidaiariak ibilgailutik ateratzeko orduan.

Segurtasun aktiboa

Irizar markako autokar modelo guztiek dituzte segurtasun aktiboko merkatuko teknologiarik aurreratuenak, gidaria ohartarazteko, hari laguntzeko eta arrisku egoerak saihesteko. Nabarmentzekoak dira hauek: egonkortasunaren kontrola, abiadura kontrol moldagarri eta prediktiboa, larrialdiko balazta sistema aurreratuak, ustekabeko errei aldaketak detektatzeko eta pneumatikoen presioa monitorizatzeko sistemak, aurreko Full LED argiak, gidariaren

nekea detektatzeko sistema, eta Predictive Shiftinga aukeran, bai eta bideozaintza (irudiak grabatzeko) eta lapurreten aurkako gailua ere.


Kontuan hartzekoak dira, halaber, hauek: irudiak grabatzeko bideo zaintza eta lapurreten aurkako gailua, gidariaren eta ibilgailuen txartelak urrunetik deskargatzeko aukera eta isilik doazen autokar eta autobusek oinezkoak ohartarazteko dituzten soinu alertak.

Gidatze autonomoari buruzko atalean dago jasota segurtasunari buruzko informazio gehiago.

Konforta

Barne lekua banaketa egokia eta zabala da, eserlekuen ergonomia ondo aztertutakoa, soinu igorpenen eta bibrazioen mailak oso txikiak, klimatizagailua eta ekipamendua moldagarriak dira... horrek guztiak erosotasuna eta segurtasuna bermatzen die bidaiariei.

Gidariari dagokionez, haren gidatzeko lekua aipatutako alderdia nabarmentzen duen funtsezko atala da. Horren erakusgarri, hona hemen ezaugarri batzuk: handitasuna, ergonomia, aginteen eskuragarritasuna, elektronika kontrola zentral bakar batean masiboki txertaturik egotea (MMI) eta atzeko ispiluen ikusgaitasun bikaina. Eta orain, Irizarren ordulari koadro birtual moderno eta berritzailea gehitu zaio.



Irizar Taldearen **elektromugikortasuna**: zero igorpen

Gaur egun, Taldean zero igorpeneko ibilgailu, autobus eta kamioi elektrikoen gama zabala daukagu.

Mugikortasun iraunkorrean eskaintzen ditugun soluzioak dagoeneko ari dira eraldatzen gure hiriak eta gure planeta. Igorpen kutsatzailerik gabea, zaratarik gabea, eraginkorra eta irisgarria... hementxe dugu etorkizuneko garraioa.

Elektromugikortasuna erabaki estrategikoa eta garrantzi handikoa da mugikortasun iraunkorraren inguruko berrikuntzari dagokionez etorkizuneko hirientzat. Herritarren bizi kalitatea hobetzen irmoki laguntzea, haien inguruneak iraunkorragoak izan daitezen, horixe da etorkizunerako dugun erronka. Horregatik, 2011n, geure elektromugikortasunaren negozio ildoari ekin genion, eta hor batzen dugu Taldeak daukan ezagutza eta eskarmentu guztia.

Irizar e-mobility hirietarako elektromugikortasun soluzio integral eta pertsonalizatuak eskaintzeko helburuarekin jaio zen, bai zero igorpeneko autobusak fabrikatuz, bai beharrezko azpiegitura sistema nagusiak fabrikatu eta instalatuz, karga, trakzio eta energia biltegitratzeko. Horiek guztiak %100 Taldearena den teknologiarekin diseinatu eta fabrikatu dira, Irizarren zerbitzuaren berme eta kalitatearekin.

Irizar e-mobilityrekin erabakita dugu garraio eraginkor, garbi eta irisgarrien erabilera bultzatzea, ingurumenaren eta pertsonen ongizate eta osasunaren alde egiteko, eta hiri ingurune hobeak sortu ahal izateko. Berebiziko garrantzia ematen diogu kutsadura akustikoa murrizteari, kontsumo baxuak izateari (eta, era horretan, kostu txikiagoak) eta zero igorpeneko ibilgailuak garatzeari. Helburu horiek guztiek balioan jartzen dute gure leloaren esanahia: "For a better life".



Giltza eskuan

Irizar e-mobilityn "giltza eskuan" proiektuak eskaintzen ditugu, erabat pertsonalizatuak eta bezeroen premiak asetzeko diseinatu zein sortuak. Hala, operadoreak badu abantaila berezi bat: proiektuaren fase guztietan solaskide bakarra izango du, baita salmenta osteko zerbitzuan, mantentze lanetan eta neurrira egindako konponketetan ere. Horrek guztiak ekarriko du ibilgailuaren fidagarritasuna eta erabilgarritasuna hobetzea.

Teknologia adimenduna

Teknologia propioa izateak txertatutako sistemak etengabe eguneratzeko aukera ematen digu, eta hala, ibilgailu bakoitzaren bizitza erabilgarria ahalik eta gehien baliatze-ko erronkari era eraginkorrean erantzuten diogu, bere aktiboaren balioa optimizatuz.

Elektromugikortasun soluzioak txertatzen diren hiri guztietan Irizarrek badu salmenta osteko zerbitzu puntu bat, eskusiboa eta kalitatezkoa, R&M sorta pertsonalizatuekin. Aditu teknikoek eta tokian kontratatutako pertsonak kudeatzen dute, eta, hala tokiko aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzen dugu.

Aholkularitza lanak ere egiten ditugu

Operadorearen lerroen energia azterketak egiten ditugu, eta azterlan horiek emandako datuekin (ustiapen datuak, abiadura, lerroaren ezaugarriak, orografia, lerroa...) baliatu beharreko energiari buruzko, optimizazio estrategiari

buruzko, potentzia parametroei buruzko eta bateriak kargatzeko eta horien bizitza denbora eta irtenbideei buruzko aholkularitza ematen dugu.

Obra Zibila koordinatzeko aukera ere ematen dugu.

Ibilgailuaren sistema eta osagai nagusien **mantentze lan prediktibo eta integrala** egiten da, osagai horiek zuzeneko eragina baitute bizi zikloaren kostuetan, ibilgailuaren errendimendua edo erabilgarritasuna eta aktiboaren hondar balioa optimizatzen baitute. Funtsean, ibilgailua monitorizatzen duten diagnostiko tresnak erabiliz egiten dugu (ateak, bateriak, klimatizazio eta berokuntza erregimena, pantografoa, trakzio katea...), eta horrela, autobusaren erabilgarritasun eta fidagarritasunari buruzko estatistikak lortzen dira, mantentze lanetako denbora optimizatzen da, eta sistemaren jarraipena denbora errealean egiten da.

EcoAssist

Sistemaren datuak ematen ditu, energiaren kontsumoa murriztu ahal izateko, eta gidariei kontsignarik gehien dituzten ibilbide tarteak identifikatzen laguntzeko. Energiaren kontrolak ibilbide bakoitzean kontsumitzen den energiaren gainerako datu zehatzak jasotzen ditu, etorkizunari begira balorazioa egin ahal izateko; bestalde, kontsumoak murrizteko hobetu beharreko arloak identifikatzen dituzten txosten automatikoak osatzen ditu.



Irizar e-mobility ibilgailuen egungo gaman hiru modelo daude: Irizar ie bus, Irizar ie tram eta Irizar ie truck. Taldearen teknologiarekin garatutako sistemak eta osagaiak dituzte.



Irizar ie busek mugikortasuna irtenbide iraunkor eta ekoeraginkorra eskaintzen du, eta hiri garraioaren gaur egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuten die. Orain arte gauzaturako bertsioak 10,8 m, 12 m eta 18 m-koak dira (azken hori artikulatua).



Irizar ie tram autobusa %100 elektrikoa da eta zero igorpenekoa. Tranbiaren ezaugarri estetikoak ditu. Horrenbestez, konbinatu egiten ditu tranbiak berezkoak dituen gaitasun handia, sarbide erraztasuna eta barenko zirkulazioa, eta hiri autobus baten malgutasuna. Modelo hori eskuragarri dago bertsio hauetan: 12 m eta 18 m (artikulatua), gehienez ere 155 pertsonarentzako.



Irizar ie truck, hain zuzen, hirietan hainbat industria erabileratarako pentsatutako kamioia da, mugikortasun elektrikoko bokazioa duena. Hiri hondakinak jasotzea du lehen erabilera. Oraintxe eskuragarri dauden bertsioak: zero igorpeneko kamioiak edo gama hedatzailaduna, gasez dabilena edo HVO.

Irizar bateriak

Energia kudeatu eta biltegitratzeko sistema

Irizarrek, bere teknologia baliatuz, ibilgailu hibrido zein elektrikoek dituzten bateriak kudeatu eta biltegitratzeko sistema bat garatu du. Ioi-Litio teknologia darabilte, eta kontzeptu modularra, zeinahi operadorearen premietara egokitu ahal izateko. Likidoak hozteko sistemak ditu, eta horri esker, bizitza baliagarria luzatzen da, eta ibilgailuek muturreko klima baldintzetan ere ibiltzeko aukera izango dute. Sistema sendo eta segurua da, Europako azken erregelamenduak betetzen dituenen: R100 v2, R10 eta UN38.3. Hauek dira merkaturatu ditugun soluzioak:

- **Karga motelerako 'Energi pack' izenekoa.** Ibilgailuak ahalik eta kilometro gehien egin ditzan eta egunean behin soilik kargatuta eragiketa osatzeko moduan egon dadin.
- **Karga azkarrerako 'Nano pack' izenekoa.** Autonomiaren eta karga potentziaren arteko binomio ezin hobe da. Bikaina eragiketa mistoetarako, non ibilgailuak behar besteko autonomia izango duen muturreko orduetan aritzeko. Karga bietarakoa izan daiteke: motela edo azkarra.
- **Karga ultrabizkorreko 'Power pack' izenekoa.** 24/7 eragiketa baterako soluzioa da, 600 kW-ra arteko kargekin.

Irizar baterien sorta erabat produktu birziklagarria da. Osagaien tratamendua prozesu kontrolatu bidez ziurtatzen da, eta beste aplikazio mota batzuetan ere erabiltzeko aukera aztertzen ari gara.

Gainera, Irizar etengabe ari da bilaketa eta ikerketa lanean, geroz eta produktu eraginkorragoak eta ingurumenean eragin txikiagoa izango dutenak lortzeko.

Lehengaiak

Irizar e-mobility, Cidetec Zentro Teknologikoarekin lankidetzan, oraintxe hirietako autobus elektrikoek aplikazioan zerbitzua emateko erabiltzen diren baterien bigarren bizitza aztertzearekin zerikusia duten proiektuetan parte hartzen ari da. Aukeratutako aplikazio horretarako, aurreikusten da bateriak bizitza amaierara iritsiko direla %80ko SoH inguruan (State of Health), eta orduan, ordezkatu egin beharko dira, eta aztertu beharko da ea beste era bateko aplikaziotan (hain eskakizun elektriko gogorak ez dituztenetan) erabil daitezkeen; esaterako, sistema fotovoltaiko baten biltegitratze elektrikorako edo ibilgailu elektriko baten karga sistemarako.

Baterien bigarren bizitza

Irizar e-mobility, Cidetec Zentro Teknologikoarekin lankidetzan, oraintxe hirietako autobus elektrikoek aplikazioan zerbitzua emateko erabiltzen diren baterien bigarren bizitza aztertzearekin zerikusia duten proiektuetan parte hartzen ari da. Aukeratutako aplikazio horretarako, aurreikusten da bateriak bizitza amaierara iritsiko direla %80ko SoH inguruan (State of Health), eta orduan, ordezkatu egin beharko dira, eta aztertu beharko da ea beste era bateko aplikaziotan (hain eskakizun elektriko gogorak ez dituztenetan) erabil daitezkeen; esaterako, sistema fotovoltaiko baten biltegitratze elektrikorako edo ibilgailu elektriko baten karga sistemarako.

Bateriak birziklatzea

Paraleloan, birziklapenaren gaia ere lantzen ari gara Europako hainbat enpresarekin. Hala, ziurtatuta geratzen da osagai bakoitzaren amaierako tratamendua, prozesu guztien segurtasun eta ingurumen ezaugarriak kontrolatuz.

Baliabideen kudeaketa arduratsua

Zero igorpeneko ibilgailu elektrikoak fabrikatzeaz gainera, gure ibilgailu elektrikoen bizi ziklo osoan zehar CO₂ eta beste kutsatzaile batzuen igorpenak murrizteko helburua ere badugu. Gure ahaleginak bideratu ditugu autobusak ingurumenean duen inpaktu globalean eragina duten funtsezko hiru alderdien eraginkortasuna optimizatzerantz: trakzio sistema eta bateriak, erabilitako lehengaiak eta osagai guztien kudeaketa bizitza baliagarriaren amaieran.

Le bus autobusaren trakzio sistema elektrikoak %70 inguruko energia eraginkortasuna dauka, eta diesel autobus konbentzionalak, berriz, %30ekoa. Beraz, ibilbide bera egiteko erdia kontsumitzen du.

Ibilgailuaren azken inpaktua erabilera fasean erabilitako mix elektrikoaren menpe dago; izan ere, bateriak kargatzeko erabiltzen den elektrizitatearen ekoizpenean energia berriztagarriek zenbat eta pisu handiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango da kargak ingurumenean duen inpaktua eta, horren ondorioz, txikiagoa ere ibilgailuaren bizi zikloaren inpaktua.

Gainera, autobusak fabrikatzeko modua aldatu dugu, osagaiak desmuntagarriak eta birziklagarriak izateari lehentasuna emanez eta soldadura sistema tradizionalaren ordeztorloju lotzeko sistema modular berria erabiliz. Horri esker, ibilgailuaren birziklagarritasun eta berreskuragarritasun tasak %90etik gorakoak dira, ISO 22628 "Road vehicles. Recyclability and recoverability calculation method" arauaren arabera.


Aluminiozko egitura torloju lotuta dago txasisera, beraz, ez dago soldadura iraunkorrik, eta ibilgailuaren bizitza amaitzen denean errazagoa da osagaiak bereiztea eta kudeatzea.

Autobus elektrikoaren bizitza baliagarria luzeagoa da eta mantentze premia gutxiago ditu, elementu mugikor gutxiago dauzkalako eta horrek trakzio sistemaren bizitza luzatzen duelako. Le bus-ean motorraren errotorea baino ez dabil biraketa, ez baitu ez abiadura kaxarik ez enbragerik.

Le busaren inbertsoreen eta trakzio sistemaren gainerako elementuen bizitza autobusarenaren parekoa edo luzeagoa da, errekontzako ibilgailuetan ez bezala. Poliuretanozko itxasgarriekin lotu beharrean, finkapen mekaniko birziklagarriak erabili ditugu.

Erabiltzen diren osagaiek Europar Batasunaren araudia betetzen dute (REACH- Registration, Evaluation, Authorization and Restriction of Chemicals). REACH araudiak substantzia kimikoen ekoizpena eta erabilera lantzen du, eta gizakiaren osasunean zein ingurumenean izan ditzakeen inpaktuak aztertzen ditu.

Le bus modeloko autobusa osatzen duten osagaien eta materialen birziklagarritasun tasak %98,92koak dira, lhoberen bitartez egindako azterketak emandako emaitzen arabera (Ihobe, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Hobekuntzarako Sozietate Publikoa).



Baterien instalazio berriak

Gaur egun, Irizar Taldea instalazio berri batzuk diseinatzen ari da, marka eta teknologia propioko ibilgailu elektriko zein hibridoek dituzten bateriak garatu eta fabrikatzeko. Instalazio horiek amaierako muntaketarako nabetik metro gutxira daude kokatuta, eta eraikitzean, kontuan hartzen ari dira arlo guztietako diseinu eskakizun espezifikoak: isolamendua, tenperatura, segurtasuna, eta suteei aurre egiteko sistemak. Une honetan ezagutzen ditugunak baliatuko ditugu, fabrikazio prozesu osoa bermatu ahal izateko: hasi gelaxkatik, modulutik igaro eta amaierako UBPrate. Instalazioak amaituta egongo dira 2020 amaierarako.

Proiektu honetan Cidetec Zentro Teknologikoaren lankidetzarekin badugu, eta ezartzeko tresna espezifikoak zein hornidura eta beharrezko prestakuntza identifikatzeko helburua daukagu.

Suhiltzaileek ere ezagutzea garrantzitsua da, larrialdi kasuetan jardute protokoloak definitu ahal izateko. Horretarako, eragindako ekimenei aurre egiteko hainbat simulakro gauzatu ditugu, bateria moduluen portaerak aztertzeke. Saiakuntza horietatik hainbat ondorio ateratu ditugu, zeintzuk kontuan hartu diren bateriak fabrikatzeko etorkizuneko instalazioak diseinatzean.

Trakzio elektrikoko sistema

Beste proiektu batzuetan ez bezala -motor estandarizatuagoak izanik baldintzatuta daudelako-, Irizar e-mobility ibilgailuen motorrak teknologia propioa dauka, gure produktuetarako eskusiboki garatua, beren eskakizunetara ezin hobeto egokitzeko. Motor taldeak Irizar Taldeko enpresek fabrikatzen dituzte.

Ibilgailu konektatuta

Gidariarekiko komunikazio segurua ahalbidetzen du, eta horrekin gidaria eraginkorragoa izan daiteke, eta eguneroko lana zein bidaiariei ematen dien zerbitzua hobetu. Soluzio honek laguntza ematen dio gidariari hurbiltze maniobretan, geldialdietan eta txertatzeetan. Horrez gain, segurtasuna eta konforta zein puntualtasunari lotutako alderdiak hobetzen ditu.

Klimatizazio elektrikoko sistema, eta ibilgailuak hornitzen dituzten ateak zein arrapalak (elektrikoak zein eskuzkoak) ere Taldean bertan fabrikatutakoak dira.

Kargarako azpiegiturak

Kargarako hainbat aukera eskaintzen ditugu.

Karga kotxegian. Kargatzeko modurik erraz eta tradizionalena da, autobusari konektatuta egiten baita, eskuarki gaueko geldialdietan. Kanporako zein barrurako izan daiteke.

Kotxetegietan karga motela osorik automatizatzeko aukera ere ematen da, aparkatzeko espazioen gainean dauden kontaktuko gangek dituzten egiturak martxan jarrita, korrontea hartzeko langile batek eskuzko konexioa egin beharra ordezkatuz. Gangaren eta aparkatua dagoen pantografoaren arteko kontaktuaren automatizazioari esker berehala egin daiteke karga. Irtenbide alternatibo horrek murriztu egiten du lurrean dauden kableen presentzia, eta, ondorioz, langileen segurtasuna hobetzen da.

Karga pantografo bidez. Gomendatzen da ibilgailuak, kotxetegian kargatu eta gero, lanaldi osoa egiteko autonomia nahikorik izan ez eta, ibilbidean hainbat karga egin behar dituztenean erabiltzea. Karga estazioak hirietako leku estrategikoetan kokatzen dira, linea bakoitzaren bukaeran edo hasieran, hainbat autobus edo linea kargatu edo hornitu ahal izateko.

Karga adimenduneko sistema. Kontrol gune bat da, zeinaren bidez kargarako baldintza/mugapen guztiak eraginkortasunez kudeatzen baitira kotxetegian. Autobus bakoitzak dituen karga behar guztiak identifikatzen ditu, eta, horrela, behar den potentzia optimizatzen da.

Interoperabilitatea

Irizar Taldearen karga soluzioak interoperagarriak dira, honako arau hauen arabera: ISO 15118, DIN70121, OCPP 1.6 CE mark, EMC. 61000-6-2, 61000-6-4, IEC61851, IEC 61000.



Gidatze autonomia

Pausoz pauso, etorkizunerantz

Konektibitateak eta digitalizazioak rol garrantzitsua izango dute mugikortasunaren etorkizunean. Ibilgailu autonomoek eta zerbitzu berri eta eraginkorrek gidatuko dute etorkizuna.

Nazioartean, sei maila (0tik 5era) definitu dira gidatze autonomia sailkatzeko. Jarraian deskribatuko ditugu. Sailkapen sistema honek ibilgailuen automatizazio mailak definitzen ditu, bai eta gidariak bete behar dituen baldintzak ere.



0. maila Automatizaziorik gabe

Gidariak egiten ditu etengabe gidatzearekin lotutako lan guztiak.



1. maila Lagunduta gidatzea

Gidatzen laguntzeko sistemak zeregin espezifiko bat gauzatzen du, eta gidariak egingo ditu gainerako zeregin guztiak.



2. maila Partzialki automatizatua

Gidatzen laguntzeko sistemak alboko eta luze-tarako gidatze lanak egiten ditu, ibilgailuaren inguruneari buruzko informazioa baliatuz, eta gidariak egingo ditu gainerako zeregin guztiak.



3. maila Automatizatu baldintzatua

Gidatze automatizatuko sistemak gidatze lan guztiak gauzatzen ditu, gidariak esku hartze eskaerei behar bezala erantzun-go diela espero izanda.



4. maila Oso automatizatua

Gidatze automatizatuko sistemak gidatze lan guztiak gauzatzen ditu, baita gidariak esku hartze eskaerei behar bezala erantzuten ez badie ere.



5. maila Erabat automatizatua

Gidatze sistemak gauzatzen ditu gidatze zeregin guztiak, bideen eta ingurumen egoerak zeinahi direlarik ere.

Irizar Taldeak datozen urteetan hainbat automatizazio maila txertatzeko ahaleginak egingo ditu, bai autokarretan, bai autobusetan.



Hiri ibilgailuak

Zero igorpeneko hiri ibilgailuei dagokienez, gaur egun aktiboki parte hartzen dugu haue-
tan:

- **Automost** proiektua (2016ko deialdia), "Gidatze automatizatua garraio dualeko sistemarako". Helburua da ibilgailuen automatizazioa ahalbidetuko duten teknologiak ga-
ratzea hiri eta industri garraioko aplikazioetan, eta horrela, eraginkortasuna, segurtasuna
eta iraunkortasuna nabarmen areagotzea. Espainiako Ekonomia Ministerioko CDTIren (In-
dustriaren Garapen Teknologikorako Zentroa) programak finantzatzen du.
- Kasu honetan, hiri ibilgailu elektriko baten demostragailu bat diseinatzen ari
gara, Irizar ie bus modeloa, gidatzeko modu dualarekin, eskuzko moduarekin eta modu
automatikoarekin (pilotu automatikoa hiri inguruneetarako), zeinak loturako ibilgailu ko-
mertzial moduan funtzionatuko duen Malagako portuko kruzeroen terminalean. Probak
hainbat hilabetetan egingo dira, trafiko errealeko baldintzetan.
- **HiAdvice** proiektua (2017ko deialdia), SPRIk finantzatua. Helburutzat dauka
ibilgailu hibrido baten prototipoa diseinatzea.
- Pilotu automatikoa duten ibilgailuek gidariaren arreta behar izaten jarraituko
dute, baina espero da metatutako esperientzia baliagarria izatea automatizazio funtzio
espezifikoak garatzeko, zeinetan ez den beharrezkoa izango gidaria bere postuan ego-
tea; esaterako, garbiketa, aparkatzea eta kotxetegietan egin beharreko maniobrak.
- **AUTODRIVE** Europako Batzordeak finantzatutako programa bat da, zeinetan
automobilgintzaren munduko 40 enpresak baino gehiagok osatutako partzuergo batek
parte hartzen duen.
- AutoDriven daude bilduta erdieroaleen Europako industrian liderrak diren enpre-
sa, hornitzaile, fabrikatzaile eta ikerketa zentroak. Helburua da ekosistema paneuopar
bat sortzea, gidatze autonomorako estandarrik abiarazteko eta osagaiak eta azpisiste-
mak eskaintzeko behar besteko masa kritikoarekin.

Ibilbide luze eta ertaineko autokarrak

Ibilbide luze eta ertaineko autokarren automatizazioari dagokionez, gidariari laguntzeko
sistema automatizatuak ezartzen hasi gara.

Hauek dira gauzatzen dituzten funtzio garrantzitsuetako batzuk: trafiko seinaleen berei-
zketa, argien kontrol adimenduna, seinaleen erregistroa, bizikleta, animalia eta oinezkoen
detekzioa, eta erre aldaketarako laguntzaileak.

Garrantzi handiko bestelako proiektu batzuk

Europako marka handien eskutik, etorkizunari begira dau-den Europako proiektu garrantzitsuetan ere ari gara parte hartzen, hiriak elektrifikatzeko eta bidaiarien garraio pu-blikorako.

Energia biltegitratzeko sistemak hobetzearekin, energia eraginkortasunarekin, karga sistemen estandarizazioare-kin, konektibitatearekin edo Big Dataekin (adimen artifi-ziala) erlazionatutako proiektuak dira. Guztiak oinarritzekoak garraio garbi, eraginkor, bizkor, estandarizatu eta adimen-dun bat sortzeko.

Energia eraginkortasuna

EBSF2 (European Bus System Of The Future 2) proiektua. Proiektu hau Europako Batzordearen H2020 programak finantzatzen du, eta bere zeregina da hainbat soluzio ga-ratzea eta baliozkotzea, modu antolatu batean autobuse-tako sistemen eraginkortasuna eta autobus elektrikoen kontsumo elektrikoen murrizketa uztartzeko.

Gaur egun, ibilgailu elektrikoetan energia eraginkortasu-neko teknika aurreratuak erakusteko lanean ari gara (A/C sistema, ekologuntzailea eta elementu osagarrien ku-deaketa adimenduna). Europako erakusleiko handi hone-tan proban jartzen ari dira, besteak beste, Irizarrek gidatze eraginkorrera bideratutako laguntzaren arloan landutako teknologiak.

Energia biltegitratzea

SADE: Safe Storage Systems

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak eta Agenda Digitalak kofinantzatu dute proiektua, Ikerketa Zientifiko, Garapen eta Berrikuntza Teknologikoko Plan Nazionalaren baitan.

Proiektuaren asmoa da hirian battery-pack soluzio bat ikertzea eta garatzea, hiri barruko mugikortasunean auke-ra kargak egiteko estratergiara bideratuta. Garapenak pro-totipo funtzional bat izango du, eta laborategian baliozko-tu eta testatu beharko da.

Karga azkar eta adimenduneko azpiegitu-rak

ASSURED: Karga azkar eta adimenduneko azpiegitura, ibilgailu handietarako.

ASSURED proiektuaren proposamena da «Karga azkarre-ko azpiegituran ibilgailu komertzial elektrikoak integrat-zea», Green Vehicle programaren barruan. Lana EBko 12 estatu kideetako 40 parte hartzaileko partzuergo batek egingo du.

ASSURED-en helburu orokorra da herritarren, operadoreen eta amaierako erabiltzaileen beharrak aztertzea, ibilgailu elektriko astunen (esaterako autobusen), karga ertaineko kamioien eta hiri inguruneetan ibiliko diren ibilgailu arinen belaunaldi berriaren ezaugarriak eta baldintzak ezagut-zeko. Horrenbestez, lortuko diren emaitzek balioko dute kostuak hobetzeko, ibilgailu elektrikoetarako boltaje han-diko karga modularra egiteko sistemen belaunaldi berria garatzeko, eta karga kudeatzeko estratergia berritzaileak garatzeko.

Interoperabilitatea

Sistemen interoperabilitatea ere funtsezkoa da. ITxPT proiektuak estandarretan oinarritutako arkitektura ireki hori eskaintzen du. Horri esker, sistemak elkarrekin komu-nika daitezke, eta hornitzaileak lankidetzan aritzera bult-zatzen ditu.


Gure sistema guztiak interoperagarriak eta integratuak dira, 2013an Garraio Publikorako Informazioaren Tekno-logiaren ITxPT estandarretan oinarritutakoak (Garraio Publikorako Nazioarteko Elkarteak). ITxPTren helburua da Garraio Publikoari aplikatutako TI plug-and-play sisteme-tarako estandarrak abiaraztea.

Konektibitatea - Big Data

eFleet

Premisatzat hartuta gaur egungo teknologiarekin hiri ga-rraioko autobusa elektrifikatzeko helburuak ezin direla lor-tu, Irizar Taldeak eFLEET proiektua proposatu du, eMobility soluzioak sortu ahal izateko baliagarriak diren teknologiak eta estratergiak garatzeko (hiri garraio publikoa autobus %100 elektrikoetan oinarrituta), modularrak, malguak eta eskalagarriak, autobus elektrikoen flota ertainak/handiak masiboki hedatu ahal izateko, baina sare elektrikoan du-ten eragina minimizatuz, eta hasierako kostuak eta kostu operatiboak murriztuz. Beraz, eFLEET erronka estratergiko handi bat da, helburutzat baitauka goraka doan merkatu baten mugak desblokeatzea -Irizar Taldea 2011. urtez gero dabil merkatu horretan-.

18 m-ko autobus artikulatua - Urtean atmosferara igortzen den CO₂-a (120 tona) desagerraraztea



le bus autobusak oso karbono aztarna txikia uzten du: **8,45 gr CO₂ eq/km.p** (egindako kilometroak bidaiariko). Errekuntzako ohiko autobus batekin alderatuz gero, 800 tona CO₂ inguru igortzea saihesten da autobusaren bizitza baliagarri osoan.

Datu hori baterien elektrizitate kontsumoari lotutako igorpenen eta erregaien errekuntzari lotutakoen arteko aldeari dagokio.

%86 karbono aztarna gutxiago, diesel autobus konbentzionalen aldean.



Zarata

Teknologia elektrikoak, halaber, errekuntza motorren zarata desagerrarazten du, eta beraz, kanpora ez du zaratarik ateratzen ez geldi eta ez martxan jartzekoan (0dBA). Zirkulazioan, **soinuen igorpena %20 murrizten da**.

2014an Koucky & Partners A.B konpainia suediarak "Quieter buses socioeconomic effects" izeneko azterlana egin zuen Suedian, eta, azterlan horren arabera, ondorioa da **240 autobus elektriko konbentzional ordeztuz gero kutsadura akustikoa 1,3 dBA murrizten dela**, hau da, urtean 52.650 €-ko aurrezpen sozioekonomikoa lortzen dela, kilometro bakoitzeko; hots, kostuen %27ko murrizketa.



Gure pertsonekin

5.3.1. Gure estrategiaren esparrua eta pertsonekin egindako jarduna

5.3.2. Kalitatezko enplegua sortzea

- o Gure misioarekin bat etorrira
- o Enplegua sortzea eta langile taldearen bilakaera
- o Enpleguaren kalitatea eta bilakaera
- o Emaidza ekonomikoetan eta kudeaketan parte hartzea
- o Kontziliaziorako erraztasunak
- o Enpleguaren sustapena

5.3.3. Komunikazioa, gardentasuna eta parte hartzea

- o Lidergoa eta taldeko lana
- o Komunikazioa eta gardentasuna

5.3.4. Heziketa eta formazioa

5.3.5. Genero berdintasuna eta dibertsitatea

5.3.6. Mugikortasun eraginkorra eta iraunkorra

5.3.7. Segurtasuna eta Osasuna

- o Laneko arriskuen prebentziorako sistema
- o Ergonomia-konforterako programak
- o Bestelako ongizate eta osasun zerbitzuak





Gure estrategiaren **esparrua eta pertsonekin** egindako jarduna

Pertsonak aktore gakoak dira, zalantzarik gabe, epe ertain eta luzera emaitza iraunkorrak lortzeko, nola ekonomia arloan, hala gizarte eta ingurumen arloetan. Irizarreko pertsona guztien gogobetetze eta motibazio maila handiak izatea da, hain justu, kudeaketako bikaintasun kultura bat, lehiakortasun iraunkorra eta Irizar Taldearen etorkizuneko arrakasta lortzeko bidea.

Uste honekin bat etorrita, bakoitzaren gaitasun profesionalak indartzeko ari gara lanean, pentsatuz pertsona bakoitzak eta haren talentua lehentasunezkoak direla, nola gure misioa eta gure erronka estrategikoak, hala mundu hobe eta iraunkorrago bat eraikitzeko dugun helburua egia bihurtzeko.

Kultura ireki eta gardena defendatzen dugu, gehieneko zintzotasuna errespetatzen duten enpresa jarduerak arrakasta iraunkorra lortzeko oinarri posible bakarra direla uste dugulako irmoki. Aurreko kapituluetan esan izan dugun bezala (4. Lehiakortasun Iraunkorra eta 5.1. Iraunkortasun korporatiboaren estrategia eta jarduna), ziur gaude integritatea indartzeko tresna nagusia antolamendu kultura bat dela, printzipio partekatuetan oinarritutakoa eta Irizar osatzen dugun pertsona guztiok onartutakoa. Izan ere, praktika kaskarren, legez kanpoko portaeren eta delituzkoen prebentzio elementu onena baita.

Horregatik, konpainiako arduradun gorenen adibidetik abiatuta, berebiziko garrantzia dauka pertsona guztiokin dugun konpromiso erreala bultzatzen jarraitzeko:

- Bidezko lan baldintzak eskaintzea (Giza Eskubideei dagokienez, zein lan arauei dagokienez), erakargarriak eta epe luzera begirakoak. Baiezta dezakegu Irizar Taldean sartzen diren pertsonen ehuneko handi bat modu iraunkorrean eta egonkortasunez sartzen dela.
- Epe luzerako talentuan inbertitzea. Etengabe lan egitea kalitatea hobetzeko eta enplegua erakargarriago egiteko, bai eta gaitasun handiko langileak txertatzeko, garatzeko eta atxikitzeko ere.
- Pertsona horien etengabeko prestakuntza eta euren bizitza profesionala garatzea sustatzea. Norbanakoaren gaitasunak indartzea, pentsatuz pertsona bakoitza eta daukan talentua lehentasunezkoak direla. Prestakuntza geroz eta handiagoa da, egokitze gaitasuna eta malgutasuna giltzarriak dira aldaketei, ziurgabetasun egoerei eta etorkizuneko erronka berriei aurre egiteko. Digitalizazioa eta automatizazioa ditugu agertoki berriak, eta zalantzarik gabe, horietara egokitu beharko dugu.
- Konfiantza, komunikazioa, lidergoa, partaidetza, autokudeaketa eta taldeko lana sustatzea. Eskainiko den lan ingurunean, pertsona guztiek izango dute enpresa proiektuari ekarpenen bat egiteko aukera, norbanakoak dituen aukeren eta ilusioen arabera.

Uste dugu horixe dela bakoitzak prozesuko bere zatia erantzukizunez, profesionaltasunez eta zorrotz egin dezan bultzatzeko bidea; azken batean, proiektuarekin, misioarekin, bisioarekin, gakoekin eta balio komunekin konprometitutako pertsonak izan nahi ditugu, jarritako erronkak erdiesteko.

- Aukera berdintasuna, diskriminaziorik eza eta Dibertsitatearekiko errespetua babestea.
- Norbanakoaren bizitza kontziliatzeko modua erraztea: pertsonala, familiakoa eta profesionala. Horretarako, ordutegi malguak, lanaldi murrizketa eta laneko eszedentzia baimenak eskainiko dira. Epe luzera osasuna, segurtasuna eta errendimendua zaintzea.
- Sustatzea pertsona bakoitzak modu aktiboan laguntzea ingurumenaren oreka lortzen, gure jardueretatik eratorritako zeinahi inpaktu minimizatzeko eta ingurune naturala zaintzeko lanean arituz.
- Konpainiaren etorkizuneko estrategia formulatzean parte har dezaten uztea, eguneroko eragikeran duten parte hartzetik harago.
- Enpresaren emaitza ekonomikoak kooperatibako bazkideak ez diren langileekin ere partekatzea. Abantaila eta erakargarritasun ugari eskaintzen ditugu, eta horiek, zailtzarik gabe, Irizar Taldea presente dagoen inguruneetako gainerako enpresetatik bereizi egiten gaituzte.



Kalitatezko Enplegua Sortzea


Gure misioarekin bat etorrita

Irizar Taldean dugun estrategia da aberastasuna eta enplegua sortzearen eta hazkundearen aldeko apustu irmoa egitea, presente gauden herrialde eta inguruetako pertsonen bidez. Horrekin bat etorrita, "2. Irizar Taldea ezagutzen" kapituluaren zehaztasunez ikus daitekeen bezala, enpleguaren bilakaera grafikoa da iraunkortasunarekin dugun gure konpromiso estrategikoaren ispilu onena: krisialdiaren unerik gogorrenetan ere (2009an, bereziki), lanpostuen pixkanakako eta etengabeko gorakada.

Enpresaren eraldaketa digitala etorkizuneko proiektu moduan ezarri da, eta eragina izango du gure erakundearen lan arlo guztietan. Horrenbestez, talentu digitalak txertatzeko moduan pentsatu beharko dugu, kudeaketa eta antolamendu kultura berria sortzeko helburuarekin, eta hala, gure pertsona guztiei laguntzeko lan eta ikaskuntza metodo berriak txertatu beharko ditugu.

Enplegua sortzea eta langile taldearen bilakaera


Enplegua sortzea



	Gizonak	Emakumeak	Guztira
2015	701	61	763
2016	714	66	781
2017	728	65	793
2018	770	65	835

2018an, Irizar S.Coop.eko langile taldean 42 pertsona gehiago sartu dira.

Enplegu ertain garbia sortzea




Lortu dugu gure langile taldea handitzen joatea 2014az gero, eta horrek ekarri du 2018an 41 pertsonarentzat enplegu garbia sortzea, eta azken 5 urteetan (2014az gero), 136 pertsonarentzat.

Langile taldearen banaketa, sexuaren arabera

2018an hasitako pertsona gehienak goi mailako graduetako heziketa zikloetatik etorritakoak dira, industria adarretakoak, eta batez ere, industria ingeniariak.

Emakumeak	Gizonak	Guztira
65	770	835
7,78%	92,22%	100%

Langile taldearen batez besteko adina



2018ko txosteneko beste datu batzuk

Langile taldearen batez besteko adina, sexuaren arabera

2013	2014	2015	2016	2017	2018
40,1	40,44	39	39	38	39,27

Langile taldearen banaketa, adinaren arabera

<30	30-39	40-49	>50	Guztira
153	266	313	101	835

Langile taldeko altak, sexuaren arabera

2018an, 61 pertsona hasi dira lanean Irizar S.Coop.en. Horietako 17 goi mailako heziketa zikloetatik etorritakoak dira, eta 78, goi mailako lizentziadunak.

Langile taldeko altak, adinaren arabera

<30	30-39	40-49	>50	Guztira
52	23	3	0	78

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Zuzenekoak	2	59	61
Zeharkakoak	8	9	17
Guztira	10	68	78

Langile taldeko bajak, adinaren arabera

<30	30-39	40-49	>50	Guztira
15	9	0	11	35

Langile taldeko bajak, kategoria eta sexuaren arabera

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Zuzenekoak	0	15	15
Zeharkakoak	9	11	20
Guztira	9	26	35

Enpleguaren kalitatea eta bilakaera

Adierazleek egiaztatzen duten bezala, Irizarren pertsonak txertatzea sustatzen dugu, iraunkortasun eta egonkortasun printzipioetan oinarrituta. Kontratazioaren kalitateari ematen diogu lehentasuna; eta, beraz, gurekin hasten diren pertsonen modu mugagabea egiten dute.

2013an Irizar Trainee Program (ITP) izeneko programa bat jarri genuen martxan, zeinaren helburua baita prestakuntza eta garapen programa bat eskaintzea, profesionalak lanean has daitezen arlo teknikoan, ekoizpenean nahiz marketinean, eta pertsona horiek gure estrategia ulertzean, arlo profesionalean gurekin haz daitezen eta konpainian behin betiko gera daitezen. Industria ingeniari mekaniko, elektriko eta antolaketakoei zuzenduta dago, esperientziarik gabekoak edo urtebete baino esperientzia gutxiagokoak eta kualifikazio maila handia dutenak.

Praktikak eta bekak ere eskaintzen ditugu unibertsitateko hainbat espezialitatetan, eta karrera amaierako proiektua gurekin egiteko aukera ere bai.

Irizar Taldea osatzen duten pertsonak

Gure ingurunekeo lanbide heziketako eskolekin lankidetzan, gurekin praktika profesionalak egiteko aukera ematen diegu goi mailako prestakuntza zikloetako ikasleei. Praktika horiek garrantzitsuak dira ikasleentzat, batetik, barneratu dituzten trebetasunak lantzeko eta, bestetik, enpresa batek nola funtzionatzen duen bertatik bertara jakiteko.

Profesiogramak, hain zuzen, Irizar Taldean hasten diren pertsona guztien jardun eta lidergoari jarraipena eta ebaluazioa egiteko aukera ematen duten tresnak dira. Ebaluazioa egiten zaie hasiberri guztiei: bai txertatu diren lantaldeetako kideek egindako ebaluazioa, bai horien erantzukizun edota egitekoarekin zuzenean harremanetan dauden beste arlo batzuetako pertsonen egindakoa. Ebaluazio horiei esker, pertsonen garapena eta bilakaera neurtu ahal izango da, Irizar Taldean behin betiko sar daitezten.

Pertsona guztiek dituzten bidezko lan baldintza batzuk, ingurunekeo batez bestekotik gorakoak, betiere:

- Pertsonen lana printzipio berberen arabera ordaintzen dugu presente gauden herrialde guztietan. Ordainsaria finkatzean, ez diogu erreparatzen generoari edo jatorriari, baizik eta soilik lanari eta izandako erantzukizunari, bai eta ingurunearen baldintzei ere. Ordainsari maila orokorra oso lehiakorra da, inguruko hitzarmen sektorialetatik gorakoa. Gainera, abantaila eta sustapen garrantzitsuak eskaintzen ditugu hainbat gaitan, hala nola banku, komunikazio, aseguru, bidaia, erregai eta kontsumo arloetan. Horiek denak Kontseilu Errektorearen bitartez bultzatu eta negoziatzen dira.

Bestalde, Irizarrek, elkarte kooperatiboa denez, aukera ematen du bertan diharduten pertsonak bazkideztat hartzeko, aldez aurretik 3 urte bertako langilea edo besteren konturako langilea izan bada.

Langileak bazkide finko gisa onartzea arautzen duten estatutuen arabera, norbait bazkide finko gisa onartzeko, 3 urteko aldian besteren konturako langile gisa jarduteko ezarritako betekizunak bete beharko ditu, eta ondoren iraupen jakineko bazkide izatera pasatuko da. Egoera horretan gehienez ere 4 urte igaroko ditu, eta orduan, bazkide finko bihurtuko da, aldizka egingo zaizkion ebaluazioak (profesiogramak) gaingitu eta gero.


Kontratuen kalitatea (mugagabeak)

2013	2014	2015	2016	2017	2018
95%	90%	83%	81%	84,5%	86%

Pertsonen errotazio indizea (Irizar, S. Coop)

Errotazio indizeak oso txikiak dira Irizarren. Horrek adierazten du gure pertsonak gogobeteta eta motibatuta daudela.

Pertsonen errotazio indizea



Emaizta ekonomikoetan eta kudeaketan parte hartzea

Kooperatibako bazkideek Irizar S.Coop.en emaitzetan parte hartzen dute, baina horretaz gainera, Irizar Taldeko enpresa guztietan, bakoitzaren izen soziala zeinahi delarik ere, pertsona guztiek hartzen dute parte emaitza ekonomikoetan eta kudeaketan.

Gainera, Irizarreko pertsonak etengabe hartzen dute parte erabakietan, autokudeatutako funtzio anitzeko lantaldeen bitartez, nola estrategia lantzeko, hala parte hartzen ari diren kudeaketa prozesuen eguneroko eragikeran aritzeko.

Horretaz gainera, pertsona guztiek parte hartzen dute Irizarren aldian behin egiten ditugun azterketa estrategikoetan, bai eta urtero Taldeko enpresa guztietan egiten diren Batzarretan ere, non estrategia den ezaugarri garrantzitsua.

Pentsamendu Estrategikoak hiruzpalau urtean behin berrikusten dira (kontuan hartuta alderdi ekonomikoak eta sozialak, sektorearenak, merkatuarenak eta lehiakideenak, eta gainerako barne zein kanpo interes taldeenak), eta erakundeko kide guztiek definitzen eta partekatzen dituzte. Urtero, bileren bidez egiten da horretarako, eta egun oso bat ematen da Irizarreko pertsona guztiek Pentsamendu Estrategiko horien gainean duten ezagutza indartzeko.

Analisi honen prozesua hainbat lan bileraren bitartez egiten da. Lehen fase batean, Zuzendaritza Taldeko pertsonak, Kontseilu Errektorekoak eta zuzeneko langileak zein zeharkakoak hartzen dute parte, eta Irizarreko jarduerari eragiten dioten kanpoko eztabaidagaiak aztertzen dituzte, hala nola egoera makroekonomikoa eta sektorearen, merkatuaren eta lehiakideen analisia.

Lehen analisi horretako ideietatik harantzago, hainbat gogoeta egiten dira Irizarren barne egoeraz eta AMIAz (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak) eta, azkenean, gogoeta horietatik ondorio orokorrak ateratu, eta Irizarreko pertsona guztiei helarazten zaizkie, zeintzuei prozesuan parte hartzeko aukera ere ematen zaie; izan ere, iradokizunak eta proposamenak egiteko aukera ematen zaie, jasotako guztia Irizarren lehiarako posizioa hobetzeko ekintzetan gorpuzteko asmoz.

Kontziliaziorako erraztasunak: ordutegi malgutasuna, lanaldi murrizketak eta baimenak

1995. urteaz gero, pertsonen konfiantza eta ordutegi malgu batean oinarritutako kultura bat ari gara sustatzen. Ordutegi malgua dugu, helburu nagusitzat baitauekaguen errendimendua eta finkatutako helburu guztiak betetzea, ez hainbeste langileen presentzia.

Irizarreko pertsonak hainbat aukera dituzte lan bizitza eta bizitza pertsonala kontziliatzeko; esaterako, ordutegi malgutasuna (muga batzuekin), lanaldi murriztuak edota ordaindu gabeko atseden denboraldiak.

Komunikazioa, gardentasuna eta parte hartzea

Enpleguaren sustapena

Hasiberriak

Gure inguruko lanbide heziketako zentro eta unibertsitateekin etengabeko lankidetzan eta harremanetan egoten gara, gazteei enplegurako sarbidea errazteko eta talentua hobetzeko.

Unibertsitateekin izaten ditugun harremanak (UPV/EHU, MU, Deustuko Unibertsitatea, Tecnun, etab.) horien Enplegu Foroen bitartez lantzen ditugu, eta ikasleen prestakuntzan eta laneratzean laguntzen dugu, hitzaldiak ematen ditugu, bai eta master aurreratuetakoko eskolak ere, Unibertsitatearen Ikasketa Planarekin bat etorrita. Horri guztiari esker, alde batetik, unibertsitateko gazteen talentua gure erakundera erakartzeko aukera izaten dugu, eta, bestetik, gure erakundeko profilen ezaugarrien berri ematen diegu unibertsitateei.

2018a bereziki urte bizia izan da zentzu horretan, eta Irizar Taldearen berri eman diegu inguruko lanbide heziketako eskola eta unibertsitate ia guztietako azken mailako ikasleei.

Zalantzarik gabe, horrek asko laguntzen digu Irizar S. Coop.eko enpleguaren kalitateari eta bilakaerari buruzko puntuan zehaztasun gehiagorekin landu ditugun ekimenak egia bihurtzen:

- Irizar Trainee Program (ITP),
- Bekak zenbait unibertsitate espezialitaterentzat,
- Ikasketa amaierako proiektua egiteko aukera,
- Goi mailako heziketa zikloetako praktikak egiteko aukera.

Barne sustapenak

Aukera dugun guztietan, Irizar S.Coop.en barne sustapeneko prozesuak irekitzen ditugu, erantzukizun handiagoko lanpostuak betetzeko. Prozesu horiek hasiberrientzako prozesuen antzeko sistematika eta zorroztasuna, edo handiagoa, izaten dute.

Lidergoa eta taldeko lana

"Taldean lan egiten dugu, eta bezeroarekin eta Taldearen estrategiarekin konprometitutako pertsonak dauzkagu. Eraginkortasuna, komunikazioa, parte hartzea, autokudeaketa eta kudeaketaren bikaintasuna sustatzen ditugu. Ingurune egokiak sortzen ditugu gure proiektuetan dabiltzan pertsona guztiek beren talentu, gaitasun eta ilusioen arabera ahalik eta ekarpenik handiena egin dezaten. Giltzarria da etorkizunean arrakasta izateko".

Eraginkortasuna, komunikazioa, parte hartzea, autokudeaketa eta kudeaketaren bikaintasuna sustatzen ditugu.

Komunikazioa eta gardentasuna

Komunikazioa eta gardentasuna ardatz nagusiak ditugu estrategia korporatiboari, proiektuei, helburuei eta eguneroko eragikeren jarraipenari buruzko informazio eta eza-gutza guztia jariatzea eta partekatzeko. Eta aukera ematen digu hauek publiko egiteko: gertaera garrantzitsuenak, enpresak lortutako aurrerapen eta lorpenak (maila ekonomikoan, sozialean eta ingurumenekoan), sektorearen bilakaera eta jarduera soziokulturalak.

Dena den, funtsean, uste dugu barne komunikazioa dela gure etika eta kultura korporatiboa indartzeko bidea, bai eta pertsona guztiak txertatzeko, gogobeteta zein motibatuta egoteko eta horiek esku hartzeko modua ere. Komunikazio eredu honek aukera ematen digu gure Lehiakortasun Iraunkorrarekin gero eta konprometituagoak dauden pertsonak edukitzeko, eurekin zerikusia duten ekintza eta erabakietan parte hartzeko aukera emanda.

Gure ustez, informazioa pertsona guztiei iritsiko zaiela bermatzeko komunikazio kanal eta egiturak bizirik daude, eta etengabe berrikusten ditugu, nola negozio prozesuen eragikeran, hala gogoeta estrategikoetan (aurretik sako-nago aztertu duguna "Parte hartzea" atalean); betiere, Irizarreko pertsona guztien iritzia kontuan hartuta, nola zuzeneko langileena, hala zeharkakoena.



Etengabeko bi norabideko komunikazio dinamika gure kudeaketa ereduaren parte da, autokudeatutako funtzio anitzeko lantaldeetan oinarrituta, bai estrategia, bai Irizarren eguneroko eragikera lantzeko.

Horretaz gainera, barne komunikaziorako kanal osagarriak ere baditugu. Hauek dira nabarmentzeko modukoak:

a) **Goi mailako foroak, non pertsona guztiek parte hartzen duten**

Zuzendari Nagusiak eta zuzendaritza taldeak zuzenean baliatzen dituzten komunikazio mekanismo nagusiak dira. Horien bidez, informaziorik garrantzitsuena helarazten zaie Irizarreko pertsona guztiei. Urtero egiten direnak:

- **Bi batzar**, non gai estrategikoak, urteko ekintza planak eta kooperatibari buruzko lege gaiak lantzen diren. Batzar horiek irekiak dira Irizar S.Coop.eko pertsona guztientzat, nahiz eta botoa soil-soilik bazkide langileek izan. 2018ko bi batzarretan, 2019rako gure iraunkortasun estrategiaren puntu giltzarriak landu eta onartu ditugu:
- Irizarren Kode Etikoa ezartzeko bidean aurre-irapauso irmoak ematen jarraitzea. Horrek ekarri du gure Printzipio Etikoak eta Portaera Gidalerroak sakon aztertu behar izatea, gerora, hornidura kate orokorrean parte hartzen duten gure kanpoko interes talde nagusiei zabaltzeko. Hitzartutako Printzipio Etikoak eta Portaera Gidalerroak taldeko enpresa guztientzat bateratuak izan daitezen ahalegintzen gara.
- Agenda 2030era hurbiltzen jarraitzea, eta Garapen Iraunkorrerako Helburuei (GIH) egin behar diegun ekarpena lantzea.
- **Bezero Lerroko Lantaldeen bilerak**, non funtsean eguneroko jarduerari jarraipena egiten zaion, hiru hilean behin, proposatutako urteko helburuen arabera. Zuzendaritza taldeko kideek edo bestelako lantalde edo arlo funtzionaletako arduradunek aurkezten dute. Bilera horietan, Zuzendaritza Nagusiak aukera dauka erakunde-ko pertsona guztiekin egoteko, eta pertsona horiek aukera dute, era berean, langile izateagatik zuzenean beraian eragina duten galdera edo kezka guztien berri emateko. Gogobetetzetik ez, iradokizun edo proposamen oro jasotzen da, aztertzeko eta konponbideren bat emateko.

- **Kontseilu Sozialaren bileretako aktak** (pertsona guztiak ordezkatzeko ditu), non Kontseilu Errektorearen bileretan hartutako erabakiak jakinarazten diren. Horko aktak hileroko argitaratzen dira. Eguneroko jarduerako gaiez eta hileko egoera ekonomikoaz gainera, Segurtasunari eta Osasunari, ingurumenari eta gizarte gaiei buruzkoak ere lantzen dira.

b) **Bestelako komunikazio bide batzuk**

- **TB pantailak**. Atsedeneleku guztietan daude jarrita, informazioa osatzeko edo informazio estaldura handiagoa izateko: sektoreko albiste orokorrak, albiste ekonomikoak, argazkiak, Irizarri eta hango pertsonei buruzko bideoak, iraunkortasun kultura eta estrategia, bisitak gure instalazioetara (bezeroak, erakundeak eta hedabideak), eta lankidetzak eta laguntzak kulturari, kirolari, GKEei, etab.

2018an, iraunkortasunez erabili ditugu bideoak, kanpainak, mezuak eta Irizarrek gai hauetan egindako jarduerak zabaltzeko: Agenda 2030, GIH, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 70. Urteurrena, Genero Berdintasuna, etab.

- **Informazio zentroak eta iragarki taula elektronikoak**. Instalazioetan, sarbide eta ikusgaitasun handiko puntuetan, komunikazio zentroak eta iragarki taula elektronikoak jarri ditugu. Horietan, aukera dago kalitateari, barne komunikazioari, lantegiaren irudiari, segurtasunari, osasunari, iraunkortasunari eta ingurumenari buruzko gaiak zintzilikatzeko.

- **Irinet**. Irizarren Intraneta da, Irizarren zabalduetako informazio guztia metatzen eta zentralizatzen duen tresna. Aldi berean, eguneroko kudeaketatik haratago doazen zerbitzuak eskaintzen ditu, kultura jarduerak eta hiztegiak barne.

- **Barne aldizkaria - Irizar Berriak**. Irizarren aldizkaria tresna eraginkorra da, ez soilik Irizarren lanean ari diren pertsonentzat, baizik eta baita senitarteko eta erretirodunentzat ere. Bezeroei zuzendutako kanpo komunikaziorako jarduerarekin lotutako alderdiei buruzko informazio bidea sortzeko helburua dauka, eta baditu intereseko atalak ere publiko orokorarentzat. Sei hilean behin edo urtean behin argitaratzen da, bi hizkuntzatan.

Heziketa eta prestakuntza

Marka, Teknologia eta Iraunkortasunaren arloetan ditugun erronka estrategiko handinahiei aurre egin ahal izateko, jakin badakigu honako hauei erantzun behar diegula: gero eta handiagoa den eskakizun teknologikoari, gero eta konplexuagoa den gure jarduerari eta gure balio kate osoari (merkataritza, diseinua eta garapena, produktuak eta zerbitzuak gauzatzea, etab.).

Etorkizunari aurrea hartzeko dugun gero eta premia handiago honek inoiz baino prestakuntza handiagoa eta espezializatuagoa eskatzen du, urtero heltzen diegun erronka berrietara eta aldaketetara egokitu ahal izateko. Bide horretan, kalitatezko heziketaren aldeko lana egiten du etengabe Irizarrek.

Pertsonetara egokitutako diziplina anitzeko prestakuntza planak jartzen ditugu martxan, pertsona horien kualifikazioa, profila eta balioaniztasuna zaintzeko asmoz, ulertuz horrek guztiak, inolako zalantzarik gabe, gure produktu eta zerbitzuen kalitateari buruzko ezagutza handituko duela eta gure lehiakortasun iraunkorra hobetuko duela.

Izan ere, berrikuntza gure kulturaren parte da, eta handitu egin nahi ditugu gure ezagutzaren mugak, egiazki desberdinak izango diren produktuak eta zerbitzuak sortzeko modu berriak ezagutu nahi ditugu, beti joan nahi dugulako pauso bat aurretik, eta gure gogoeta estrategikoetatik eta gure interes taldeen ideia zein iradokizunetatik sortzen diren prestakuntza premiei erantzun behar diegulako (urtekoak zein epe ertain zein luzeak).

Barne komunikazioari dagokionez, nabarmendu beharrekoak:

- **Hasiberrien harrera plana**, non enpresan modu eraginkorragoan txertatzeko modua erraztuko duten heziketa eta prestakuntza jardunaldi batzuk jasoko diren: Irizarren kultura eta estrategiaren ezagutza, Kalitate eta Ingurumen, Segurtasun eta Laneko Osasunari buruzko Sistema Integratuak, bai eta bestelako barne politika eta araudi batzuk ere.
- **Zuzeneko langileen balioaniztasunerako prestakuntza**. Horrek dakar pertsona horien ezagutza teoriko eta praktikoak ugaritzea, beste lanpostu batzuetako lana ere bete ahal izateko. Langile bakoitzaren lehentasun pertsonalei erantzuteko, merkatuko eskaera berriei aurre egiteko eta gure produktu zein zerbitzuen kalitatea hobetzeko aukera ere ematen du, bai eta langileen ergonomiari dagokionez prebentzioz jokatzeko aukera ere, gorputz jarretan aldaketak proposatuz eta banakoaren segurtasun eta osasunaren aldeko neurriak hartuz.
- Irizar Taldeko hainbat herrialdetako enpresa eta ekoizpen **lantegietako pertsonen arteko etengabe**

fluxua, honako hauek lortzeko: proposatutako ildo estrategiko eta lan ildoen baitan gauzatzen diren jarduera eta ekintzetan dauden sinergiak bultzatzea eta horiei etekina ateratzea, ezagutzak eta gaitasunak ugaltzeko helburu nagusiarekin, bai eta etengabeko prestakuntza egitea produktu eta zerbitzuetan, kudeaketan, irudian, iraunkortasunean edo teknologia ezartzean txertatzen diren alderdi, berrikuntza eta irtenbide guztietan ere.

- Zuzeneko langileen fabrikazio prozesu kritikoetan (soldatzea, itsastea eta pintura) **etengabeko prestakuntza eta kualifikazioa**, gure hornitzaileen edota kanpoko enpresa espezializatuen laguntzarekin.

Barneko prestakuntza planak osatzeko, etengabeko prestakuntza programak egiten dira, kanpoko profesionalen eskutik. Horien intentsitatea eta edukia aldakorragoa da, eta lotura handiagoa daukate ikuspegi estrategikoak aldatzearekin, produktu eta zerbitzuen ildo berriekin, merkatu berriekin eta antzekoekin. Taula honetan ikus dezakegu programa horien bilakaera kuantitatiboa. 2018an, prestakuntza hauek nabarmendu ditzakegu bereziki: hizkuntza eta ibilgailuen funtzionamendua.

	Orduak	Pertsona kopurua
2013	5779	210
2014	6551	264
2015	4701	166
2016	4546	222
2017	4119	236
2018	3122	135

Prestakuntza profesionalaz haratago, langileak sentsibilizatzeko, prestatzeko eta aberasteko ekimenak ere gauzatzen ditugu. Horien artean, hauek dira nabarmentzeak:

- Modu eraginkorrean gidatzeko ikastaroak.
- Lehen laguntzei buruzko ikastaroak.
- Bizi ohitura osasungarriari buruzko foroak.
- Iraunkortasunarekin lotutako sentsibilizazio ikastaroak eta kanpainak: giza eskubideak, ingurumen alderdiak, aukera berdintasuna, etab.



Genero berdintasuna eta dibertsitatea

Dibertsitatearekiko errespetua, genero berdintasuna, enplegua diskriminaziorik ez egotea, elkarrizketa, garapen profesionala eta eza gutzen elkartrukea dira gure lehentasunak, eta hori langile berriak sartzeko dugun politikan eta gure estrategia korporatiboan islatzen da.

Irizarren sartzan diren pertsona berri guztiek baldintza berberak dituzte –lansariak barne–, baldin eta erantzukizun berdineko lanpostuak betetzen badituzte. Printzipio hori Irizar Taldeko kode etikoa eta langile politikan dago txertatuta.

Diziplina anitzeko lantalde bat daukagu, zeinaren helburua den zuzendaritza eta kudeaketa taldeetan emakumeen parte hartzea ugaltzeko programetan sakontzen jarraitzea. Era berean, lanean jarraitzen dugu, berdintasun plan moderno bat izateko.

Bide beretik, inguruko heziketa zentroekin lankidetzan dihardugu, gero eta ikasle gehiagok egin ditzaten praktikak enpresan. Irizar S.Coop.en praktikak egin dituzten goi mailako heziketa zikloetako ikasleen %25etik gora emakumeak dira. Gure printzipio etikoen arabera, adina ere ez da muga Irizarren pertsonak lanean has daitezen.

Dibertsitateari dagokionez, hauxe jasotzen dute gure estatutuek: “Baztertzeko arrazoiak ez dira izango ideia politikoak, sindikalak edo erlijiosoak (ez eta hautagaiaren arraza, hizkuntza, sexua edo egoera zibila), ez bada printzipio eta antolaketa kooperatiboaren eta Irizar S. Coop.en helburu, konpromiso, balio eta printzipioen nabarmen kontrakoak direla”.

Nazioarteko taldea garenez gero, dibertsitatea gure kulturaren parte da, eta balio aberasgarritzat daukagu. Horri esker, mundu osoko gure interes taldeen premia eta nahiak hobeto ezagutu ditzakegu, behar izanez gero, gure produktu eta zerbitzuak horien premietara hobeto egokitzeke.

Gure lantaldeko pertsona batzuk munduko ekoizpen lantegietan ari dira lanean, Irizar Taldeko egoitza zentralarekin elkarreaginean. Pertsona horiek nazioarteko bezeroengandik hurbilago daude. Era horretan, mundu osoan Irizar marka indartzea lortzen dugu, eta kanpoko proiektuak lehiakorragoak izatea.

Lantegien arteko pertsonen etengabeko fluxuaz gainera –aurreko puntuan landu dugu hori–, Irizarrek nazioarteko merkatuetan dituen ekoizpen lantegietan sortzen diren sinergieiei etekina ateratzen diegu, Taldeko gainerako enpresak Irizarrek presentzia duen herrialdeetan ezartzeko. Era horretan sortu dira Hispacold eta Masats, Mexikon; bai eta Jemak Brasilen, Mexikon eta AEBn garatutakoak ere.

Gure instalazio guztiak desgaitasunen bat daukaten pertsonen irisgarritasunera moldatzeko moduan horniturik daude. Eta zentzu horretan, gure filosofia da minusbaliotasunen bat duten pertsonak hartzen edo kontratatzen dituzten enpresa edo kolaboratzaileekin lan egitea.

Mugikortasun eraginkorra eta iraunkorra

Zuzendaritza Nagusitik garraio kolektiboa bultzatzen ari gara, CO2 igorpenak murrizteko eta pertsona guztiak eraginkortasun eta ingurumen gaian sentsibilizatzeko.

Kontseilu Soziala ere bizikletak hornitzen dituzten enprekin hitzarmenak egiten hasi zen 2018an, diruz lagundutako bizikleta elektrikoak pertsonen esku jartzeko, oso prezio lehiakorretan. 2019an gauzatutako hitzarmenak.

Jardun horiek Irizarrek ingurumenarekin eta bizimodu osasungarriarekin duen konpromisoaren baitan daude bilduta.



Segurtasuna eta Osasuna

Gure pertsonekin landutako iraunkortasun estrategia eta jardunari buruzko azken atal hau da, inolako zalantzarik gabe, garrantzitsuenak.

Laneko arriskuen prebentziorako sistema

Irizar S.Coop.en laneko arriskuen prebentziorako sistemak (Irizar Taldeko beste enpresa batzuetakoak bezala) lehen-tasuna ematen dio pertsonen segurtasunari, beharrezko baliabideak eskaintzen dizkion beste edozein alderdiren aurretik. Eguneroko lanarekin zerikusia duten istripu eta gaixotasunen prebentziorako neurri guztiak biltzen ditu. Istripuak prebenitzeko gure oinarritzko tresna da lanpos-tuen eta lan prozesuen arriskuak ebaluatzea.

Irizarrentzat segurtasun eta osasun estrategiaren ga-rantzia honako hauetan nabarmentzen da:

- Batzar guztietan lehen-tasuna ematen zaiola. Osasuna hobetzeko ekitaldian zehar egindako inbertsio zein ekintza eta adierazleen datuak.
- Segurtasun eta osasun batzordean duela 25 baino gehiago ezarritako istripu eta intzidentzia guztien jarraipen dinamika, etengabe eta maiztasun jakin batekin gauzatzen diren barne zein kanpoko auditoria eta ikus-kapenen emaitzak (segurtasuna, osasuna, instalazio guz-tietako segurtasun industrial...) eta osasunari eragiten dioten hobekuntza proposamen guztiak.

o Batzorde horren buru Segurtasun eta Osasun Ar-duraduna da (Zuzendaritza Taldearen menpe dago), eta Batzordeak atal horien guztien kudeaketa orokorra gau-zatzen du hilero.

o Batzordeko kideen artean daude Zuzendari Nagu-sia, Pertsonaleko Zuzendaria eta kooperatibako Kontseilu Errektoreko lehendakaria, bai eta segurtasun eta osasun arloarekin zerikusia duten beste eremu batzuetako kideak ere. Helburua da, zehazki, laneko segurtasun eta osasun arloko lege baldintza eta jarraibide guztiak betetzen direla bermatzea.

o Batzorde irekia da, non parte hartu ahal izango duen hala nahi duen Irizarreko edozein pertsonak.

- Lesio, istripu eta intzidentzia guzti-guztiak az-tertzen dira. Esparru horretan, ekintza ugari jarri dira mar-txan, eta 497.500 € inbertitu dira 2018an, eta 1.000.000 €-tik gora azken hiru urteetan. Horri esker, segurtasuna handitu da, eta ondorio larriak ekar ditzaketan arriskuak murriztu.


Irizarreko prebentzio zerbitzua Osartenen zerbitzu mankomunatua da (prebentzio zerbitzu mankomunatua), non Irizarrek prebentzio jarduerak dauzkan txertatuta es-pezialitate hauetan: Segurtasuna, Higienea, Ergonomia eta Psikosoziologia eta Besteren Prebentzio Zerbitzua, Quiron Prevencion-ekin, Prebentzio Medikuntzaren es-pezialitatean.

Gure helburua da Irizarreko pertsonen ahalik eta arrisku potentzial gutxien izatea segurtasunari dagokionez. Ho-rretarako, diseinu, ergonomia, ingeniari-tza eta adminis-trazio jarraipen egokiak egiten dira, bai eta prebentziorako mantentze lana eta enplegu segururako, lanpostuen erro-taziorako eta segurtasunari buruzko etengabeko pres-takuntzarako prozedurak ere. Arriskuak ezin badira behar bezala kontrolatu baliabide horien bitartez, norbera ba-besteko ekipamenduak ematen dizkiegu pertsonen.


Segurtasun eta Osasun taldeak hauek jartzen ditu pertso-nen eskura: segurtasunarekin lotutako planak, argibideak eta prozedura giltzarriak, prebentzioan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutakoak. Jarraibide horiek erantzuki-zunez jokatzeko azpimarratzen dute, eta pertsona guztiek neurri horietan modu aktiboan parte hartu behar dutela nabarmentzen dute. Hainbat baliabideren bitartez sar dai-tezke pertsonak informazio horretara, ekoizpen arlo guz-tietan dauden ordenagailuak barne.

Pertsonak dauden arriskuekin kontzientziatzeko ekime-nak ere gauzatzen ditugu, laneko segurtasunaren kultura, prestakuntza, tailerrak, komunikazio kanpainak, etab. bar-neratzeko.

Maiztasun indizea (istripu kopurua, lan egindako orduen arabera)




Intzidentzia indizea (istripu kopurua, enplegatu kopuruaren arabera)



Maiztasun indizea (istripu kopurua, lan egindako orduen arabera) hobetu egin da 2018an, bereziki honako hauen eraginez: egindako inbertsioak, gertatutako istripu eta intzidentzien jarraipena, norbera babesteko ekipamenduetan egindako hobekuntzak, eta horien erabilera ugaltzeko egindako sensibilizazio kanpainak.

Larritasun indizea (lan istripuengatik lan egin ez diren egunak, lan egindako benetako ordu kopuruaren arabera)



2018an, Larritasun indizea ere hobetu egin da (baja eragin duten lan istripuengatik lan egin ez diren egunak, lan egindako benetako ordu kopuruaren arabera); izan ere, ohiko istripuak arinak izan dira: objektuekin egindako kontusioak, tiraldiak eta zaintiratuak.

Baja eragin duten lan istripuak

	Pertsonak	Baja eragin duten istripuak
2013	702	79
2014	754	70
2015	786	70
2016	778	67
2017	791	77
2018	836	82

Dena den, lan gaitasun handiagoaren (2018an 2017an baino ordu gehiago egin dira lan) eta merkaturako eskaerari aurre egiteko sartu diren hasiberrien eraginez, 2018an gora egin dute intzidentziek (istripu kopurua, enplegatu kopuruaren arabera) eta baja eragin duten istripuek.

Arrazoi horiei buruz egin dugun azterketa zorrotzean, egiaztatu dugu hasiberrien artean istripua izan dutenen kopurua handitu egin dela aurreko urtearen aldean. Etorkizunean hala izan dadin prebenitzeko, hasiberriei ematen zaien 2019-20ko Segurtasun eta Osasunaren arloko Prestakuntza Plana hobetzea aurreikusi da.

Gure helburua da etorkizunean ere aurrerapausoak ematea, pertsona guztien esku hartzearen bitartez, eta laneko segurtasun eta osasunaren arloko ISO 45001 ziurtagiriari heldzea ere badugu aurreikusita.

Ergonomia eta konforterako programak

Pertsonen ergonomia ezin hautsizko dogma da produktu edota ekoi-
zpen prozesuetan ezein berrikuntza aplikatzean, helburu nagusitzat
hartuta lanpostua pertsonetara egokitzea.

Gure erantzukizuna da etapa kontzeptualetik bertatik alderdi horiek lantzen hastea. Arlo horretan behar besteko inbertsioak egiten ditugu, lesio posibleak prebenitzeko. Urteak daramatzagu beharrezko inbertsioak eginez, eta ahaleginak egiten lanpostu guztiak ahalik eta ergonomia handienarekin hornitzeko, kasu askotan pertsonen partaidetzaren bidez garatu eta pentsatutako irtenbideetan oinarrituta, lesio posibleak prebenitzeko asmoz.

Irizarreko ergonomia programak prebentzio neurri gisa dauka jasota lanpostuak erro-
tatzea, beharrezkoa den kasuetan (desgaitasun fisikoak, osasun kaskarra, zahartzaroa, etab.). Lan ebaluazio eta hobekuntzak egiten ditugu etengabe, zeintzuen eraginez neu-
rriak ezartzeko egin beharreko inbertsioak ugaltu egin diren (tresnak, grabitaterik ga-
bekoak, manipulazio orgak, kanpoko fabrikazioak...), zamen manipulazioa murrizteko eta
mugimendu errepikakorrak gutxitzeko. Era berean, konfort termikoa hobetzeko inbert-
sioak ere egin ditugu.

Jarraian, azken urteotan hartutako neurrien laburpen bat deskribatuko dugu. Neurri ge-
hienak Irizarreko pertsonen partaidetzaren bidez diseinatu dira espezifikoki, ergonomia
eta laneko osasunaren arloetan baldintza ezin hobeak eskaintzeko asmoz:

Ergonomia

- Sabaietako txapa konformagailuetarako lan pla-
taformak.
- Sabaiak fabrikatzeko iraulgailuak eta sabai hodie-
tako manipulagailuak.
- Goragailuen instalazioa eta horien erregulazio sis-
temen egokitzapena, egituren soldatze lanetako gorputz
jarrera hobetzeko eta segurtasuna hobetzeko.
- Aluminioz fabrikatutako konformagailuak, pisuak
arintzeko.
- Eskuzko manipulagailuak, txapa eta muntaketa
guneetan zamak erabili behar diren prozesuetarako.
- Aurreko eta alboko beiren manipulazioa, grabita-
terik gabeko sistemekin.
- Ibilgailuaren zutabe bidezko goratze sistemak,
hobekuntza ergonomikoak lortzeko.
- Ibilgailuetan eserlekuak sartzeko manipulagailua.

Higienea

- Sabaiak fabrikatu eta muntatzeko gunean egin-
dako inbertsioak, lurrungailuak instalatu eta horrela ero-
sotasun termikoa lortzeko.
- APQ10 produktu kimiko guztiak biltegitratzea.
- Produktu kimiko kritikoak kaltegarriak ez direnekin
ordezkatzeta.
- Pintura eta armadura prozesu guztietan arnaske-
ta ekipamendu motordunak ezartzeta, erabateko babes-
arekin.
- Gune kritikoetan push and pull xurgapen ekipa-
mentuak ezartzeta, eta ibilgailu gainean zintzilik egin be-
harreko lanetarako ekipamenduetako xurgapenak.
- Kutxa lixatzeko lanetako xurgapenerako huts al-
tuko ekipamenduak.
- Automatizazio hobekuntzak kabinetan, esposizio
higienikoa gutxitzeko.
- Iragazkien egoera kontrola, jakinarazpen automa-
tiko bidez (4.0).
- Hautsa arnastu behar izaten duten lanetarako
xurgapenak.

Segurtasuna

- Babes kolektiboen instalazioa, kabinen mantent-
ze lanetarako.

Instalazioetan ere hainbat hobekuntza egin dira, ahalik eta ergonomia, konfort termiko, higiene eta pertsonen osasun maila handienak lortzeko:

- Instalazio guztiak klimatizatu dira, eta horrek eragina du lanpostu guztietan. Era berean, hobekuntzak egin dira lan eremu batzuetan haize lasterrak saihesteko; horrenbestez, Irizarreko pertsonen tenperatura eta lan giro aldetik baldintza ezin hobeak izaten dituzte, nola neguan, hala udan.
- Argiztapen sisteman LED teknologia orientagarria txertatu da, lantokietan lumenak ugaltzeko asmoz.
- Xurgapen sistema orokorrak jarri dira, lanpostuetako giro higienikoa hobetzeko.
- Itsasgarriarekiko esposizioa duten lan guztietarako, kolaztatze kabinak ezarri dira.
- Langile guztiei eman zaizkien babes baliabideen bitartez, pintura ataleko baldintza higienikoen hobekuntza, eragile kimikoekiko esposizioa balio hautemanezinetara txikituz.
- Desfibriladoreak erosi, eta Irizarren egoitza nagusiko instalazio eta eremu guztietan jarri dira.

Erabiltzen diren arropa eta ekipamendu guztiek UNE arau espezifikoak betetzen dituzte. Pertsonen zuzenean parte hartzen dute arropa eta NBEak aukeratzeko eta hobetzeko lanetan, eta kudeaketa lanak hornitzailearekin etengabe harremanetan dauden ekipo banatzaileen bidez egiten dira. Era horretan, NBEak eskatzeko sistema mugagabea ahalbidetzen da, erabateko trazabilitatearekin.

Erregularoki egiten diren segurtasun eta osasun jarduerak guztiekin batera, eta arestian laburbildutako inbertsioekin batera, 2018an egindako inbertsio berrien artean hauek dira nabarmenezkoak:

Ergonomia

- Osagarri eta tresna berriak, hobekuntza ergonomikoetarako.

Higienea

- Kanpoko airea berriz zirkulazioan jartzea, pintura prestatzeko kabinetan, lurrungailuen bidez.
- Instalazio berri bat abian jartzea, maletategiak pintatzeko lanak gauzatzeko.
- Kabinan sabaiak lehertzeko prozesuetan airea ateratzea.
- Xurgapen eramangarri bat abian jartzea, akaberrako barnealdeetan ukituak emateko, modelo berriek dituzten premiei erantzun ahal izateko.
- Sabai eta armada fabrikazioan, konfort termikoa hobetzeko instalazioak.

Segurtasuna

- Hobekuntzak suteak detektatzeko sistemetan,

araudi berrira egokitzeko, sabaiak eta txapa fabrikatzeko eremuetan eta akaberan.

- Suteen aurkako instalazioaren hobekuntza (ihintagailuak), egiturak pintatzeko kabinetan.
- Orga jasotzaileen bateriak ur destilatuz automatikoki betetzea.
- Sabaien fabrikazioan nitrogeno bloke bat instalatzea, botilatzarrak daramatzan orgaren erabilera ordezkatzeko.
- Pintura kabinetan barandak ezartzea, guztion babesa hobetzeko.
- Biltegi berrian materiala erortzea saihesteko babesa osatzea.

2018an, eraldaketa digitalerako edo 4.0 industriarako lehenengo pausoak eman dira, honako hauekin:

- Lixatzeko makina automatikoaren diseinua eta fabrikazioa, kaxak lixatzeko pintura gunean.
- Txaleko exoeskeletoak eskuratzea.
- Horiekin zerikusia duten arloei prozesu kritiko edo ekipoei buruzko komunikazioak jakinaraztea.

Baiezta dezakegu higiene eta ergonomia zein konfort neurrietan Irizarren maximoetan gabiltzala, lege eskakizunetatik oso gora, eta sektoreko inguruko beste enpresa batzuk egiten ari direnetik oso gora.

Eta gure asmoa da ildo horretatik jarraitzea, pertsona guztien esku hartzearekin. Hala, lan baldintzak eta instalazioak hobetzeko 2019rako planifikatutako helburuen artean, hauek dira azpimarratzekoak:

- Instalazioak araudi berrietara egokitzea, eta, gero, suteen aurkako babes instalazioetan industria berrikustea.
- Beheko solairuko bulegoetan eta tailerrean klimatizazio berriaren kontrol sistema, giroa hobetzeko.
- Kabinen automatizazioa, egitura pintatzeko kabinak eta SAT barne hartuta.
- Egiturak pintatzeko kabinaren suteen aurkako instalazioa.
- LAPen kudeaketa programa berria, eta oraingo sistemako datuak berrira lekualdatzea.
- Web orrian mantentze lanak aplikatzea.
- Klima ekipamendu guztiak lehendik dauden industria espedienteetan erregistratzeko eta metatzeko proiektu berria.

Bestelako ongizate eta osasun zerbitzuak

- **Arreta medikoa pertsonentzat (okupazionala eta larrialdietakoa).** Irizarrek zerbitzu medikoak eta zaintza zerbitzu osotuak eskaintzen dizkie bertan diharduten pertsona guztiei. Instalazioetan zerbitzu mediko bat daukagu. Bertan, behar besteko baliabideak daude osasun orokorreko arazoak eta gaixotasun profesionalak prebenitzeko neurriak hartzeko, laneko osasuna zaintzeko eta lesioekin eta istripuekin zerikusia duten gaixotasunak eta gaixotasun akutak diagnostikatzeko eta tratatzeko.

Osasun zaintzarako zerbitzuaren bitartez, aldizkako azterketa medikoak egiten dira, eza-rritako protokoloen arabera, osasuna prebenitzeko modu gisa.

- **Fisioterapia zerbitzua.** Instalazioetan, eguneroko fisioterapia zerbitzu bat ere badaukagu, gorputz jarrerazko arazoen eta zahartzaroaren prebentzio neurri gisa.
- Bestalde, Irizarreko pertsonen osasun eta hortz asistentziarako aseguru partikular batzuk dituzte, estaldura bikainekin gainera, Espainian erreferenteak diren konpainiekin. Zerbitzu osagarri gisa, zuzeneko senitartekoen osasun eta hortz asistentzia estaltzeko aukera eskaintzen du, oso baldintza abantailatsuetan.
- Paraleloki, Irizarrek bizi ohitura osasungarriak sustatzeko lan etengabea gauzatzen du, kanpainen eta aholkularitzaren bidez. 2017an, "Ohitura Osasungarrien Programa" bat gauzatu zuen, balio osasungarriak transmititzeko eta osasuna hobetzen laguntzeko, nola eremu pertsonalean, hala lan eremuan. Programa lau astetan banatu zen: Elikadura Garbiaren Astea, Jarduera Fisikoaren Astea, Motibazio, Estresaren Maneiu eta Mindfullnes Astea eta Zahartzearen Aurkako Astea.

www.asisa.es/irizar-saludable

Horren lekuko dugu fruta, zeina atseden guneetan langile guztiek eskuratzeko moduan jarri baita.

- **Jangela.** Irizarrek jangela zerbitzu propioa dauka, eta pertsona guztiei eskaintzen die elikagai zaindu eta osasungarri zein kalitatezkoa jateko aukera; tartean, bertako baserri eta saltokietatik eskuratutako lehengai freskoak.

Enpresako jangelan, etengabeko hobekuntzak egiten dira menuan eta sukaldaritza metodoetan (gatza, olio, frijituak etab. murriztea). Horrek harrera bikaina izan du pertsonen artean, eta jangela zerbitzuan nabarmen handitu da bazkaltzarren kopurua.

Era berean, TB pantailen bitartez, elikadura ohitura onak sustatzen dira. Tartean, entsalada; izan ere, enpresako jangelan entsalada buffeta jarri da martxan, eguneko menuaren osagarri gisa.

- Jarduera fisikoaren sustapena ere egiten da, pertsonen Donostian Irizar ordezkatzeko eta honako hauetan parte hartzeko aukera izan dezaten babestuz: Enpresen Lasterketa eta Busti Zaitetz (igeriketa).



Kanpo kolaboratzai- leak, hornidura katea eta aliantzak

5.4.1 Industria dibertsifikatzeko estrategia: erosketa, aliantza edo lankidetza

5.4.2. Salmenta eta salmenta osteko gure sarea

5.4.3 I+G - Etorkizuneko proiektuak

5.4.4. Beste lankidetza batzuk, enpresako sektoreekin

5.4.5. Hornikuntza katea

- Gure hornitzaileentzako baldintzak
- Prozesu arduratsua hornidura katean
- Bateriak

5.4.6. Etengabeko elkarrizketa hornitzaileekin eta lankideekin

5.4.7. Talde mailako logistika optimizatzekeo proiektua



Kanpo kolaboratzaileak, hornidura katea eta aliantzak

Gure enpresa estrategiarekin bat etorritik, era askotako kanpo kolaboratzaileekiko aliantzek gero eta garrantzitsuagoa den rola jokatzen dute Irizarren lehiakortasun iraunkorrean.

Kanpo kolaboratzaileekin ezarriak ditugun lankidetzak mota eta atal honetan jasota geratu den hornidura kateaz gainera, pertsonen eskaintako atalean unibertsitateekin eta heziketa zentroekin egindako hitzarmenak jasotzen dira; gizarteari eskaintako atalean, berriz, nazio eta nazioarte mailako ingurune sozialean ditugun hitzarmenak biltzen dira.

Industria dibertsifikazio- estrategia: erosketa, sal- menta osteko sarea aliantza edo lankidetzak

Irizar Taldeak 2009an dibertsifikazio estrategia bat hasi zuen, bai existitzen diren enpresak geureganatuta bai berriak sortuz, beste merkatu batzuei edo negozio lerro berriei erantzuteko, eta, hala, Irizar S.Coop. eta Taldea sendotzeko, eta era berean, arriskuaren kontzentrazioa minimizatzeke.

Estrategia honi esker, gaitasun eta sinergia berriak garatzen dira taldean, eta negozio berriak, aberastasuna eta enplegua sortu, misioarekin bat etorritik.

Dibertsifikazioak kontuan hartuko ditu Irizar Taldeari zuzenean eragin diezaioketen faktoreak, bai eta arrisku ekonomikoak, jardura berri bati lotutako ziurgabetasunei dagozkien arriskuak, ziklo ekonomiko eta politikoen eraginpetik eratorritakoak eta teknologia jakin batzuetarako sarbide oztopoak edo zailtasunak dakartzatenak.

Proiektu berriak sartzean, egokitasuna jarriko da presaren aurretik; teknologia transferitzeko edo kanpoan enpresak sortzeko proiektu posibleak ebaluatuko dira, taldeko zeinahi produktuentzat, epe luzeko bideragarritasun eta errentagarritasunaren menpe; eta garapen potentzial handiko beste sektore edo segmentu batzuetan sartzeari lehentasuna emango zaio.

Gure salmenta eta sal- menta osteko sarea

Munduan zehar etengabe zabaltzen ari gara gure salmenta eta salmenta osteko sarea; horregatik, lankidetzak eta aliantzak ditugu banatzaileekin eta bazkide komertzialekin, zeintzuek bezeroarengandik hurbil dagoen zerbitzua eta banaketa eskaintzen dizkiguten mundu osoan presente gauden merkatuetan.

Gainera, salmenta osteko zerbitzu eskusibo eta bermezko bat ezartzea erabaki dugu elektromugikortasun irtenbideak dituzten hirietan, R&M pakete pertsonalizatuekin (konponketa eta mantentze lana). Modu osotu eta zentralizatuan, aditu tekniko eta tokian kontratatutako pertsonen kudeatzen dute, eta, hala tokiko aberastasuna eta enplegua sortzen da.

I+G – Etorkizuneko proiektuak

I+G Creatio Zentroa dugu (Irizar Innovation Center), Taldearen egoitza zentrolean kokatua. Ikerketa aplikatuko gaitasunak eta Taldeko enpresen arteko lankidetzan garapen teknologikoa bultzatzen aritzen da, nola marka propioko bere produktuetarako, hala autokarren osagai nagusietarako. Creatiok gidatzen dituen proiektuetan ere kanpo eragileek kolaboratzen dute.

Talde barneko jarduera horiez gainera, lankidetzak egiten ditugu kanpoko zentro teknologikoekin eta ikerketa zentroekin, gure ezagutza eta teknologia osa dezaten: CEIT, CIDETEC, CIKATEK, IDEKO, IDIADA, INSIA, IK4-AZTERLAN, IK4-LORTEK, LEARTIKER, TECNALIA, VICOMTECH, etab. Beti Taldea indartzea eta Lehiakortasuna hobetzea bilatzen. Lankidetzan lan honek lehenetik dauden produktuak hobetzen laguntzen du, bai eta abangoardiako produktu eta irtenbide berriak garatzen ere, presente gauden negozio arlo guztietan.

Taldea osatzen duten beste enpresa batzuekin batera, aktiboki parte hartzen dugu, Europako marka handien eskutik, etorkizuneko hirien eta bidaiarien garraio publikoaren mugikortasun iraunkorrerako garrantzi handia duten europar proiektuetan. Ikus Proiektuen atala, hemen: Bezeroak, produktuak eta zerbitzuak.

Hornitzaileak ere funtsezkoak dira etorkizuneko helburuak lortzeko. Aliantza eraginkorrrak eratzea sustatzen dugu. Hornitzaileekin lotura hertsia izan behar dugu, gure sektorean dagoen aldaketa teknologikoaren erritmo bizkorrari aurre egiteko. Halako aliantzen erakusgarri, horra hor, aipagarri, autokar integralentzako elementuen hornitzaile gakoekin egindakoak, izan ere, aliantza horiek gabe ezin izango genukeen sendotu ibilgailu horien alde egin genuen apustu estrategikoa.



Sektoreko enpresekin egindako beste lankidetza batzuk

Nabarmentzekoa da Irizarrek hemen parte hartzen duela:

ACICAE. Erakunde honen misioa hauxe da: euskal automobilgintzaren sektorea dinamizatzea, euskal enpresen arteko lankidetza ahalbidetuz, sektorean nabarmentzen diren erronka handiei baterako erantzuna eman ahal izateko. Europan eratu den automobilgintzako lehen klustertzat jotzen da.

1993an eratu zenez geroztik, azkar-azkar eboluzionatu du, eta horrek ekarri du azken hogeita bost urteetan euskal automobilgintzaren sektorearen fakturazioa seikoiztea: 18.390 milioi eurotik gora. Mundu osoan zehar, bestalde, 85.000 lagunetik gora biltzen ditu.

MLC ITS Euskadi, berez, irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatu bat da. Elkartearen helburua da Euskadin logistikan eta hornikuntza katean, azpiegiturretan eta mugikortasunean –hala pertsonena nola salerosgaiena– lan egiten duten bazkide, enpresa eta eragileen lehiakortasuna sustatzea.

Euskadin sektore honetan diharduten enpresa eta erakundeek 4.882 milioi euro eta 31.309 pertsona mugitzen dituzte.

2017an ekin genion gure elkarteari Goierri Valleyren trakzio enpresa gisa. Berez, Goierri Valley industri aliantza bat da, Gipuzkoako Goierri eskualdearen (bertan dago Irizar S.Coop.) eraldaketa industrial helburu duena. Horretarako, elkartutako enpresen lankidetza erreal eta aktiboa bultzatzen da, ezagutza partekatuz eta berrikuntzan arituz, gure ingurune hurbilaren etorkizuneko lehiakortasun industrial eta iraunkortasuna bermatzeko.

Aliantzan sartuta dauden enpresetan 5.800 langile dabilta guztira, zeinak balbulagintzan, mugikortasunean, jasoketan, energian, motor elektrikoetan, garraioan eta makina-erremintan diharduten. Ibarreko gaitasunak zein diren jakiteak aukera ematen du produktuen gama zabala eta industria soluzio integralak bildu, garatu eta kudeatzeko.

Nabarmentzekoa da ingurunearekin hartua dugun konpromiso handia, izan ere, gure material eta zerbitzu erosketen %15 gure probintziako (Gipuzkoa) enpresei egiten zaizkie.

Maila sozialean, tokiko hainbat entitatearekin lankidetza egonkor nabarmenak egiten ditugu, gizarteratzea eta laneratzea, prestakuntza eta hezkuntza bultzatzeko.

Hornidura katea

Gure hornitzaileek eta kanpoko gainerako kolaboratzaileek gure marka eta lehia posizioa hobetzen laguntzen diguten produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna daukate. Horrenbestez, pieza giltzarriak dira gure hornidura katean.

Iraunkortasunaren eremuan, arrisku sozialak, etikoak eta ingurumenezkoak murrizteko konpromisoa dugu, hornidura katean. Etengabe ahalegintzen gara hornitzaile eta kolaboratzaileekin lankidetza hertsian aritzea, gure ingurumen eta gizarte iraunkorraren politika betetzeko baita euren negoziotetan ere. Izan ere, guretzat, funtsezkoa da gure hornitzaile zein bazkide komertzialek geuretzat ezarri ditugun ingurumen eta gizarte estandar berberak betetzea.

Garrantzitsua da, halaber, gure hornitzaileek, eta aldi berean, euren hornitzaileek NBEren Mundu Itunaren edo Lanaren Nazioarteko Erakundearen gidalerroei jarraitzea, giza eskubideak, lan eskubideak eta eskubide sozialak betetzen dituzten kontratuzko konpromisoak ezarri, eta ingurumena kudeatzeko sistema espezifikoak abian jarri.

Hauek dira baldintza garrantzitsuenak: haurren lanaren prebentzioa, estandar etikoak eta ustelkeriaren aurkako politikak ezartzea eta ingurumena zaintzeko konpromisoa.

Gure hornitzaileek bete beharreko baldintzak

Gure iraunkortasun estandarrek gure hornitzaileek bete beharreko baldintzak definitu dituzte, sinatutako kontratuzko hitzarmenen arabera. Hauek dira baldintza garrantzitsuenak: haurren lanaren prebentzioa, estandar etikoak eta ustelkeriaren aurkako politikak ezartzea eta ingurumena zaintzeko konpromisoa.

Garrantzitsua da, halaber, ingurumen arriskuak eta baliabideen gehiegizko kontsumoa aldeztetik saihestea edo mugatzea. Horrenbestez, ahalegintzen ari gara gure hornitzaileek baldintza horiek betetzea. Besteak beste, hauek: energia eraginkortasuna eta materialak aukeratzean kontuan hartu beharreko baldintzak, substantzia espezifikoak erabiltzeko debekua eta entregatutako osagaien birziklapen baldintzak. Halaber eskatzen diegu ingurumena kudeatzeko sistema ziurtatu batekin lanean aritzea eta hala egiaztatzea, ISO 14001, EMAS edo antzeko arauen arabera.

Indarrean dauden kontratuzko hitzarmenek baldintza hauek jasotzen dituzte:

Giza Eskubideak

- Hornitzaileak bermatu beharko du iraunkortasun politika bat daukala, giza eskubideekiko errespetuan oinarritutakoa; bermatu beharko du langile taldeko inork ez duela lan beharturik egiten; ez duela onartzen pertsonen salerosketa, haurren lana edo edozein arrazoiengatik sortutako diskriminazioa; bermatu beharko du langileen baldintzak duinak direla, soldatak neurrizkoak eta mozkinak proportzionatuak; bermatu beharko du onartzen dituela elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa, ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka eraginkorra egiten duela, eta osasun, segurtasun eta ingurumenaren kudeaketa gaietan politika aktiboak sustatzen dituela.
- Iraunkortasun politika ezarriko dela ziurtatzeko helburuarekin, dagozkion prozesuak jarriko dira abian eta hornitzailearekin egindako aldizkako bileretan jarraipena egingo zaie.

Legez kontrako enplegua

Zerbitzuak ematearen babesean, legez kontrako lanaren kontrol eta prebentzioari buruz indarrean dauden lege eta araudiekin bat etorruta, hornitzaileak, kontratazio, gizarte segurantzak, prestazio sozial edo lan zein sindikatu bete-behar gaietan dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko dizkio erosleari, edo eskaeran eskatutako beste edozein dokumentu gehigarri, behin kontratua indarrean jartzen denean, eta gehienez ere, zerbitzuak ematen hasi aurretik.

Laneko segurtasuna eta osasuna

- Hornitzaileak segurtasun, higie eta laneko osasunari buruz indarrean dauden eta kontratuaren baitan egindako lanari aplikagarriak zaizkion lan legedia eta araudia bete beharko ditu, bai eta beste instalazio batzuetan hirugarren pertsona edo enpresek egin ditzaketen bestelako lanak ere.
- Hornitzaileak, bestalde, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren lanak burutuko dituen eroslearen instalazio(eta)ko barne funtzionamendu eta segurtasun araudia bete beharko du.

Ingurumena

- Hornitzaileak ondasunak entregatuko ditu edo zerbitzuak eskaini, ingurumen gaietan aplikagarriak diren eta indarrean dauden lege baldintzak eta araudia betetz.
- Hornitzaileak ingurumen kudeaketarako sistema ziurtatu bat eduki beharko du, edo, bestela, ziurtagiriaren norabidean lan egiten duela egiaztatatu.
- Hornitzaileak ziurta dezan Irizarri hornitzen dizkion zerbitzu eta produktueta ingurumen aldagaia txertatzen duela, hornitzailearekin aldi-aldi egindako bileretan jarraipena egingo zaio, besteak beste, materialak hautatzeko erabiltzen dituen irizpideak, ontziak edo bilgarriak lehengoratzeko edo berrerabiltzeko zein hondakinen birziklapenerako erabiltzen dituenak, eta produktu edo zerbitzu horien energia eraginkortasuna zein diren identifikatzeko

Etengabeko elkarriketa hornitzaileekin eta lankideekin

Prozesu arduratsua hornidura katean

Irizar Taldeak lehengaiak erosteko prozesu arduratsuak sustatzen eta babesten ditu. Oro har, hitzarmen bat sinatu aurretik, Irizarreko sustatzaile berriek azterketa potentzialak egiten dituzte, iraunkortasun jarduna ebaluatzeko. Helburua da, zehazki, hornidura katean gure iraunkortasun estandarrak betetzen dituztela bermatzea.

Bateriak

Irizar Taldean, gure marka eta teknologiako ibilgailu elektriko eta hibrido entxufagarriek dituzten bateriak garatzen eta fabrikatzen hasi gara. Horretarako, hainbat kimikak gelaxkak eskuratzen ditugu.

Material horien erauzketan giza eskubideak urratzeko arriskua dagoenez, etengabe hornitzaileekin harremanetan gaude, gelaxken hornidura katean gardentasun maila handitzeko. Irizarren jakin badakigu hornitzaileen eskutik jasotako osagaiak iraunkortasun printzipioen arabera fabrikatu behar direla bermatzeko erantzukizuna dugula, eta hori betetzea sustatzeko beharrezko neurriak hartzen ahalegintzen ari gara, hornidura katean ingurumen eta gizarte arriskuak murriztuz. Hurrengo memorietan aurrerapenei buruzko informazioa emango dizuegu.

Horrekin lotuta, etorkizunerako dugun helburua da baterien garapen eta fabrikazio prozesuak birdiseinatzen jarraitzea, iraunkorragoak izan daitezen.

Hornitzaileen eta lankideen partaidetzarekin diseinatzen eta garatzen ditugu produktuak. Hornitzaile nagusiei dagokionez "autokar bakoitzeko kudeaketa" deitu daitekeena ezartzen dugu; izan ere, hornitzaile horiek erabat txertatzen dira Irizarren eguneroko kudeaketan, produkzioari dagokion plangintzan, eskaeretan, jasotako salgaietan, espezifikazioen inguruan bezeroak egiten dituen etengabeko berrikuspenetan, eta autokar bakoitzera lotutako bere artikuluetan.

Produktuaren kalitateari dagokionez, azken urteotan hornitzaileen auditoria sistemak eta kalitatea ziurtatzeko eta desbiderapenak atzeraelikatzeke tresnak garatu ditugu.

Bestalde, integrazio maila handia bultzatzen dugu gure produktu eta prozesuen garapenean, ezagutzak, espezializazioa, teknologia eta baliabideak mobilizatuz eta trukatzuz. Hornitzaile nagusiekin aldiakako bileren dinamika handia izaten dugu, xedatutako urteko adierazleak betetzen direla bermatzeko, bai eta Irizar Taldearen ingurumen ikuspegiaren kultura zabaltzeko ere. Hornitzaileekin dugun harreman estu hori da, hain zuzen, horiek iraunkortasun estandarrak beteko dituzten bermea, gardentasuna areagotuz, eta hornidura kate guztietan eraginkortasuna handituz.

Bilera horiek, era berean, hornidura katean iraunkortasuna zeinen garrantzitsua den jakiteko prestakuntza eta jarraipen saioak egiten ditugu.

Erosketen kudeaketa gaur egun funtsezko elementua denez errentagarritasun eta lehiakortasun iraunkorra bermatzeko, Irizar AERCEko kidea da (Erosketa, Kontratazio eta Hornikuntza Elkartea Espainian). AERCE, izatez, enpresa ertain eta handietako erosketen arduradunak biltzen dituen elkarte profesional bat da. AERCEren xedea, berriz, tekniken inguruko sustapen, hedapen eta prestakuntza ez ezik, metodologia egokien aplikazioa ere bada, enpresako erosketen, kontratazioaren eta hornikuntzaren arlo osoa zuzen eta eraginkorki kudeatzeko.

Talde mailako **logistika** optimizatzeko proiektua

Irizar Taldea, bere arlo logistikoaren bitartez, buru-belarri murgilduta dabil ibilbideak egokitzeko eta berrizendatzeko proiektu batean, bere salgaien garraiorako bideratzen dituen baliabideak optimizatzeko helburuarekin, eraginkortasuna irabazteko, kostu txikiagoa izateko, eta ingurumen inpaktua murrizteko.

Proiektuaren xedea da bidalketak minimizatzea, eta edukiontzien zein trailerren okupazioa optimizatzea, ibilbideetan sinergiak bilatuz. Horretarako, egin beharreko ibilbideak identifikatu dira, bai eta zerikusia duten herrialdeak eta eskualdeak ere, hiru kategoriatan banatuta: itsaso bidezko bidalketak, aire bidezkoak eta lurrekoak.

Aurten, hobekuntzak egiten ari gara portuetako salgaiak egonkortzeko denboraren kudeaketan eta bilgarrietan, Mexiko eta Brasilgo lantegietara bidalitako edukiontzi bakoitzaren edukiera %10 handitzeko asmoz. Horrek dakar Irizarren eta lankideen salgaien garraioak eragiten duen ingurumen inpaktua nabarmen murriztea.

Hurrengo memorietan, CO2 igorpenen murrizketa datuak jakinaraziko ditugu.



Ingurumena

5.5.1. Gure estrategiaren esparrua eta ingurumenari begirako jarduna

5.5.2. Ingurumena, gure jardueran

- Baliabide naturalen kontsumoa eta energia eraginkortasuna
- Baliabide kimikoen kontsumoa
- Hondakinen sorkuntza eta ekonomia zirkularra
- Konpromiso argiak eta etorkizunera begirako helburuak

5.5.3. Erabat iraunkorra den energia duten ekoizpen instalazioak

5.5.4. Ingurumen ezagutza eta sentsibilizazioa handitzea





Gure estrategiaren esparrua eta ingurumenari begirako jarduna

Irizar Taldearen ingurumen politikako printzipio nagusiak dira hauek: CO2 eta bestelako substantzia kutsatzaile batzuen igorpenak pixkanaka murriztea; produktuen diseinuan ingurumen irizpideak sartzea; eta bertako pertsonen eta kolaboratzaileen artean ingurumena errespetatzeko jarrera sustatzea.

3. kapituluan ikusi bezalaxe ("Irizar: 130 urte bikaintasun eta iraunkortasuneko etorkizuna bistaratzen"), hamarkadak daramatzagu ingurumenarekin eta gure planetarekin dugun konpromisoan aitzindariak izaten:

1998: IRIZAR izan zen ISO 14001 ziurtagiria lortu zuen lehen autokar fabrikatzailea, Ormaiztegiako planta zabaltzeko proiektuari ekin zionean.

2000: Espainiako lehenengo enpresa EFQMk emandako **European Quality Prize** lortzen. Balorazio horretan, kontuan hartu zuten:

- o Nola erabiltzen genituen ingurumen baliabideak negozio prozesu guztietan (gure hornidura kateko hornitzaileekin lankidetzan), eta
- o 1996az gero lortu ditugun ingurumen emaitzen adierazleak:
 - Gure ingurune sozialaren pertzepzioa (inkestak bidez),
 - Maila globalean zein tokian kontserbazio eta hobekuntza adierazleak:
 - atmosferara egindako igorpenak
 - hondakinak eta birziklapena, fabrikazio prozesuan
 - berriztagarriak ez diren baliabide globalen kontsumoa
 - autokarren birziklagarritasuna.

2009. urteaz gero, ingurumenaren alde egin dugun apustua haratago joan da. Iraunkortasunari buruzko kapituluan ("5.2. Gure bezeroekin, bidaiariekin eta herritarrekin"), ingurumenak gure produktuen diseinuan eta sorkuntzan duen garrantzia aipatu dugu.

Talde barruan 2011. urtetik bultzatzen den elektromugikortasun negozioa da ingurumena zaintzearen eta herritarren ongizatea bilatzearen adierazlerik esanguratsuena.

Gure autobus eta autokarrek jasotako ezin konta ahala kanpo sari eta aitortenez gainera, 2016an Ingurumenaren Sari Nazionala jaso zuen Irizarrek, Espainiako produktu-zerbitzuaren kategorian, eta European finalista izan zen, Espainia ordezkatuz.

Etengabe aurrera egiten ari gara energia eraginkortasunean, hondakinen tratamenduaren optimizazioan eta gure jarduerak eta gure produktuek sortutako ingurumen eragina murrizteko bidean.

Pertsonen ongizateagatik eta ingurune naturalaren babesagatik dugun sentsibiltatea nagusi da Irizar osatzen dugun pertsona guztion portaeran.

Etengabeko hobekuntzarako helburuari jarraituz, ekonomia zirkularreko, energia eraginkortasuneko eta ekoberrikuntzako proiektuak ditu martxan Irizarrek duela urte batzuetatik, eta horietarako hobekuntza ekintzak definitzen ditu urtero.

Pertsonen ongizateagatik eta ingurune naturalaren babesagatik dugun sentsibiltatea nagusi da Irizar osatzen dugun pertsona guztion portaeran.

CO2 eta bestelako substantzia kutsatzaile batzuen **igorpenak pixkanaka murriztea**; produktuen diseinuan **ingurumen irizpideak** sartzea; eta bertako pertsonengan eta kolaboratzaileengan ingurumena errespetatzeko jarrera sustatzea.



Ingurumena, gure jardueran

Baliabide naturalen kontsumoa eta energia eraginkortasuna

Baliabide naturalen kontsumoa

Urtea	Ura (m3/ekoitzitako autokarra)	Energia elektrikoa (kWh/ekoitzitako autokarra)	Gas naturala (kWh/ekoitzitako autokarra)
2013	9,29	6292,81	9090,48
2014	9,72	5655,24	7914,71
2015	10,68	5240,75	8201,92
2016	8,98	4832,85	8184,06
2017	9,60	4810,74	8207,32
2018	8,84	4682,95	8618,53



Ur kontsumoa

Ur kontsumoak datu historikoak izan ditu, 2018an egindako prebentziozko mantentze neuriei esker, eta kontsumoa %8 jaitsi da.

Energia eraginkortasuna

Urtero, berrikusi egiten dira energia aurrezteko ekintzak, eta beharrezkoa izanez gero, berriak ezarri. Ekintza horiek hauetara bidera daitezke: ekoizpen fasera, kontsumoa hobetzeko edo ETH (Erabilgarri dauden Teknika Hobeak) dituzten instalazioen aldaketak gauzatzeko, errendimenduak areagotu eta energia eskaera txikitzeko asmoz, edo bestela, energia iturriak berrikusteko edo ordezkatzeko, energia berriztagarriak instalatu, eta autokontsumorako aukerak txertatuz.

- **Energia elektrikoaren kontsumoa:**

Energia elektrikoaren kontsumoa pixkanaka jaisten ari dela hauteman dugu (2018an, %2,7), 2013an martxan jarritako energia eraginkortasuneko neurrien Planari lotuta.

- **Gas naturalaren kontsumoa:**

Ikus daitekeenez, 2018an, aurreko urtean baino pixka bat gehiago kontsumitu da (%5). Hala izan da, 2018an kanpo tenperaturak oso baxuak izan direlako Ormaiztegin, eta, horrenbestez, berotegi instalazioekin eta hodi erradiatzaileekin lotutako kontsumoa handiagoa izan delako.

Nolanahi ere den, azken bost urteotan izandako %5,2ko beherakadak berretsi egiten du hartutako energia eraginkortasuneko neurrien eraginkortasuna.

Produktu Kimikoen kontsumoak

Baliabide kimikoen kontsumoa

Urtea	Pintura kontsumoa/m2 gainazal tratatua (kgr/m2)	Disolbatzaile kontsumoa/m2 gainazal tratatua (kgr/m2)
2013	0,404	0,231
2014	0,347	0,196
2015	0,493	0,163
2016	0,450	0,163
2017	0,479	0,139
2018	0,510	0,140



Disolbatzaile kontsumoa

2018an, disolbatzaile kontsumoa ia mantendu egin da 2017arekin alderatuta (%0,76ko igoera txikia). Pintura produktuen kontsumoak gora eginagatik, disolbatzaile kontsumoak egonkor eutsi dio, eta horrek agerian utzi du konposatu organiko lurrunkorren igorpenak murrizteko egindako lan ona.

Aipatutako kontsumoak azken urteetan izan duen bilakaera edo joera aztertuz gero, ikusten da bilakaera hori oso positiboa izaten ari dela, 2007az gero disolbatzaileak murrizteko xedez lantzen ari diren planen ondorioz.

Pintura kontsumoa

Disolbatzaileen kontsumoan ikusitakoaren kontrara, 2018an pintura kontsumoak %6,4ko hazkundera izan du, 2017arekin alderatuta.

Hainbat produktibitate faktore izanagatik (bereziki, autokar integralen ekoizpenean izandako igoera), eta horiek 2018an produktu eta baliabideen kontsumoaren hazkunde orokorra ekarriagatik (esaterako, pinturarena), etena izan da, neurri handi batean, 2007az gero pinturen kudeaketarako plan bat ezartzeko lan handia egin delako.



Hondakinen sorkuntza eta ekonomia zirkularra

Hondakinen sorkuntza (kgr/ekoitzitako autokarra)

Urtea	Hondakin arriskutsuak	Hondakin ez arriskutsuak
2013	241,40	1191,07
2014	234,68	1184,57
2015	286,37	1236,19
2016	285,30	1211,22
2017	306,75	1157,06
2018	320,52	1020,62



2010. urteaz gero, ingurumen inpaktu garrantzitsuak murriztuko dituzten irtenbide berriak aztertzeko eta garatzeko proiektu batean murgildurik dabil Irizar. Irtenbide horiei esker, hondakinak balorizatzen dira ("upcycling"), eta zabortegira botatzea saihesten da. Hala, balio goreneko material eta produktu berriak lortzen dira jardueran.

Hondakin arriskutsuen sorkuntza

Autokar bat ekoiztean 2018an sortutako hondakin arriskutsuen ratioa %4,5 handitu da 2017koarekin alderatuta. Hazkunde hori hainbat faktorek bultzatu dute, horiek, aldi berean, zuzeneko eragina izan dute pintura kabinen garbiketa zorrotzagoan, eta horren ondorioz, horien ondoriozko hondakinen hazkundean.

Enpresa barnean logikotzat jo da hazkundea (kalitate faktoreak, etab.) eta espero izatekoa da autokar modelo berriak eta erritmoak finkatuz joan ahala kontsumoak eta hondakinak egonkortuz joatea.

Hondakin ez-arriskutsuen sorkuntza

2018an, hondakin ez-arriskutsuak 2017an baino %11,8 gutxiago izan dira. Beherakada hori ekonomia zirkularreko proiektuaren ondorioa izan da. Proiektu horren helburua, hain zuzen, hondakinak minimizatzea eta bereizketa hobetzea da.

Hondakinen sorkuntza eta ekonomia zirkularra

Gure ingurumen konpromisoan aurrerapausoak emateko, erreferentziazko nazioarteko esparruen bila gabiltza.

Gure ingurumen konpromisoan aurrerapausoak emateko, erreferentziazko nazioarteko esparruen bila gabiltza.

Hala, aurreko urteetan egin dugun etengabeko lanari esker, tokiko eta lurraldeko hainbat administrazioarekin aliantzak eginez eta lankidetzan hertsian jardunez, gure ingurumen konfiantza sendotu dugu, 'Klima 2050: Europar Batasunak Hartutako Konpromisoa' ekimenarekin bat eginez. Euskadiko Klima 2050 Estrategiak helburutzat hartu du 2030erako berotegi efektuko gasen igorpenak 2005ekoak baino %40 gutxiago izatea, eta %80 gutxiago, 2050erako. Era berean, 2050. urte horretan, energia berriztagarrien kontsumoa guztizko kontsumoaren %40 izatea jarri da helburutzat.

Erabat iraunkorra den energia duten ekoizpen instalazioak

Irizar Taldearen ingurumen politika integralaren baitan txertatuta dago gero eta energia berriztagarri gehiago erabiltzea bere ekoizpen lantegietan.

2018ko maiatzean inauguratutako Irizar e-mobility ekoizpen lantegi berrian dugu adibidea. Horixe dugu **elektromugikortasuneko Europako lehenengo lantegia**, non kontsumitzen den energia guztia Arabako energia fotovoltaikoko zentro batetik hornituko den.

Nabarmentzekoa da lantegia eraikitzekeko elementu berritzaileak eta abangoardiazko irtenbideak erabili direla; eta berebiziko arreta eskaini zaiela eko-iraunkortasuna definitzen duten kontzeptuei. Zolarria planimetria altukoa da, atzerapen junturarik gabea eta istripuen ondoriozko isurietan iragazkortasun txikikoa; indukzio bidez finkatutako xaflez egindako estalkia dauka; eraikinaren kanpoaldeko zein barrualdeko LED bidezko argiztapena; eraikuntza-aren instalazioen eta ekoizpen prozesurako instalazioen kontrola zentralizatua da (argiztapena, klimatizazioa, berokuntza, pneumatikoa, pintura kabinak...); eta aretoen kudeaketa, berriz, ukipenezko aginte bidezkoa.

Nabeko berokuntza sistema bat eta ur bero sanitarioa ere baditu; ura, hain justu, alboko lursailean dagoen enpresa batek duen lurrin soberakinari etekina aterata lortutakoa da.

Aipatutako ezaugarriak direla tarterko, A motako energia eraginkortasunaren ziurtagiria jaso du; hots, European gaur egun dagoen handiena.

Jema lantegiak kontsumitzen duen energia guztia zentral horretan bertan sortutakoa da.

Ingurumen ezagutza eta sentsibilizazioa handitzea

Hauek dira Irizarreko pertsona guztien ingurumen ezagutza eta sentsibilizazioa areagotzeko eta horren ondorioz emaitzak hobetzeko gauzatzen ditugun ekimenak:

- Ingurumen praktika onei buruzko eskuliburu bat osatzea, Taldearen gainerako ekoizpen lantegietako eguneroko kudeaketan ingurumen aldagaia hedatzeko eta ezartzeko.
- Adierazleen urteko auditoriak eta autoebaluazioak gauzatzea, eta emaitzak partekatzea, hobetzeko, sinergieiei etekina ateratzeko eta erabakiak hartzeko.
- Ingurumen arriskuei eta etorkizuneko hobekuntzei buruzko prestakuntza eta sentsibilizazio programak.
- Laguntza ekimen eta kanpainak, berebiziko garrantzia emanez lehengaiak atera eta prozesatzeko prozesuetan iraunkortasun irizpideak betetzeari.

Ekimen horiek urtero berrikusi eta eguneratzen dira, lege eskakizun berriei eta ezarritako barne helburuekin bat etorrita. Hala pixkanakako eta etengabeko hobekuntza izateko moduan gaude.

Irizar e-mobility. Elektromugikortasuneko Europako lehenengo lantegia, non kontsumitzen den energia guztia Arabako energia fotovoltaikoko zentro batetik hornituko den.

Gizartea, oro har

5.6.1. Oro har gizartearekin dugun jardunaren eta gure estrategiaren esparrua

- Urteroko omenaldia erretiroa hartu dutenei
- Jarduerak gure sektorearekin
- Kultur jarduerak
- Heziketa jarduerak
- Kirol jarduerak
- Garapenerako lankidetza jarduerak





Oro har gizartearekin dugun jardunaren eta gure estrategiaren esparrua

Irizar Taldean dugun misioaren azken helburua da aberastasuna eta enplegua sortzearen eta hazkunderaren aldeko apustu irmoa egitea, presente gauden herrialde eta inguruetako pertsonen bidez. Horrekin bat etorrira, "2. Irizar Taldea Ezagutzen" eta "5.3. Irizar S.Coop.en gure pertsonekin dugun iraunkortasuna" kapituluetan ikus daitekeen bezala, presente gauden inguruneetan dugun enplegu hazkunderari eta bilakaerari buruzko grafikoak ditugu gizarteko iraunkortasunarekin lotuta dugun konpromiso estrategikoaren ispilurik onena.

"Gizartearekin dugun harremana errespetuzkoa, irekia eta parte-hartzailea da, eta gure hurbileko ingurunean aberastasuna eta enplegua sortzen ditugu, eta kulturaren, hezkuntzan, eta kirolean parte hartzen dugu. Gizarte ekintzan ere parte hartzen dugu, bai gure hurbileko ingurunean bai munduko gune behartsuenetan".

Horrenbestez, gure estrategiarekin koherentzian, gure pertsonen ahalegin ekonomiko handia eta jardun ugari bideratzen ditugu inguruko egoera sozioekonomikoa eta bizi garren gizartea hobetzera.

Gainera, Irizar S.Coop.en iraunkortasunaren atalean ("5.3. Kanpo hornitzaileekin, hornidura katearekin eta aliantzekin") zehaztasunez ikusi genuen bezala, gure hornidura katearen kudeaketa arduratsutik ere hurbileko ingurunearekin (Gipuzkoa) dugun konpromiso handia nabarmendu dezakegu; izan ere:

- Gure material eta zerbitzuen erosketen %18 probintziako enpresei egiten dizkiegu.
- Hornitzaile eta azpikontratatistekin lankidetza egonkorak izaten ditugu, zailtasun handienak dituzten pertsonak laneratzen zein gizarteratzen laguntzeko: desgaitasunen bat duten pertsonak, gazteak, etab.

Inguruko ikastetxe eta unibertsitateekin lankidetzan ari gara. Eta gure sektorearekin lotura duten jardueretan laguntzen dugu.

Gainera, gizartearekin hartua dugun konpromisoaren barruan, **urtean 1,5 milioi euro bideratzen dugu honako arlo hauekin lotutako irabazi-asmorik gabeko jardueretara:** gure sektorea, heziketa, kultura, kirola, eta bereziki, nazioko zein nazioarteko lankidetza. Eta ez bakarrik garapen unibertsala bultzatzeko, baita barneko hazkunderako ate gisa ere. Proiektu bakoitza aukeratzeko eta bakoitzaren iraupena erabakitzeke irizpideak Irizarreko Kontseilu Sozialak ezartzen ditu, lankidetza proiektu bakoitzaren eremuaren arabera, eta pertsona guztiei jakinarazten zaizkie, horretarako ezarrita dauden komunikazio kanalen bitartez.

Hona hemen azken urteotako jardunbide ildo nagusiak; eta bereziki, 2018an bultzatutako berrikuntzak.

Urteroko omenaldia **erretiroa** hartu dutenei

2018an ere, Irizarrek erretiratuak aspalditik eskaintzen dien omenaldiaren harira, erretiratuak urteko hitzordura azaldu dira. Egun osoa lagunekin eta lankideekin igarotzen dute, eta ez da inoiz falta garai bateko oroitzapen eta pasadizorik. Aldi berean, pertsonekin harremanetan jarraitzen dute, eta urteetan beren bizitzaren zatia izan diren jardueren berri izaten dute.

Jarduerak **gure sektorearekin**



APRAT elkartearekin (Trafiko istripuetan erreskateak egiteko elkarte profesionala) lankidetzan jarduten dugu, zerbitzu publiko eta larrialdietako profesionalen autokarren inguruko ezagutzak hobetzerantz bideratutako ekintzetan, autokarrak inplikaturik egon daitezkeen istripuetan esku hartzeko orduan.

Erakustoki gisa prestatutako autokar bat daukagu, egitasmo sozial desberdinetarako musu truk lagatzen duguna. 2018an, hirugarren urtez jarraian erabili zen **gela mugikor gisara "Kultura Digital@" kanpaina** Gipuzkoako bost lekutan. Heziketa arloko sentsibilizazio kanpaina bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen duena, adin txikitik (8-16 urte) programazioa ikasiz teknologikoki sortzailean erabiltzeko eta, horrela, bokazio teknologikoa bultzatzeko. Eskaintako tailerretan izandako parte hartzaile kopuruen datuak, programak hedabideetan izandako oihartzuna eta parte hartzaileen gogobetetze maila nabarmen positiboak izan dira, eta horrek berretsi baino ez du egin etorkizunean programarekin jarraitzearen egokitasuna.

2018an **Goierri Valley**, egitasmoarekin modu aktiboan lankidetzan jarraitu dugu. 2017an atxiki gintzaizkion egitasmoari, zeina metalaren-mekanikaren sektoreko partner industrial bat den eta Goierriko ibarraren eraldaketa industrial gidentzen duen (bertan dago Irizar S.Coop.), elkartutako enpresen arteko lankidetzaren bitartez, ezagutzak partekatuz eta berrituz, gure ingurunetik kanpo lehiakortasun industrial eta iraunkortasuna bermatzeko.

Era berean **sektoreko hainbat elkarte** babesten ditugu urtero: Asetra, Aetram, Atuc, Fecalbus, Fenebus eta Madrilgo Partzuergoa. Urtero ematen dugu babes hori autobus eta autokar garraioa bultzatzeko eta posizionatzeko, etorkizunean beharrezko garraioa izango baita.

Kultur jarduerak



Gure ingurune hurbileko jarduerak kultural eta tradizionalak babesten ditugu.

Irizar aktiboki inplikaturik dago **euskeraren**, aldeko jardunean, euskararen erabilera areagotzeko eta normalizatzeko, bai enpresaren barruan Euskara Planaren bitartez, bai bere ingurune sozialean, hainbat erakunde eta jarduerak babestuz. Horien artean hauek nabarmentzen dira: Kontseilua, Kilometroak, Nafarroa Oinez, Ibilaldia, Araba euskaraz, etab.

Urtero **euskal zinema** babesteko ematen den **Irizar sariari** Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren barruan "Oreina" filma eta "Natura bizia", "Emakume erraketista" eta "Bihar Dok Amairu - Basque Culinary Project" dokumentalak errodatzeko babesak gehitu behar zaizkio.

Musika hedatzen laguntzeko asmoz, Irizarrek lankidetzan dihardu hainbat erakundekin; tartean, Donostiako Orfeoaren urteko babesletza eskaintzen du, hamarkadatik gorako harremana baitauka erakunde horrekin.

Euskal musika eta dantza tradizionalaren atalaren barruan, azpimarratzekoak dira Euskadiko Dantza Txapelketarekin egindako elkarlanak.

2018an, laugarren urtez jarraian, Irizar **Albaola Euskal Itass Faktoriarekin** ibili da elkarlanean. Albaolaren jarduerak nagusia itsasontzi historikoak eraikitzea da, artisauteko itsas teknologia berreskuratzeko eta balioan jartzeko gune berritzaile batean.

Nabarmentzekoa da, halaber, **Jauzarrearekin** duen lankidetzak (euskal kultura aztertzea eta zabaltzeko funtsa), bai eta Ormaiztegi **Zumalakarregi Museoarekin** duena ere. Museo hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzua da, helburutzat duena XIX. Mendeko Euskal Herria hurbiltzea publiko guztia zein espezializatuari. Mende hori, hain zuzen, aldaketa, sozial, kultural, ekonomiko eta politikoa handiko garaia izan zen, mundu garaikidearen hasiera.



Heziketa jarduerak



Irizarrek hainbat modalitatetan laguntzen du heziketaren alorrean.

Aktiboki inplikatzeko eta zehazki, esperientziak gizartearekin partekatze eta beste erakunde, heziketa zentro eta pertsona batzuetan aurrerapenak ekar ditzaketen interesak sortzeko helburuarekin egiten diren jardueretan. Horretarako, ate irekien jardunaldiak antolatzen ditu bere instalazioetan, eta unibertsitateetan, negozio eskoletan... egiten diren kanpo jardunaldietan zein nazio zein nazioarteko erakundeen arteko eztabaida foroetan parte hartzen du.

“Bizitzaren bidaia” zikloa babesten du urtero, Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroen barruan. Prestakuntza irekiko eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza ziklo bat da, bai eta bizi garen munduaren gainean gogoe-ta egitekoa ere, ahal den neurrian etorkizun desiragarri eta hobea eratzen laguntzeko.

Udalekin eta beste enpresa batzuekin batera **Goierri fundazioko** kidea da, zeinak Goierriko eskualdeko pertsonen prestakuntza eta garapen tekniko, ekonomiko eta soziala lortzea baitu helburu, Ormaiztegi eskualde horretan kokatzen baita.

Goieki Enpresa Inkubategian parte hartzen du, Goierriko eskualdean enpresa egitasmo berriak agertzen laguntzeko eta bultzatzeko.

Laugarren urtez jarraian, **STARTInnova programa pedagogikoaren** enpresa aholkularia izan da Irizar, 2018an. Gazteen ekintzailatza garatzea xede duen programa hau Diario Vascok bultzatzen du. Batxilergoan edota Lanbide Heziketan dabilten 16-17 urteko gazteei zuzenduta, jarriera ekintzaileak sustatzen ditu; bai eta ikastetxeen eta enpresa egituraren artean harreman handiagoa egotea ere.

Bi proiektuen bitartez **UGLE-Urola Garaiko Lanbide Eskolarekin eta PEÑASCAL S.Coop.ekin**. “Eskolatze programa osagarrietako ikaskuntzarako diseinu unibertsalean” parte hartzen du. Baldintza pertsonalak edo eskola historia dela medio hezkuntzako laguntza premia bereziak dauzkaten 14-16 urteko ikasleei zuzendutako programa da.

Kirol jarduerak



Irizar S.Coop.ek babesletza batzuk egiten ditu urtero; tartean:

- **Kirolgi Fundazioa**. Gipuzkoako kirola sustatzeko eta garatzeko erakundea, irabazi-asmorik gabea, errendimenduko kirolean arreta berezia jartzen duena.
 - **Gipuzkoa kirola** goren mailan: futbola (Reala), saskibaloia (Gipuzkoa Basket Saskibaloia), errugbia (Ordizia Rugby taldea) eta eskubaloia (Bera-Bera).
 - **Eskualdeko taldeak, probak eta txapelketak**, arlo hauetan: atletismoa, euskal herri kirolak, mendia, txirrindularitza, bai eta Ormaiztegi inguru hurbilean egindako kirol jarduerak eta kirol txapelketak ere.
 - Bereziki kontuan hartzen dira **euskal kirol tradizionalak**, horien artean, aipatzekoa da Xistera – Euskal Herriko Xistera Kluben Kirol Klubarekiko kolaborazioa.
 - **Lasarteko hipodromoa**, Urtero Irizar Saria ematen zaio inaugurazio saioko zaldi lasterketako irabazleari.
- Gero eta presentzia handiagoa dauka **kirol egokitan eta emakumeen kirolean**. Alor horietan egindako kolaborazioen artean, hauekin egindakoak nabarmendu ditzakegu:
- **HEGALAK Zabalik Fundazioa**: “Programa para mejorar la calidad de vida de las personas dependientes en situación de discapacidad y/o con patología, a través de la readaptación hacia la actividad física en Gipuzkoa” y “Programa de baño sin barreras en la playa de la Concha en San Sebastián”.
 - **Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado**. Mediante el “Proyecto integral de actividad física adaptada e inclusiva dirigido a niñas-os y jóvenes con diversidad funcional en Urola Garaia y Goierri”.
 - **“Zuzenak”** aulki gurgildunean egindako saskibaloia.
 - **Bera Bera** emakumeen eskubaloia taldea.
 - Emakumeen futboleko **Goierri Gorri Futbol Klub**, egitasmoa, zeinak Goierri aldeko aurreko taldeak biltzen eta indartzen dituen.



Ekarpen ekonomikorik handiena izaera sozial eta asistentziala duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak lehenetsi eta babestera bideratzen dugu.

Tokiko eta probintzia mailan diharduten **ia 30 erakunderekin** ari gara lankidetzan; horien artean:

- Proiektu konkretuetan laguntzen diegun elkarte handiak; horien artean aipagarri: Elikagaien Bankua.
- Elkarte probintzialak, batez ere pazienteen eta senideen elkarateak.
- Hasi minbiziaren kontrako AECC elkartetik eta gaixotasun arraroen elkarateetara: Tximeleta larruazala eta Stop San Filipo.
- Adineko pertsonen laguntzeko elkarateak.

Heziketan eta kirol egokitan dagoeneko aztertu ditugunekin batera, 2018an nabarmentzekoak dira **Gureak Fundazioarekin**: desgaitasuna babesteko gauzatu diren proiektuak: "Aspergerra daukaten pertsonen enplegarritasuna" eta "Ni zu bezala – Yo soy como tú" (Gipuzkoako haurrei desgaitasunari buruzko ikuspegi positibo eta aktiboa erakusteko").

Proiektuen bidez, **25 ONGrekin**, dihardugu lankidetzan nazioartean, heziketa, osasuna eta genero berdintasuna bultzatzen laguntzeko, eta pobrezia, gosea eta desorekak errotik desagerrarazten laguntzeko.

Aurreko memorieta aipatu ditugun proiektu batzuekin jarraitzeaz gainera, hona hemen 2018an gure laguntza izan duten proiekturik esanguratsuenetako batzuk:

Vicente Ferrer Fundazioa: Andhra Pradesh eta Telangana (India) estatuetan abandonatuta edo alargun bizi diren emakumei Aholkularitza eta Arreta Nutrizionala emateko Programa.



[Vicente Ferrer Fundazioaren eskertza bideoa](#)

Mugarik Gabeko Medikuek: Nazioarteko Krisia Nigerian. Nigeriako armadaren eta Boko Haranen arteko gatazka armatuaren eraginez guztia galdu duten eta menpeko hirietan harrapatuta bizi diren emakume eta haurren bizi baldintzak hobetzen laguntzea (arreta medikoa, janaria eta ura).



[Mugarik Gabeko Medikuen eskertza bideoa](#)

UNICEF: Afrika Erdiko Errepublikan genero indarkeriatik eta sexu esplotaziotik bizirik atera diren eta indar eta talde armatuekin zerikusia duten haurren arreta integrala.



[UNICEFen eskertza bideoa](#)





Irizar S. Coop.
Zumarraga bidea, 8
20216 Ormaiztegi (Gipuzkoa) | Spain
T +34 943 80 91 00 | F +34 943 88 91 01
irizar@irizar.com | www.irizar.com